



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko azaroaren 20a

135. ZK.

---

### **A U R K I B I D E A**

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2012ko Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2012ko Kontu Orokorraren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko azaroaren 18an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak igorri duela 2012ko Nafarroako Kontu Orokorraren azterketa eta zentsurari buruzko txostena,

ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 201eko azaroaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **2012ko Kontu Orokorraren azterketa eta zentsurari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (4. or.).</p> <p><b>II.</b> Foru sektore publikoa eta aplikatzekoa den araudia (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1 Foru sektore publikoa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera. (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Foru sektore publikoa, kontabilitate nazionalaren terminoetan (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.3. Aplikatzekoa den araudia (11. or.).</p> <p><b>III.</b> Helburua (13. or.).</p> <p><b>IV.</b> Norainokoa (14. or.).</p> <p><b>V.</b> Iritzia (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1. 2012ko Kontu Orokorrak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Legezkotasuna (17. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">V.3. 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.4. Aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzea. (25. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.5. Gomendioen jarraipena (29. or.).</p> <p><b>VI.</b> Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontu Orokorraren laburpena (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1. 2012ko aurrekontuaren likidazioa (30. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2. 2012ko ekitaldiko aurrekontu-emaizta (31. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.3. Diruzaintza-gerakina, 2012ko abenduaren 31n (31. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.4. 2012ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (32. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.5. 2012ko emaitzen kontua (34. or.).</p> <p><b>VII.</b> Iruzkinak, ondorioztapenak eta aholkuak (36. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.1. 2012rako aurrekontua (36. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.2. Kontu Orokorrak, kontabilitate-eredua eta aurrekontu-programak (40. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.3. Nafarroako Gobernuaren zorpetzea (43. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.4. Ekitaldiko gastuen egoera-orriaren aurrekontu- eta kontabilitate-ebakeraren analisia. (47. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.5. Hornitzaileen ordainketa-epoen jarraipena. (48. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.6. Langile-gastuak (50. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.7. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (61. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.8. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital- transferentziengatiko gastuak (64. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VII.9. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa. (71. or.).</p> |
|--|--|

- VII.10. Inbertsioak (73. or.).
- VII.11. Zergen bidezko diru-sarrerak (82. or.).
- VII.12. Diruzaintza (94. or.).
- VII.13. Ibilgetu ez-finantzarioa (96. or.).
- VII.14. Nafarroako Enpresen Korporazio Publiko taldea eta sozietate publikoak (97. or.).
- VII.15. Fundazio publikoak (104. or.).
- VII.16. Abiadura Handiko Trenaren lanak (105. or.).
1. eranskina. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera (2008tik 2012ra) (111. or.).
2. eranskina. Nafarroako Gobernuaren defizitaren eta zorpetzearen bilakaera, aurrekontu egonkortasunaren ondorioetarako (2008tik 2012ra) (117. or.).
- 2.1. Finantzaketa-beharrak (117. or.).
- 2.2. Zorpetzea (120. or.).
3. eranskina. Nafarroako parlamentu-erakundeen 2012ko aurrekontuaren likidazioa (122. or.).
- A. Nafarroako Parlamentua (122. or.).
- B. Arartekoa (123. or.).
- C. Nafarroako Kontuen Ganbera (124. or.).
- Behin-behineko txostenari lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak aurkeztutako alegazioak (125. or.).
- Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emaniko erantzuna (126. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, araubidetzat duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuari jarraikiz, Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrak fiskalizatu ditu. Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2013rako onetsi zuen urteko programan.

Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuaren 2013ko ekainaren 26ko erabaki baten bitartez onetsi zen. Gero, proiektu hori Nafarroako Parlamentuari igorri zitzaion, eta horrek, 2013ko uztailaren 1ean, erabaki zuen hura ganbera honi igortzea.

Landa-lana auditoriako zazpi teknikarik eta auditore batek osatutako ekipo batek egin zuen, 2013ko apiriletik irailera bitartean. Talde horrek, bestetik, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan du.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atala foru sektore publikora mugatzen da, bai foru araudiaren eraginetarako, bai aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako ere. Hirugarren atalean, fiskalizazioarekin lotu nahi izan diren helburuak erakusten dira; laugarrenean, berriz, ekuzioan aplikatutako norainokoa eta metodologia deskribatzen dira. Bosgarren atalak erakusten du nolako iritzia daukagun 2012ko Kontu Orokorri buruz. Seigarren atalean, laburpen bat jasotzen da Kontu Orokorren egoera-orri finantzario garrantzitsuenei buruz. Zazpigarren eta azken atalean, Nafarroako Gobernuaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Hiru eranskin gehitu dira: bi 2008tik 2012ra bitarteko bilakaerari buruz, bai gastuei eta aurrekontu diru-sarrerei dagokienez, bai defizitari eta zorpetzeari dagokienez ere, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako; hirugarren eranskina parlamentu-erakundearen 2012ko aurrekontu-likidazioari buruzkoa da.

Txostenarekin batera, 2012ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz Nafarroako Gobernuak eginiko oroitidazkiaren laburpen bat ageri da. Haren testu osoa hemen ikus daiteke: [www.navarra.es/presupuestos/cuentas\\_generales2012](http://www.navarra.es/presupuestos/cuentas_generales2012).

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2013ko maiatzaren 20an, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldearen ekimenez, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea txosten bat egin dezala *“jada egin diren abiadura handiko trenaren obrak Nafarroako Foru Komunitateak arreratzearen gastuari eta Iruña-Castejón abiadura handiko zatiaren gastu-aurreikuspenari buruz”*. Eskari hori berariazko arlo baten gisara sartu da 2012ko Kontu Orokorren fiskalizazioan, eta egingdako lana eta haren ondorioak txosten honen VII.16 atalean jaso dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko, haren erakunde autonomoetako eta haren sozietate eta fundazio publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. FORU SEKTORE PUBLIKOA ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Atal honetan, lehenbizi, foru sektore publikoaren zedarrantzea ageri da, 2012koa, bi aldetatik:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- Aurrekontu-egonkortasunaren arauen arabera.

Gero, Foru Ogasunari 2012an aplikatzekoak zaizkion arauak aztertzen dira.

### II.1 FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4ko 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA.

Honakoak dira foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta hari atxikitako erakunde autonomoek.
- Nafarroako Parlamentuak eta haren mendeko organoek; hau da, Kontuen Ganberak eta Arartekoak.

- Nafarroako Kontseilua.

- Nafarroako Foru Komunitatearen sozietate publikoak eta haien erakunde publikoak. Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde publikoetako sozietate publikoak halako sozietate batzuk dira non Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren partaidetza, zuzeneko nahiz zeharkakoa, kapital sozialaren gehiengoa baita; halaber, sozietate publikotzat jotzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren menpeko erakunde publikoek administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna duten sozietateak; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa dutenak.

- Fundazio publikoak dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek beren eskumeneko xedeak betetzeko sortutakoak, baldin eta beren sorrerako ondarearen gehiengoa sortzailearen zuzeneko nahiz zeharkako ekarpenen bitartez eratu bada. Halaber, halakotzat jotzen dira sortu ziren garaian izaera pribatua izan arren, horrekin batera beren gobernu organoetan Administrazioaren ordezkariak gehiengoa osatzearen baldintza betetzen dutenak.

2012an, foru sektore publikoaren antolaketaren alderdi azpimarragarri moduan, honakoak adierazi behar ditugu:

- UPN-PSN hitzarmena hautsi ondoren Nafarroako Gobernuan izandako birmoldaketaren ondoren, 2012ko uztailaren departamentuen oinarritzko egitura berraztertu zen. Zortzi izaten jarraitzen dute, baina haien izenak eta esleituta dauzkaten eskumenak aldatu dira.

10/2011 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa	11/2002 Foru Dekretua, uztailaren 22koa
Departamentuak	
Lehendakaritza, Administrazio Publikoak eta Barnea	Lehendakaritza, Justizia eta Barnea
Ekonomia eta Ogasuna	Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.
Hezkuntza	Hezkuntza
Osasuna	Osasuna
Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena	Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa.
Giz. Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	Gizarte Politikak
Kultura eta Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	Kultura eta Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak
Sustapena eta Etxebizitza	Sustapena

- Halaber, aurreko berregituratzeak berarekin ekarri du erakunde autonomoak berrantolatzea, eta, kasu batzuetan, haien eskumena eta izena berriz finkatzea; hartara, NAPI kendu da, Gazte-

riaren Institutua Kirolarenarekin batera sartu da eta Lan Osasunaren Institutuak Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua izena hartu du. Bederatzi dira orain; aurreko etapan, ordea, 11 ziren. Laburbilduz:

Departamentua	2011	2012
Lehendakaritza	Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua Nafarroako Larrialdietako Agentzia	Nafarroako Larrialdietako Agentzia
Hezkuntza	Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua	Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua
Ekonomia	Nafarroako Zerga Ogasuna Nafarroako Enplegu Zerbitzua.	Nafarroako Zerga Ogasuna
Landa Garapena, Industria eta Enplegua		Nafarroako Enplegu Zerbitzua.
Gizarte Politika	Nafarroako Mendekotasun Agentzia Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua Nafarroako Gazteriaren Institutua	Nafarroako Mendekotasun Agentzia Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.
Osasuna	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Nafarroako Lan Osasunaren Institutua	Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

• Enpresen Sektore Publikoa 21 enpresak osatzen dute, aurreko urtean baino bat gutxiago, Tuckland Footwear, SL sozietatea desegin baita. Sektore hori, 2012an, honakoek osatzen dute: NEKP –taldeko sozietate nagusi gisa– eta gobernuak partaidetzaren gehiengoa duen 13 enpresa publiko berregituratuak<sup>1</sup>, gehi berregituratu gabeko lau sozietate publiko eta Burnizko azpitaldearen (hiru enpresek osatua) aldi baterako atxikipena, 2011tik aurrera egina. Laburbilduz, honakoek osatzen duten enpresen sektore publikoa:

EPSaren osaera	2011	2012
NEKP	1	1
Akziodun nagusia administrazio publikoa duten sozietate berregituratuak	13	13
Beste sozietate publiko batzuk	5	4
Aldi baterako atxikipena-Burnizko azpitaldea	3	3
Guztira	22	21

Zehaztu beharra dago ezen NEKPren bidez finkatutako taldea, merkataritzako legediaren eragineta-rako, osatzen dutela, batetik, berez publikoak diren enpresek –foru araudiaren arabera– eta, bestetik, enpresa pribatuek, zeinaren gainean enpresa nagusiak influentzia gradu desberdinak baitaizka (ikus txosten honetako VII.14 epigrafea).

Halaber, esan behar dugu 2013ko maiatzean Sodena enpresak saldu egin zuela Burnizko azpitaldean zeukan partaidetza osoa. Horrenbestez, data horretatik aurrera, azpitalde hori –hiru enpresek osatua– jada ez da enpresa publiko gisa hartzen.

<sup>1</sup> 2013ko maiatzean, Gobernuak enpresa hauek berregituratzeko bigarren plana aurkeztu du, 2013an eta 2014an zehar haien kopurua zortzira murrizteko helburuarekin, besteak beste.

- Fundazio publikoek zazpi izaten jarraitzen dute, hurrengo taulan azaltzen den bezala:


Fundazioa	Helburua
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	Nafarroako enpresetan –publikoetan zein pribatuetan– kalitate-zerbitzuak sustatzea.
Pertsona Helduen Tutoretza	Adin nagusiko pertsona ezgaituen arreta eta tutoretza

Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago ez 2012ko Aurrekontuei buruzko Foru Legean, ez foru sektore publikoan ez dela Moderna Fundazioa fundazio publikotzat hartzen; gai horri dagokionez, Moderna Planari buruz ganbera honek eginiko txostenera jo beharko da. Egoera berebean dago Centro de Recursos Ambientales de Navarra fundazioa, zeren eta Nafarroako Gobernuak haren patronatua eta gobernu organoak izendatzen baititu<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Halere, fundazio hori sektore publikoan sartuta dago kontabilitate nazionalaren terminoetan.

Foru sektore publikoaren irudikapen grafikoa, 2012aren amaieran, 1. eta 2. tauletan erakusten dena da:

1. taula. Foru sektore publikoa 2012an (2012ko uztailetik)





## 2. taula. Enpresen Sektore Publikoa 2012an

NEKPk partaidetza zuzena eta gehiengoa duen sozietate publikoak (berregituratuak)

1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP) Sozietate nagusia	
Enpresa publikoa	Jarduera ekonomikoa
2. Navarra de Suelo y Vivienda, S.A. (NASUVINSA)	Lurzorua eta etxebizitza
3. Agencia Navarra del Transporte y Logística, SA (ANL)	Garraioa eta logistika
4. Ciudad Agroalimentaria de Tudela, S.L. (CAT)	Nekazaritzako elikagaiak
5. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A. (INTIA)	Nekazaritzako elikagaiak
6. Gestión Ambiental de Navarra, S.A. (GAN)	Ingurumena
7. Navarra de Infraestructuras Locales, S.A. (NILSA)	Tokian tokiko azpiegiturak
8. Empresa Navarra de Espacios Culturales, S.A. (ENEC)	Kultur eremuak
9. Navarra Deporte y Ocio, S.L. (NDO)	Azpiegitura tematikoak, aisiakoak eta kirolekoak
10. Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, S.A. (CNAI)	Hezkuntza eta dohainak
11. Navarra de Servicios y Tecnologías, S.A. (NASERTIC)	Adm. publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
12. Centro Europeo de Empresas e Innovación, S.L. (CEIN)	Berrikuntza eta enpresagintza
13. Trabajos Catastrales, S.A. (TRACASA)	Ogasuna eta Ondarea
14. Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL (SODENA)	Ekonomiaren sustapena eta finantzaketa

Oharra: Guztiek ere NEKPren ehuneko 100eko zuzeneko partaidetza dute beren kapitalean, salbu eta SODENA, zeinaren zuzeneko partaidetza ehuneko 98,06 baita.

Nafarroako Gobernuak partaidetzaren gehiengoa daukan beste sozietate publiko batzuk, NEKP-ren zeharkako partaidetza dutenak:

Beste enpresa publiko batzuk	Partaidetzaren ehunekoa	Jarduera ekonomikoa
15. Start Up Capital Navarra, SA	59,36	Enpresak sustatzea eta bultzatzea
16. Salinas de Navarra,SA	76	Gatza eta haren eratorriak produzitzea, lantzea eta merkaturatzea
17. Potasas de Subiza,SA	100	Ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea
18. Natural Climate Systems, SA	66	Higiezinak sustatzea energia-efizientziari dagozkion irizpideen arabera
19. Burnizko azpitaldea (1)	100	Autobusen eta trenen karrozeria
20. Suminis.y Serv. Unificados de Carrocería, SL <sup>(1)</sup>	100	Autobusen eta trenen karrozeria
21. Suncove, SA <sup>(1)</sup>	100	Autobusen eta trenen karrozeria

(1) Aldi baterako, eta 2011tik, sozietate publikoak dira –Burnizko azpitaldea–, Sodenak gauzatutako erosteko aukeraren ondorio gisa. 2013ko maiatzean, Sodenak partaidetza hori guztia saldu du.

## II.2. FORU SEKTORE PUBLIKOA, KONTABILITATE NAZIONALAREN TERMINOETAN

Foru sektore publikoaren mugatzea edo finkapen fiskalaren perimetroa erabakigarria da Nafarroako Gobernuak 2012ko ekitaldirako bereganatutako defizitaren eszenatokien betetzea egiaztatzeko; hain zuzen ere, azken hori heldu da Espainiako administrazio publikoen multzoan aurrekontu-egonkortasunaren baldintzen betetzea bermatzeko helburutik. Hori guztia kontabilitate nazionalako terminoetan neurtuta.

Kontabilitate Nazionalako Sistemaren arabera (SEC'95), Administrazio Publikoaren sektorearen barruan *"sartzen dira unitate instituzional guztiak, merkatuaz besteko ekoizle direnak, beren ekoizpena banakak kontsumora edo kontsumo kolektibora bideratzen baita; nagusiki beste sektore batzuetakoak diren unitateek eginiko nahitaezko ordainketen bitartez finantzatzen dira, edo/eta errenta eta aberastasuna nazionala birbanatzeko eragiketak egiten dituzte"*. Garrantzitsua da nabarmentzea definizio hori ez datorrela bat administrazio publikoaren kontzeptuarekin, foru antolamendu juridikoaren arabera.

Zehazki, 2012rako, honakoak hartzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorea eragin hauetarako:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentuak eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

• Gehienez merkataritza bidezko diru-sarrerez finantzatzen ez diren zerbitzuak eskaintzen edo ondasunak produzitzen dituzten Foru Komunitatearen sozietate publikoak. Zehazki, 2012rako, hurrengo 11 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikotzat: Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP); Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas; Centro Europeo de Empresa e Innovación, SL; Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL; Gestión Ambiental de Navarra, SA; Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA; Navarra de Deporte y Ocio, SL; Navarra de Servicios y Tecnologías, SA; Sodena; Tracasa eta Start Up. 2011ko kopuru berari eutsi zaio.

2011n, halaber, ondorio horietarako, Pamplona Convención Bureau, S.L. sozietatea gehitu da (Nafarroako administrazio publikoek parte hartuta dago). 2012an, sozietate hori desegin da.

• Guztira 13 fundazio dira 2012an administrazio publikotzat jotzen diren foru erkidegoko fundazio publiko eta pribatuak, SEC'95-ren arabera, hau da, ekonomikoki haien menpekoak direnak:

a) Partaidetza publikoa duten zazpi fundazioak, aurreko atalean aipatutakoak.

b) Ekonomikoki menpekoak diren beste fundazio batzuk: Fundación para la Investigación y Desarrollo en Nanotecnologías fundazioa; Itoiz-Canal de Navarra fundazioa; Centros de Recursos Ambientales de Navarra fundazioa; Cener-Ciemat fundazioa; Amado Alonso fundazioa eta Pablo Sarasate fundazioa.

**Laburbilduz**, kontabilitate publikoaren terminoei begiratuta, foru sektore publikoaren osaera honakoan bereizten da Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean araututakotik:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoa sartzen da.
- Sozietateetan soilik sartzen dira gehienez merkataritza bidezko diru-sarrerez finantzatzen ez diren zerbitzuak eskaintzen edo ondasunak ekoizten dituzten hamaika sozietate publikoak.
- Fundazioen barruan, berez publikotzat katalogatutako zazpiez gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakundeen mendetasun ekonomikoa duten zazpi fundazioak.

### II.3. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari 2012an aplikatzekoa zaion oinarritzko araudia, funtsean, honako lege- eta erregelamendu-xedapenek osatzen dute, besteak beste:

- Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legea, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- Abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorra, Tributuei buruzkoa.
- Abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesteari buruzkoa.
- Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legea, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzkoa.
- Abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa.
- Azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, diru-laguntzei buruzkoa.
- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.
- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.
- Apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzkoa.
- 2012ko maiatzaren 17ko Erabakia, Estatuko Administrazioaren eta Foru Komunitatearen artekoa, 2012rako Nafarroako BPGaren ehuneko 1,5eko defizit-muga ezartzen duena.
- 20/2012 Errege Lege-dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoa.
- Kontseiluaren 2223/96 Erregelamendua (EE), 1996ko ekainaren 25ekoa, Europako Kontu Nazional eta Erregionalen Sistema (SEC'95) onesten duena.
- Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.
- Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.
- 1994ko maiatzaren 6ko Agindua, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena, eta apirilaren 13ko 1037/2010 Agindua, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria onetsi eta aurrekoa indargabetzen duena.
- Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legea
- Ekainaren 21eko 12/2012 Foru Legea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.
- Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahaltenaren galera dela-eta.
- Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren ekainaren 1eko 304/2012 Foru Agindua, Nafarroako 2012ko aurrekontuetatik 132 milioi euro ezin direla gastatu erabakitzen duena.

- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren azaroaren 9ko 944/2012 Foru Agindua, Fakturen Erregistroaren funtzionamendua arautzen duena.
- Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren 1978/2012 Foru Aginduak, 2012ko Nafarroako aurrekontu orokorren itxiera eta likidazioa erregulatzeko arauak onesten dituena.
- Apirilaren 17ko 16/2013 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen 130. artikulua aldatzen duena.

### III. HELBURUA

Aplikatzekoa den legediaren arabera, 2012ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorraren erregulartasuna fiskalizatu da.

Txostenak honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburua:

1. Gure iritzian, Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2012ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako Gobernuak 2012an aurrera eramandako jarduera ekonomiko-finantzarioari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

3. 2012ko abenduaren 31n, Foru Ogasunak eta foru sektore publikoak, bere osotasunean, duten egoera finantzarioa.

4. 2012ko aurrekontu-ekitaldirako finkatuta zeuden aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzea.

5. Aurreko fiskalizazio-txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioak bete izanaren jarraipena.

Txostenari egokitzat jo ditugun gomendioak gehitu dizkiogu, ezarritako barne kontroleko sistema eta sistema ekonomiko eta kontabilitatekoa hobetzeko edo/eta osatzeko.

#### IV. NORAINOKOA

Nafarroako 2012ko Kontu Orokorrak foru sektore publikoa osatzen duten enteen kontuek osatuta daude. Honakoak dira ente horiek, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen arabera:

- Nafarroako Foru Komunitateko Sektore Administratiboa edo Administrazioaren Sektorea eta haren erakunde autonomoak.
- Sektore parlamentarioa: Nafarroako Parlamentua eta gainerako parlamentu-erakundeak.
- Enpresa Publikoen Sektorea.
- Fundazioen Sektore Publikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak, funtsean, honako egoera-orriak biltzen dituzte:

- a) Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orriak, aurrekontu-emaiza eta diruzaintza-gerakina.
- b) Egoera-balantze bateratua.
- c) Emaiza kontu bateratua.
- d) Emaiza, aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako.
- e) Oroitidazkia, aurreko egoera-orrietan jasotako informazioa zabaltzen eta iruzkintzen duena.
- f) Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehaztu zituen aurrekontu-programetako emaitzen balantze bat eta kudeaketari buruzko txosten bat.

Metodologia gisa, lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz.

Zehazki, fiskalizazioa honakoan oinarritu da: aurrekontuko gastu eta diru-sarreraren eta balantzeko ondare-kontuen azterketa, bai eta prozedura administratiboen, kudeaketakoen eta barne-kontrolekoen azterketa ere, probak eginez eta lanaren inguruabarren eta helburuen arabera egokientzat jo diren teknikak erabiliz; prozedura horien barrenean, laginketaren teknika erabili da kontu-sailen kasuan, bai eta eragiketa jakin batzuen azterketa selektiboa ere.

2011ko aurrekontu- eta kontabilitate-informazioarekiko alderagarritasunean eragina izan dute, alde batetik, ekitaldi horretako gastu batzuk 2012ko aurrekontura aldatu izateak eta, bestetik, 2011ko urteko balantzea eta emaitzen kontua birformulatzea ekarri duten irizpide aldaketa hauek:

- 2012ko aurrekontuek eta haien betetzeak ez dute jasotzen zerga-onuretatik heldu diren gastuen eta diru-sarreraren egozpena. Aurreko urteekiko alderaketa-analisietan inguruabar hori hartu da kontuan; eragin horietarako aurreko ekitaldietako aurrekontuen betetzeari egotzitako onura fiskalak kendu dira, funtsean diru-sarreraren 1. eta 2. kapituluetan eta gastuen 4. eta 7. kapituluetan eragina zutenak. Halaber, 2011ko emaitzen kontua aldatu da, haren 2012koarekiko alderagarritasuna homogenea izan dadin.

- 2012an, kanpoko finantzaketaren –zor publikoa eta maileguak– eta haren interesen kontabilitate-erregistroa egiteko irizpideak aldatu dira, kontabilitate publikoari buruzko plan berrian ezarritakoari egokitzeko. Kostu amortizatuaren<sup>3</sup> irizpidea aplikatu da kostu historikoaren<sup>4</sup> irizpidearen ordean. Aldaketa

<sup>3</sup> Kostu amortizatuarena aktualizazio finantzarioko irizpide bat da, kontabilitate planean honela definitzen dena: “Finantza-pasiboa hasieran baloratu zeneko zenbatekoa, ken printzipalaren itzulketak, gehi nahiz ken –dagokionaren arabera– hasierako zenbatekoaren eta muga-eguneko itzulketa-balioaren arteko diferentziatik emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren emaitzaren kontuan egotzitako zatia, interes efektiboaren tasaren metodoa erabiliz”.

<sup>4</sup> Finantza-pasibo baten kostu historikoa da “zorria hartzearen truke jasotako kontrapartidari dagokion balioa”.

horrek, alderagarritasuna homogenea izan dadin egindakoak, 2011ko balantzea eta emaitzen kontua aldatzea ekarri du.

- 2012an, eta ibilgetuaren barruan, “Jada egiten ari den abiadura handiko trenaren Nafarroako korridorearen azpiegitura” izeneko kontua aktibatu da, azpiegitura horretan guztira egindako inbertsioa islatze aldera. 2011ko eta aurreko ekitaldietan, harren aurrekontu-gastu batzuk emaitzen kontuan erregularizatu izan dira; hori dela eta, 2011ko balantzea eta emaitzen kontua aldatu dira, alderagarriak izan daitezzen.

- Azkenik, tributu-zordunen posizio hartzekodunak xehakatu dira, eta diru-sarrerren itzulketa-rengatiko zordunak (aurrekontuetakoak) eta aplikatzeko dauden kobrantzak (aurrekontuz kanpoak) bereizi dira. Alderagarritasuna lortze aldera, 2011ko balantzea doitu da.

Aurreko aldaketak Nafarroako Gobernuaren oroitidazkian iruzkindu dira.

2012rako aurrekontu-egonkortasunaren helburuak noraino bete diren egiaztatzeko, aztertu ditugu bai Zerga eta Politika Fiskaleko Kontseiluaren erabakiak eta Nafarroako Gobernuaren eta Estatuaren arteko akordioak –bereziki, 2012ko maiatzaren 17koa–, bai Estatuako Administrazioaren Orokorren Kontu-hartzailatza Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitaterako 2012-2014 urteetarako aurrekontua berrorekatzeko plan ekonomiko finantzarioaren informazioa.

Halaber, aintzat hartu dira Nafarroako Gobernu Kontu-hartzailatza Orokorrek eginiko txostenak, bai kontu-hartzailatza ikuspuntutik, bai kontrol finantzarioaren ikuspuntutik.

Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako sektoreetarako, honakoak hartu dira kontuan:

- Nafarroako Parlamentuaren 2012ko kontu orokorrak, Nafarroako Arartekoarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak Kontuen Ganbera honek aztertu ditu.

- Kontuen Ganberaren beraren 2012ko kontu orokorrak auditoriako enpresa batek aztertu ditu.

- Sozietate eta fundazio publikoen urteko kontuen auditoria kanpoko profesional batzuek egin dute.

Txostenen aipatutako multzotik haien iritzi profesionala eta ondorio nagusiak atera ditugu.

Halaber, kontuan hartu dira Kontuen Ganbera honek egindako hurrengo txostenak –horietako batzuk 2012ko denbora-esparruarekin guztiz bat ez datozen arren, agerian jarri dituzte gure lanean kontuan hartzekoak diren oinarriko prozedura-alderdi batzuk–:

- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 43. artikulutik 50. artikulura bitartekoen eta haien bat datozen artikuluen babesean egindako aurrekontu-aldaketen legezkotasunari buruzko txostenak.

- Foru Komunitateko Administrazioaren finantzak, 2012ko ekainaren 30ean.

- Nafarroako Gobernuaren “Audenasaren merkataritza-politika” (2003-2012 urteak) kontu-saila.

- Mendetasunaren arloko egoitza-baliabideen gaineko fiskalizazioa (2008-2012).

- Mendetasunari buruzko legedia Foru Komunitatean aplikatzeari buruzko fiskalizazioa (2011-2012).

- “Nafarroa Beken” kudeaketaren eta ematearen gaineko fiskalizazioa (2009-2012).

- Sozietate publikoen esku utzitako mandatuak (2011).

- Iruzur Fiskalaren Aurka Borrokatzeko Plana (2008-2012), Nafarroako Zerga Ogasunarena.

- “Moderna Planaren” gaineko fiskalizazioa (2008-2012).

Azkenik, aipatu beharra dago Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 130. artikulua aldatzen duen apirilaren 17ko 16/2013 Foru Legearen bitartez, urte bakoitzeko uztailearen 1era aurreratu dela Nafarroako Gobernuak Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua aurkezteko data. Lege hori 2012ko Kontu Orokorretan aplikatu da lehenengo aldiz.

## V. IRITZIA

Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak auditatu ditugu. Honakoak jasotzen dituzte, funtsean: 2012ko aurrekontuaren betetzearen egoera orria, 2012ko abenduaren 31ko diruzaintza-gerakina, 2012ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzen kontua eta oroitidazkia. Kontabilitatearen egoera-orri horiek laburbilduta jaso ditugu txosten honen VI. eranskinean.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da Kontu Orokorrak egiteko ardua duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Nafarroako Gobernuaren aurrekontulikidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat.

Erregularutasuna dela-eta eginiko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia erartortzen da:

### V.1. 2012ko KONTU OROKORRAK

- Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik "Ibilgetze materialen" kontabilitate-saldoaren arrazoikotasunari buruz –saldo hori 2.076,87 milioi eurokoa zen 2012ko abenduaren 31n–, zeren eta hark ez baititu biltzen Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jabetzakoak diren ondasun guztiak eta ez baitago babestuta egoki baloratutako ondasunen eta eskubideen inbentario orokor batean.

- Balantzean ez dira erregistratu Administrazioaren langile funtzionario jardunekoak eta pasiboen montepioek sortutako betebeharrak aktuarialak. Hala eta guztiz ere, komeni da zehaztea 1992tik langile aktibo berriak ez direla sistema horretan afiliatzen.

Arestian aipatutako salbuespenak alde batera utzita, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2012ko ekitaldiko Kontu Orokorrak, alderdi behinenean, leialki irudikatzen dituzte gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioa, 2012ko abenduaren 31ko ondare-egoera eta eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

Fiskalizazioa dela-eta daukagun iritzian eraginik ez badu ere, adierazi behar dugu 2012an 2010eko kontabilitate publikoko plan orokor berriaren kontabilitate-irizpideak aplikatu direla soilik zorra eta haren interesen kontabilitate-erregistroa egiteko, eta horrek, aurkeztutako informazioa hobetzen badu ere, tratamendu berezitu bat eragiten duela gainerako arloekin alderatuta, zeren eta azken horiek oraindik ere 1994ko kontabilitate publikoko plan orokorraren irizpideekin arautzen baitira.



## V.2. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen jardura finantzarioa 2012an, oro har, legezketasun printzipioaren arabera izan da.

## V.3. 2012ko ABENDUAREN 31ko EKONOMIA- ETA FINANTZA-EGOERA

2012ko aurrekontu orokorrak onetsi zirenean, kredituen hasierako zuzkidura, gastu eta diru-sarreretakoa, 3.837,72 milioi eurokoa izan zen.

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko 1,5eko igoera izan dute -56,17 milioi euro- aldaketan bitartez, eta kreditu bateratuak 3.893,89 milioioak izatera iritsi da. Honakoa da aldaketa horien tipologia:

Aldaketak	Kopurua
Kreditu gehikuntzak	44.989.287
Diru-sarreraren bidez sortutako kredituak	5.035.643
Kredituak sartzea	6.147.550
<b>Guztira</b>	<b>56.172.480</b>

Honakoak dira aldaketa horien xehetasunak, gastu-kapituluaren eta departamentuaren arabera adieraziak:

Gastu-kapitulua	Kopurua	Departamentua	Kopurua
Langileak	-6.067.333	Lehendakaritza	14.688.878
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	62.801.396	Ekonomia eta Ogasuna	17.508.132
Finantza-gastuak	20.103.361	Hezkuntza	-7.225.613
Transferentzia arruntak	1.320.228	Osasuna	59.077.231
Inbertsio errealak	-57.022.817	Sustapena eta Etxebizitza	-28.377.902
Kapital transferentziak	30.695.876	Landa Garapena, Industria eta Enplegua	927.246
Finantza-aktiboak	641.769	Gizarte Politika	-475.070
Finantza-pasiboak	3.700.000	Kultura eta Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	49.578
<b>Guztira</b>	<b>56.172.480</b>	<b>Guztira</b>	<b>56.172.480</b>

Aurrekoetz gainera, guztira 142,27 milioi euro egiten duten kreditu-transferentziak egin dira; haien izaera dela eta, aldaketa horiek ez dituzte aurrekontuko kreditu bateratuak aldarazten.


Aitortutako betebeharrak 3.625,44 milioi euro egin dute, eta betetze-maila % 93koa izan da. Kapitulu guztiak gainditzen dute portzentaje hori, salbu eta inbertsioek -ehuneko 63- eta kapitaleko transferentziek -ehuneko 83-. Kontuan hartu beharra dago ezen, Ganbera honek 2011ko kontuei buruz egindako txostenaren arabera, 2012ko ekitaldira aldatu zirela aurreko urtean sortutako gastu batzuk, gutxi gorabehera 55 milioi egiten dutenak.

Aitortutako eskubide garbiek 3.624,93 milioi euro egiten dute guztira, eta betetze-maila ehuneko 93 da. Honakoak dira betetze handiena izan duten kapituluak: kapital-transferentziak -ehuneko 130-, ondarezkoak -ehuneko 129- eta tasak -ehuneko 114-; eta honakoak, aldiz, betetze txikiena izan dutenak: inbertsio errealen besterentzea -ehuneko 43- eta transferentzia arruntak -ehuneko 71-.

2012ko betetzeari buruz honakoa esan behar dugu:


- 2012an guztizko gastuaren finantzaketa honela egin da: ehuneko 86 diru-sarrera berekiekin; ehuneko 2 jasotako transferentzien bidez, eta ehuneko 12 zorpetzearen bitartez.

Datuak, milioitan adieraziak, honela azal daitezke irudi bidez:




• Honako irudiotan ematen dugu aurrekontuko gastuen eta diru-sarreren guztizko xehakapena:

2012ko GASTUEN XEHAKAPENA



2012ko diru-sarreren xehakapena



- Nafarroako Gobernuak 2012an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	2012ko zenbatekoa	Finantzaketa-iturria	2012ko zenbatekoa
Langileak	30	Tributu bidezko diru-sarrerak	85
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	2
Transferentzien ondoriozko gastuak	45	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste batzuk	1
Inbertsio errealak	4	Zorpetzea	12
Finantza-zama	5		
Finantza-aktiboak	1		
	100		100

- Gastuaren xedeari edo funtzioari erreparatuta, hurrengo taulan islatzen dira 2012ko bai biztanle bakoitzeko gastua, bai 100 euro bakoitzeko aplikazioa.

2012ko eginkizuna	Biztanleko gastua	100 euro bakoitza
Osasuna	1.456	26
Hezkuntza	855	15
Estatuko zama orokorre eustea	808	14
Gizarte Politika	619	11
Toki entitateen jardura kofinantzatzea	358	6
Beste oinarrizko zerbitzu batzuk	338	6
Zor publikoa	309	5
Azpiegiturak	271	5
Industria, energia eta ikerketa	166	3
Nekazaritza	156	3
Etxebizitza	149	3
Gainerako xedeak	140	3
Biztanle bakoitzeko gastua, guztira	5.625	100

Hau da, gastuaren ehuneko 73 honakoetan aplikatu da: osasuna, entitate publikoei eginiko transferentziak, hezkuntza eta gizarte politika.

2012ko biztanle bakoitzeko gastuak ehuneko 1,3 egin du behera 2011rekin alderatuta; hau da, 72 euro txikiagoa da.

Ondoren, 2012ko finantza-egoerari buruzko adierazle batzuk –eta haien 2011rekiko alderaketa– ematen ditugu, bai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, bai haren enpresen eta fundazioen sektore publikoari dagokionez ere.

### V.3.1. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen adierazleak.

Hurrengo taulan, 2011n eta 2012an adierazleen multzo batek izandako bilakaera erakusten dugu. Hona azpimarratzen duguna:

Adierazlea	2011 <sup>(1)</sup>	2012	(euroak, milioitan)
			Aldaketaren ehuneko
Gastua, guztira	3.657,6	3.625,4	-1
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	3.126,2	3.112,9	0
Funtzionamendu-gastuak (1,2 eta 4. kapituluak)	3.068,6	3.019,9	-2
Inbertsio errealen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	417,1	383,9	-8
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9. kapituluak)	114,3	128,7	13
Diru-sarrerak, guztira	3.727,9	3.624,9	-3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.195,3	3.152,8	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3. kapitulura)	3.116,1	3.081,7	-1
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehuneko)	100	99	-
Tributuen diru-bilketa likidoa	3.142,5	2.978,6	-5
Tributuen diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat	16,8	16,4	-
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	25,5	30,5	20
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	507,1	441,6	-13
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-322,5	-313,4	-3
Aurrekontu-emaizta doitua	65,9	-3,3	-105
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-174,9	-239,7	37
Aurrezki gordina	126,7	132,9	5
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	148,8	200,3	35
Aurrezki garbia	-22,1	-67,4	-305
Zorpetze-mailaren ehuneko	4,66	6,35	-
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezkia)	(301)	(385)	28
Etorkizuneko ekitaldiarako hitzartutako gastuak	2.834,6	3.122,3	10
Eratutako abalak (saldo bizia)	65,5	163,1	249
Nafarroako Gobernuaren zorra (2)	1.915	2.231	16
Zorrek diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehuneko	59,94	70,76	-
Zorra/Aurrezki garbia	15,12	16,79	-

(1) 2011ko aurrekontu-datuak, onura fiskaletatik heldutako gastuak eta diru-sarrerak kenduta.

(2) Amortizatutako kostua

- 2012an, gastuek ehuneko bat egin dute behera 2011rekin alderatuta. Haien izaerari erreparatuta, portaera askotarikoa izan da; esate baterako, gastu arruntak maila berean mantendu dira ia, nahiz eta haien barruan gastu finantzarioek ehuneko 61 egin duten gora eta langile-gastuek ehuneko zazpi egin duten behera. Kapital gastuak dira gutxitze handiena izan dutena, ehuneko 8koa; nabarmentzekoa da inbertsio errealak ehuneko 26 gutxitu direla. Zama finantzarioak –interesak gehi zorraren amortizazioa– ehuneko 35 egin du gora.

- Era berean, 2012ko diru-sarrerak ehuneko hiru egin dute behera, 2011koekin alderatuta. Zergek batere aldaketarik ez dute izan, zuzeneko zergek ehuneko 8 gora egin dutelako eta zeharkako zergek, berriz, ehuneko berdinean egin dutelako behera. Gutxitze handienak tasa eta prezio publikoetan ikus daitezke –ehuneko 10 gutxiagorekin–, bai eta transferentzia arruntetan ere –ehuneko 24 txikiagoak izan dira–; igoera gisa, adierazi behar dugu kapital-transferentziek ehuneko 15 egin dutela gora. Nabarmentzen dugu 2012an 419 milioi euroko finantza-pasiboak hartu zirela; 2011n, aldiz, 483 milioi hartu ziren, ehuneko 13 gehiago beraz.

Bi ekitaldietan, tributu bidezko diru-sarrerak aukera ematen dute soilik Administrazioaren gastu arruntaren bolumena finantzatzeko.


Tributuen diru-bilketa likidoak<sup>5</sup> ehuneko bost egin du behera, eta Nafarroako BPGaren ehuneko 16,4 izatera iritsi da.

Nabarmendu behar dugu, halaber, 2012ko apiriletik metodo berria aplikatzen ari dela BEZaren Estatua-  
rekiko doikuntza kalkulatzeko.

- Aurrekontu saldo ez-finantzarioa oraindik ere 313,4 milioi negatiboa da, baina hobera egin du 2011ko zenbatekoari erreparatzen bazaio –hura ere 322,5 euro negatiboa izan zen–.

- 2012ko gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina negatiboa da –239,75 milioi negatiboa–, 2011n baino ehuneko 37 gehiago hain zuzen. Magnitude horrek 2008tik 2012ra izan duen bilakera hurrengo taula eta irudietan adierazi dugu (euroak, milakotan):

	2008	2009	2010	2011	2012
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	100.504	-147.161	-126.369	-174.939	-239.750



Hau da, krisia hasi zenetik, magnitude hori negatiboa da. Horrek erakusten ditu, batetik, diruzaintzaren defizit erreala eta, bestetik, etorkizuneko ekitaldietan gastuak finantzatzeko ezintasuna.

2012an zehar, Gobernuak epe laburreko diruzaintzako kredituetan 100,9 milioi behar izan ditu, bere finantzaketa-beharrak estaltzeko, bereziki urteko lehenengo seihilekoan. 2011n, epe laburreko finantzaketa behar horiek 316,5 milioioak izan ziren.

- Aurrezki gordinak<sup>6</sup> ehuneko bost gora egin badu ere, 132,9 milioiko kopurura iritsi arte, zenbateko hori ez da nahikoa zorpetzearen zama finantzarioari aurre egiteko eta 67,4 milioiko aurrezki garbi<sup>7</sup> negatiboa sortu da. Aurrezki garbi horrek hirukoiztu egin du bere balio negatiboa, 2011rekin alderatuz gero.

- 2012an, Foru Ogasunak diru-sarrera arrunten ehuneko 6,35eko zorpetze-maila zeukan. 2011rekin alderatuta, ehuneko 36 egin du gora.

- Ekitaldiko emaitzak. Ekitaldiko emaitzak bere balio negatiboa (desaurrezkoa) ehuneko 28 areagotu du. 2012an, 385,4 milioiko balioa du. Horri dagokionez, esan beharra dago Nafarroako

<sup>5</sup> Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira arialdiko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako ko-brantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

<sup>6</sup> Aurrezki gordina: diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulara) ken funtzionamendu gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)

<sup>7</sup> Aurrezki garbia: Aurrezki gordina ken finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak)

Gobernuaren egoera-balantzearen funts berekiek ehuneko 42 egin dutela behera: 2012ko abenduaren 31n, 246 milioioak dira.

- Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak: "Erabileraren" kontabilitate fasean, etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuek<sup>8</sup> 3.122 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 83 zorraren zama finantzarioari dagozkio; biztanle bakoitzeko 4.844 euro egiten dute guztira. 2011ko datuekin alderatuta, etorkizuneko gastu horiek ehuneko hamar egin dute gora, funtsean finantza-zama handitu delako.

Ondoren, kapituluaren eta urtearen araberrako xehetasunak ematen ditugu (euroak, milakotan).

Kapitulua	2013	2014	2015	Gainerakoa	Guztira	Ehunekoa, guztizkoaren gain
Langileak	86	16	0	0	102	-
Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	110.445	15.688	7.827	6.537	140.497	5
Gastu finantzarioak	89.196	81.632	67.779	143.188	381.794	12
Transferentzia arruntak	23.801	3.287	957	519	28.565	1
Inbertsio errealak	79.144	44.182	25.629	5.757	154.712	5
Kapital-transferentziak	101.618	61.977	30.105	2.314	196.013	6
Finantza-pasiboak	193.211	296.532	307.228	1.423.681	2.220.652	71
<b>Guztira</b>	<b>597.500</b>	<b>503.315</b>	<b>439.525</b>	<b>1.581.996</b>	<b>3.122.336</b>	<b>100</b>
Ehunekoa/urtea	19	16	14	51	100	

- Gobernuak eraturako abalen saldo bizia 97,61 milioi handitu da. 2012an 163,13 milioioa izatera iritsi da. Hona horren xehakapena (euroak, milakotan):

Eratutako abalak	31/12/2011	31/12/2012
I+G	1.582	692
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	10.764	13.204
Nafarroa abala (SONAGAR azpi-abalak)	5.702	5.377
NDO Los Arcosko zirkuitua (1)	33.654	30.962
C.A. Osasuna	10.818	9.613
Sodena	-	103.287
<b>Guztira</b>	<b>65.520</b>	<b>163.135</b>

Abal horren saldoa 24 milioioa da Nafarroako Gobernuaren 2011ko kontuen oroitidazkian. Aldea finantza-entitatearen komunikazio-akats batetik heldu da. 2012an zuzendu da akats hori.

Sodenarentzako abala eratzen da sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, 250 milioioa –100 milioi 2012an kobratu zituen eta 150 milioi 2013rako aurreikusi ziren, nahiz eta azkenean ez diren gauzatu–, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua.

“NDO. Circuito de los Arcos” enpresa publikoari emandako abalaren jatorria 2009an dago, Circuito Los Arcos SL sozietate publiko azkenduak –gaur egun NDO barrenean dago– jasotako mailegu batean; hasierako kopurua 35 milioioa zen eta 2024ko maiatzean zuen muga-eguna. C.A. Osasunari emandako abala 2003ko Foru Legearen bitartez eman zitzaion.

2012an, Nafarroako Gobernuak 1,48 milioi egiten duten ordainketa batzuk egin ditu enpresa pribatuei eginiko maileguen ondorioz finkatutako betebeharrak ez betetzeagatik; 2011n, 2,3 milioi izan ziren.

<sup>8</sup> Ez ditu jasotzen, ez Funtzionarioen Montepioko betebeharrak aktuarialetik, ez itzaleko bidesarrietatik heldutako gastuak.

Aurreko abalez gainera, Nafarroako Gobernuak arrisku batzuk hartu ditu bi enpresa publikoren gaineko "comfort letter" delako figuraren edo babesletza-gutunaren<sup>9</sup> bitartez –Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean jasota ez dagoen figura bat da hori–. Enpresa horien saldo bizia, 2012ko abenduaren 31n, 203 milioikoa da, honako xehetasunen arabera (euroak, milioitan):

Babesletza gutunak	Emateko data	Muga-eguna	Bermatutako modalitatea	Kopurua
Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria	2009ko uztaila	2014ko uztaila	Zazpi mailegu	52.999
Sodena	2012ko maiatza	2013ko maiatza	Bost kreditu poliza, pignorazio-bermea dutenak	150.000
<b>Guztira</b>				<b>202.999</b>

Gaur arte, babesletza-gutun horiek ez dute berarekin ekarri Nafarroako Gobernuak baliabide publikoak aplikatu behar izatea.

- Nafarroako Gobernuaren 2012ko abenduaren 31ko zorra 2.231 milioi eurokoa da; aurreko urtean baino ehuneko 16 handiagoa, beraz. Haren ehuneko 4 epe laburrean du muga-eguna. Diru-sarrerara arruntan aldean, ehuneko 71 da; aurreko ekitaldian baino ehuneko 11 puntu handiagoa. Gobernuak 2012an sortutako aurrezki gordinarekin, ia 17 urte beharko lirateke zor hori amortizatzen; 2011n, 15 urtekoa zen aldi hori.

### V.3.2. Enpresen Sektore Publikoa

Soilik publiko gisa sailkatutako enpresak hartuta, 2012an honako zifra metatuak dauzka, aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta (euroak milakotan, salbu eta zenbaki bidez aipatutakoetan).

Adierazlea	2011	2012
<b>Enpresa publikoen kopurua</b>	<b>22</b>	<b>21</b>
Ondare garbia	854.817	852.131
Epe luzerako zorra (metatua)	325.223	340.736
Finantza-entitateekin epe laburrera hartutako zorra	162.470	165.084
Negozio-zifraren zenbateko garbia	303.504	196.639
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	22.569	16.089
Langile-gastuak	63.445	58.036
Ekitaldiko emaitza (metatua)	(56.815)	(115.833)
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak	319.663	244.667
Enplegatutako kopuruaren batez bestekoa	1.448	1.330

- Kopuruak behera egin du 2012an, Tuckland Footwear sozietate desagitearen ondorioz.
- Epe luzeko zorra 340 milioikoa zen 2012an, aurreko ekitaldian baino ehuneko 5 handiagoa; zor horretatik, ehuneko 69 finantza-entitateekin hartutako zorra da –235 milioi inguru–. Nabarmenezkoa da Sodenan –100 milioi<sup>10</sup>– eta –Nasuvinsan –40 milioi<sup>11</sup>– izandako igoera; eta na-

<sup>9</sup> Tresna finantzario bat da, enpresa-taldeetan erabili ohi dena. Haren bitartez, sozietate matrizeak edo partaidetzaren gehiengo duen bazkideak –hau da, Nafarroako Gobernuak– sozietate filialei kreditu-entitateen aurrean laguntza finantzarioa emateko konpromisoa hartzen du –eta kasua bada, kasuko betebeharrak finantzarioak bere gain hartzen ditu–, lehendik dagoen edo egiteko dagoen kontratu batengatik –oro har, kreditu edo mailegu bat da–. Finantzen merkatuan exijitu ohi diren bermeen (aktiboak, prenda, abalak...) elementu osagarri bat da.

<sup>10</sup> Moderna Planeko proiektuak finantzatzera bideratuak.

<sup>11</sup> Funtsean, Nafarroako Gobernuari eta beste sozietate publiko batzuei aktiboak erostetik heldu dira.

barmena da, ordea, NEPKn zorpetzean izandako gutxitzea –105 milioi–, zenbateko hori egiten duen mailegu bat, bere garaian Nafarroako Gobernuak kostu bidez emandakoa, kapitalizatzearen ondoriozkoa. Burizko azpitaldeak epe luzeko 20,6 milioiko zorpetzea dauka.

- Azpitalde horren epe laburreko zorpetzeak, finantza entitateekikoak, ehuneko bi egin du gora; hau da, 2,6 milioi. Zor horren ehuneko 80 baino gehiago Sodena enpresan kontzentratuta dago.

- Negozio zifra orokor horren zenbateko garbiak ehuneko 35 egin du behera –107 milioi–; horietatik, 79 milioi Nasuvinsari eta 10 milioi INTIARI dagozkie.

- Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzek ere behera egin dute 2012an, ehuneko 29 behera hain zuzen –6,5 milioi gutxiago, beraz–.

- Langile gastuek ehuneko zortzi egin dute behera; hau da, 5,4 milioi gutxiago daude.

- 2012ko emaitza negatiboa bi halako da orain, eta 116 milioikoa izatera iritsi da. Galera handienak Sodenan ikus daitezke –61 milioi–, bai eta NEKPN ere –36 milioi–; galera horiek heldu dira, funtsean, enpresen partaidetzen balioespenari buruz eta emandako mailegu eta bermeei buruz egindako zuzenketetatik. Onura handienak Nasuvinsa sozietateak lortzen ditu; hiru milioi, hain zuzen.

- Enpresek hirugarrenei emandako abalen bolumenak ehuneko 23 egin du behera, eta 2012an 245 milioikoa izatera iritsi da.

- Langileen batez besteko kopuruak 118 pertsonatan egin du behera; bereziki garrantzitsua da hori Burnizko azpitaldean –37 pertsona– Gestión Ambiental de Navarra San –34 pertsona– eta CEINen –18 pertsona–. Tracasak izan du enplegatu-kopuruan igoerarik handiena, zazpi gehiago baitaizka. Hiru sozietate publiko badaude langilerik ez dutenak.

### V.3.3. Fundazioen Sektore Publikoa

Honako datuak eskaintzen ditu sektore horrek 2012an, 2011ko datuekin alderatuta (euroak, milakotan; salbu eta zenbaki bidez aipatutako kasuetan):

Adierazlea	2011	2012
<b>Fundazio publikoen kopurua</b>	<b>7</b>	<b>7</b>
Ondare garbia	4.102	4.515
Epe luzerako zorra	0	0
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	9.443	6.664
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	5.688	3.032
Langile-gastuak	1.916	1.985
Ekitaldiko emaitza (metatua)	(177)	527
Enplegatu kopurua	55	54

Nabarmentzekoa da, halaber, enpresen sektore publikoan Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntzek behera egin dutela, ehuneko 47 gutxiago baitira –hau da, 2,6 milioi– eta jardueratik heldutako diru-sarrerak ere urritu direla –ehuneko 29–.

Halaber, emaitzen hobekuntza aipatzen da; izan ere, 0,17 milioiko saldo negatiboa izatetik 0,52 milioiko saldo positiboa izatera pasa da.

**Azken batez**, Nafarroako Gobernuaren finantza-egoeraren ezaugarria da kanpoko finantzaketara jo behar duela bere baliabide arruntek pixkanaka behera etortzen ari direlako; pixkanaka behera etortze hori heldu da zerga bidezko diru-sarrerak eta haien diru-bilketak behera egin izatetik gastu arruntak baino proportzio handiagoan, nahiz eta langile-gastuetan doikuntza handia aplikatu den. Zorpetze handiago hori eragiten ari da hartatik heldutako finantza-zama finantzatzera bideratutako baliabideak pixkanaka handitzen joatea. Egoera honek eragin berezia dauka inbertsioak egiteko gaitasunean; izan ere, gaitasun hori pixkanaka behera joan da azken urteetan.



Halaber, krisi ekonomikoaren hasieratik bezala, antzematen da diruzaintzan tentsio batzuk badaudela. Haiei, izan ere, epe laburreko kanpo-baliabideekin eman behar zaie estaldura.

Azpmarratzen dugu oparotasun ekonomikoko garaietan diseinatutako eta hasitako inbertsio handien gauzatzea eragin nabarmena izaten ari dela aurrekontuen betetzean; ez dira ahaztu behar, ezta ere, haiek funtzionamenduan jartzeak edo/eta mantentzeak etorkizunerako ekarriko dituzten gastuak. Testuinguru horretan daude, era berean, Nafarroako Gobernuak, Estatuarekin koordinatuta, eginiko inbertsio jarduketak batzuk, dela Estatuaren zatiaren exekuzioa atzeratu delako, dela haien diseinua birplanteatu delako.

Bestalde, enpresen sektore publikoak bere galeren zenbatekoa handitzen jarraitzen du, negoziozifra gutxitu du eta haren langile-gastuek behera egin dute.

Fiskalizazioari buruzko iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen ziurgabetasuna, ziurgabetasun horrek kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak. Testuinguru honetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan zorrotz jokatzeko eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

Ganbera honek bere azken txostenetan behin eta berriz adierazi duen moduan, Nafarroako aurrekontuak egungo egoerara egokitzeak exijitzen du bai gastuen eta diru-sarreraren politikak eta erdie-tsi nahi diren helburuak, bai antolamendua bera sistematikoki eta modu jarraituan berrikustea, identifikatze aldera zein diren lehentasunezko arloak edo/eta zeinen kudeaketa hobetu daitekeen; horrekin, izan ere, saihestuko dira gastu publikoak murrizteko edo doitzeko jarduera indiskriminatuak. Bestalde, ahalegina egin behar da gastu produktiboko kontusailei lehentasuna ematen, diru-laguntzen politika orokorra kritikoki berraztertzen eta indarreko zerga-sistema sakontasunez aztertzen. Halaber, 2015ean pentsatuz, komenigarria litzateke azterlan bat egitea Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren egokitasunari buruz, hartan ezarritako prozedurari jarraituta. Hori guztia zuzendu behar da aurrekontu-egonkortasuneko arauak betetzearen eta Nafarroako ekonomiaren eta enpleguaren hazkunde jasangarriaren arteko harmonizazio ahal den handiena lortzera.

#### V.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN HELBURUAK BETETZEA.

Nafarroako Administrazio Publikoaren mugaketatik edo Kontabilitate Nazionalaren terminoetan (SEC'95) adierazitako zerga-finkapeneko perimetrotik abiatuta –ikus txosten honetako II.2 atala–, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko akordioek honakoak finkatzen zituzten aurrekontu-egonkortasuneko helburu gisa 2012an:

- Finantzaketa-beharrek ez dute gaindituko barne produktu gordinaren (BPG) ehuneko 1,5a<sup>12</sup>.
- Abenduaren 31n, zorpetzeko gehieneko gaitasuna 2.733 milioikoa da; hau da, BPGaren ehuneko 14,77. Bestalde, 2012-2014 urteetarako Nafarroa berrorekatzeko plan ekonomiko-finantzarioari jarraituz, Nafarroako Gobernuaren gehieneko zorpetze bolumena 3.187 milioikoa izanen litzateke 2012ko abenduaren 31n; zenbateko horri gehitu beharko litzazkioke, kasua bada, AHTa finantzatzera bideratutako zorpetzea, 134 milioikoa.

Honakoak dira SEC,95aren ondorioetarako Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektoreak hartzen dituen enteak: Foru Komunitatearen Administrazioa eta haren erakunde autonomoak, Parlamentua eta haren menpeko enteak, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, nagusiki merkatuko diru-sarreraren bidez finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen edo ondasunak sortzen dituzten 11 sozietate publikoak eta Administrazioaren menpetasun ekonomikoa daukaten 13 fundazio publiko eta pribatuak.

Estatuaren Kontu-hartzailtza Orokorra da administrazio publikoen sektoreko kontu ekonomikoak egiteko organo eskuduna, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak neurtzen du aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen ote den.

---

<sup>12</sup> Hasiera batean, portzentaje hori BPGaren ehuneko 1,3 zen.

Zehaztu beharra dago ezen bai finantzaketa-beharrek, bai zorraren bolumenak, kontabilitate nazionalen terminoetan, Foru Komunitatearen BPGaren magnitude ekonomikoaren erreferentzia dutela; egungo abagune ekonomikoan, magnitude horren estimazioak oso aldakorak dira, eta horrek eragin oso garrantzitsua dauka finantzaketa-beharren kuantifikazioan –eta, horrenbestez, aplikatu beharreko murrizketetan–, bai eta zor publikoaren bolumena finkatzerakoan ere. Bestalde, ikusi ohi da Europako agintariak kontabilitate nazionalen irizpideen interpretazioetan aldaketak egiten dituztela, eta horrek eragin nabarmena dauka defizita edo finantzaketa-beharrek finkatzeko garaian.

#### V.4.1. Finantzaketa-beharrak

“Defizit (superabit) publikoa” da Administrazio Publikoaren Sektoreak daukan finantzatze-beharrak (ahalmena). Hau da, diru-sarreraren eta gastu ez-finantzarioen arteko alderaketak erakutsiko digu, positibo bada, finantzatzeko ahalmena bada (superabita) inbertsioak edo bestelako gastuak finantzatzeko; hala ez bada, finantzaketa behar batzuk badaude (defizita) gastu horiek egin ahal izateko zorpetzera jo behar izatea inplikatzeko dutenak. Hori guztia kontabilitate nazionalen irizpideen interpretazioetan aplikatuta. Horrek, izan ere, exijituko du doikuntza batzuk egitea aurrekontu-informazioan.

2012rako, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak finantzatzeko daukan beharrak<sup>13</sup> ondorengo taulan adierazitakoak dira:

	(euroak, milioitan)
<b>Finantzaketa-beharrak</b>	<b>2012</b>
<b>I. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa</b> (diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura, ken gastuen kapituluko 1. kapitulutik 7. kapitulura)	<b>- 317,2</b>
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	- 313,4
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena	0,2
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena	-4
<b>II. Aurrekontuko saldoan eginiko doitzeak</b>	<b>4,9</b>
Europako funtsetako transferentziak	- 3,1
Diru-bilketa ez-segurua	- 4,6
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	27
Inbertsioak elkarte publiko-pribatuen bidez	5,9
Sortutako interesak, muga-egunera iritsi gabeak	- 9,9
ADIFen obren aurrerakinak (AHTa)	17,1
Abalen exekuzioa	- 1,5
Higiezinak besterentzeko eragiketak	20,2
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	- 46,2
<b>III. Elkarte publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)</b>	<b>0,8</b>
<b>IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharrak (letik IIIra)</b>	<b>- 311,5</b>
<b>BPG erregionalaren gaineko finantzaketa-beharren ehunekoa (*)</b>	<b>- 1,72</b>
<b>Ezarrিতako helburua, BPG erregionalaren gaineko ehunekoa adierazia</b>	<b>-1,50</b>
Helburuaren gainean, beharra gehiegizkoa izatea	39,6

(\*) 2012ko BPGa 18.126 milioikoa dela jo da (Estatuko Estadistika Institutuaren arabera)

Ekitaldiko aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren eta aurrekontu-egonkortasunaren eraginetarako emaitzaren arteko aldea (edo finantzaketa-beharrak) azaltzeko, aurrekontu-kontabilitateko irizpideen eta aurrekontu-egonkortasuna kalkulatzeko aplikatzekoak diren SEC-95 kontabilitate-irizpideen arteko dibergentzien bidez azaltzen da. Alde aipagarrienak honakoetatik heldu dira, funtsean:

<sup>13</sup> Behin-behineko informazioa da, Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak behin betiko berretsi beharrekoa.

- Diru-bilketa ez-segurua Tributuen tratamendurako, eta kontuan izanda kontabilitate nazionalako terminoetan kuxaren irizpidea aplikatzen dela sortzapenaren aurrekontu-irizpidearen gainean, doikuntza bat egiten da aurrekontuan sortutako zenbatekoa eta egiaz ekitaldi korrontean eta itxitako ekitaldietan bildutakoa alderatu ondoren. 2012an, doikuntza hori 4,6 milioi euro negatiboa izan da; hau da, zergengatik aitortutako eskubideak zenbateko horretan handiagoak dira ekitaldian bertan egiazki bildutako diru-sarrerengatik aurreko ekitaldietan bildutakoen batura baino.

- Aurrekontuari aplikatzekoak zaizkion eragiketak, hau da ekitaldiko aurrekontuari egotzi ez zaion 2012ko gastu efektiboa, krediturik ez izateagatik nahiz beste inguruabar batzuegatik. Ekitaldi honetan, 2011ko gastuaren geroratzearen eta hari dagokion urte horretako kalkuluen doikuntza negatiboaren emaitza gisa, 27 milioiko doikuntza positiboa gertatu da; hau da ekitaldi honetarako defizit txikiagoa dago (ikus VII.4 atala).

- Itzaleko bidesariaren formularen bidez finantzaturako azpiegiturak. 2012an, ez da gisa horretako inbertsiorik egin, ez Pirinioetako autobian –zeina amaitu baita– ez Nafarroako Ubidearen ureztalurren berrietan. Izan ere, aurrekontu-kontabilitatean ordaindutako kanona baizik ez da erregistratu. Kontabilitate nazionalan, ordea, balio positiboa duten doikuntzak egin dira (defizit txikiagoa), zeren eta amortizazioa egindako obrei buruzko irizpide finantzarioekin egin baita; hartara, autobiarako doikuntza 3 milioikoa da, eta ureztalurretarakoa 2,9 milioikoa.

- Sortutako interesak, muga-egunera iritsi gabeak: minus 9,9 milioiko doikuntza ageri da, aurrekontuan aitortutako interesen eta ekitaldian finantzarioki sortutako interes implizitu eta esplizituen arteko aldearen ondoriozkoa.

- AHTa. 17,1 milioiko doikuntza positibo bat jaso da, Nafarroako Gobernuak 2012an zehar eginiko AHTko obrei dagokiena. Estatuarekiko hitzarmenaren arabera, obra horiek ez dira kontuan hartzen finantzaketa-beharrak kalkulatzeko ondorioetarako.

- Higiezinak besterentzeko eragiketak. Doikuntza hau dagokio Nafarroako Gobernuak NAsUVINSA sozietate publikoari –bateratze-perimetrotik kanpo dagoen enpresa– 20,6 milioi euroko guztizko zenbatekoa egiten duten eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta lursailak saldu izateari. Salmenta 2012ko abenduan egin zen. Enpresak, une horretan, 0,4 milioi ordaindu zituen; gainerakoa geroratze baten bidez ordaindu zen. Ordaintzeko sistema edo formula dela eta, Gobernuaren 2012ko aurrekontu-kontabilitateak soilik 0,4 milioiko diru-sarrera hori islatzen du; kontabilitate nazionalaren eraginetarako, ordea, salmentaren guztizko kopurua sortzen da jabetza-aldaketa gertatzen den unean; hori dela eta, kobratzeko dagoen kopuruaren –20,2 milioi–doikuntza egiten da. (ikus VII.13 atala)

- Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik. Europar Batasunarenak izan eta Espainiako Gobernuari 2012ko defizita finkatzeko berretsi zaizkion irizpideen arabera –2013ko martxoko erabakia da–, zergen itzulketen sortzapena subjektu pasiboak<sup>14</sup> eskatzen duen zenbatekoarena eta eskatzen dituen unekoa izan da; ekitaldiaren amaieran, ordaintzeke dauden itzulketen zenbatekoa kalkulatu beharko da. Irizpide hori aurrekontu-kontabilitateaz aplikatzen denaz bestelakoa da, zeren eta horretan itzulketak erregistratzen baitira Administrazioak behar den ebazpena ematen duenean. Horrek 2012an 46,2 milioiko doikuntza negatiboa egitea exijitu du.

Azken batez, 2012rako, Nafarroako Gobernuaren minus 313,4 milioiko aurrekontu-saldo ez-finantzariotik abiatuta, aurrekontu-kontabilitatearen arabera, beste ente batzuen beharrak gehitu ondoren eta kontabilitate nazionalako betebeharretatik heldu diren doikuntzen ondoren, emaitza da Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektoreak 311,5 milioiko finantzaketa-premiak dituela. Premia horiek Nafarroako 2012ko BPGaren ehuneko 1,72 dira eta, horrenbestez, aurrez finkatutako ehuneko 1,5eko helburua gainditzen da. Desbideratze hori dela eta, finantzaketa-beharrak 39,6 milioitan handitu behar dira.

2011ko ekitaldiarekin alderatuta, finantzaketa behar horiek ehuneko 15 jaitzi dira, eta funtsean azaltzen dira kontabilitate nazionalako doikuntzen izaera positiboarengatik –2012an, 4,9 milioi; 2011n, -55 milioi–.

---

<sup>14</sup> Une honetara arte, Espainiako administrazio publikoek diru-sarrerengatik kontabilitate nazionalan kuxa-irizpidearen bitartez –hau da, ordainketa efektiboa egiteko unearan arabera– erregistratzen zituzten.

#### V.4.2. Zor publikoa

Ulertuko da Administrazio Publikoaren sektorearen zor publikoa, gehiegizko defizitari buruzko protokoloaren eraginetarako, dela ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden –epe luzean zein epe laburrean– sektoreko ordaintzeko betebeharren balioa<sup>15</sup>, honako salbuespenarekin, funtsean:

- Administrazio publikoen sektorea osatzen duten unitate desberdinek dauzkaten pasiboak.
- Merkataritza-eragiketak.

Defizitaren kasuan bezala, zorpetze gisa hatzen dira sektore pribatuak itzaleko bidesariaren formula erabiliz finantzatu, eraiki eta kudeatutako azpiegiturengatik egotzitako maileguak.

Aurrekoaren arabera, Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen duten enteen zorraren bolumena 2.873,5 milioi eurokoa da 2012ko abenduaren 31n, eta honela azaltzen da:

Zorra SEC'95 (euroak, milioitan)	2012
Nafarroako Gobernuak	2.206,0
Nafarroako Gobernuak. Pirinioetako autobia dela-eta egotzitako zorpetzea.	199,1
Nafarroako Gobernuak. Nafarroako Ubideko ureztalurrengatik egotzitako zorpetzea	124,5
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	2,7
Sozietate publikoak	333,3
Fundazio Publikoak <sup>16</sup>	7,9
<b>Zorpetzea, guztira, 2012-XII-31n</b>	<b>2.873,5</b>
<b>Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehunekoak</b>	<b>15,85</b>
<b>Zorpetzeko gehieneko gaitasunaren helburua (AHT gabe), Berrorrekatzeko Planaren arabera</b>	<b>3.187</b>
Biztanle bakoitzeko gastua (eurotan)	4.458

Horrenbestez, zorpetzearen bolumena, 2012ko abenduaren 31n, 313,5 milioi txikiagoa da Berrorrekatzeko Planean jasotakoa baino. Nafarroako BPGari dagokionez, bolumen hori haren ehuneko 15,85 da, ia puntu bat handiagoa Autonomia Erkidegoetako Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak aurreikusitakoa baino; biztanle bakoitzeko zorra 4.458 eurokoa da.

2011rekin alderatuta, honakoa adierazi behar dugu:

- Zorpetzearen bolumen orokorrak ehuneko 17 egin du gora; hau da, 413,4 milioitan egin du gora, guztira. Igoera hori, funtsean, honakoengatik gertatu da:

a) Nafarroako Gobernuaren zorra 313,1 milioi egin du gora.

b) Sozietate publikoen azpiesektorearen zorrak 107 milioi egin du gora.

- Nafarroako BPGari dagokionez, ehuneko 13,13 izatetik ehuneko 15,85 izatera pasa da.
- Biztanle bakoitzeko, 3.832 eurokoa izatetik 4.458 eurokoa izatera pasa da; hau da, ehuneko 16 egin du gora.

- Ez da berriazko zorrak formalizatu AHTaren obretarako.

**Horrenbestez**, Nafarroako Gobernuak ez du 2012rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko helburua bete, baina bai errespetatu du zor publikoa dela-eta akordatu den gehieneko bolumena.

Txosten honen 2. eranskinean erakusten da 2008tik 2012ra izandako bilakaera, bai finantzaketa-beharrena, aurrekontu-egonkortasunaren araudia betetzearen eraginetarako, bai zorpetze bolumenarena. Ondoren horren laburpen bat ematen dugu (zenbatekoak milioitan adierazita daude).

<sup>15</sup> Funtsean, obligazio, bono, mailegu eta gordailuetan euskarria dute.

<sup>16</sup> Zorpetze hori mendetasun ekonomikoa duten beste fundazio batzuei dagokie, bateratze-perimetroaren barruan daudenak. Kopuru horretatik, 6,8 milioi Cener-Ciemat Fundazioarenak dira.

Finantzaketa-beharrak	2008	2009	2010	2011	2012
Finantzatzeko beharra, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen ondorioetarako (milioitan)	-877	-477	-564	-368	-311
BPG erregionalaren gaineko finantzaketa-beharraren ehunekoa	-4,70	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72
Ezarritako helburua, BPG erregionalaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,75	-0,75	-2,40	-1,30	-1,50
Zor publikoa	2008	2009	2010	2011	2012
Bolumena (milioitan)	867	1.085	1.692	2.460	2.873
Erregioen BPGaren gaineko ehunekoa	4,69	5,97	9,10	13,13	15,85

Ikus daitekeen bezala, bost urteek beraiekin ekarri dute ekitaldi bakoitzerako aurrez ezarritako egonkortasun helburua ez betetzea; hala eta guztiz ere, ikusten da ahalegin handia egin dela finantzaketa-beharrak gutxitzeko, 877 milioitik 311 milioira hain zuzen. Zorpetzearen bolumena txikiagoa da berrorrekatzeko planetan jasotakoa baino.

Azkenik, adierazi behar dugu 2013ko ekitaldirako, Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluak 2013ko uztailaren hartutako erabakiaren bitartez honako aurrekontu-egonkortasuneko helburuak ezartzen direla Nafarroako Gobernurako:

- Finantzaketa-beharrek ez dute gaitutuko barne produktu gordinaren (BPG) ehuneko 1,20a.
- Zor biziaren bolumenak ez du gaitutuko 3.129 milioiko kopurua; hau da, 2013. urterako kalkulatu den Nafarroako BPGaren ehuneko 16,7a.

#### V.5. GOMENDIOEN JARRAIPENA

2011ko txostenean jasotako lehentasunezko gomendio hauek edo bete dira edo betetzeko fasean daude:

- *Nafarroako Kontu Orokorrak ixteko data hurrengo urteko irailaren 15etik uztailaren 1era aurreratu dira.*
- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen sistema aztertze eta aldatzeko prozesua hasi da, lehenengo fasean. Horrek aukera emanen du bai tributu zordunen jarraipena emateko bai kontabilitate orokorreko sistemarekin koordinatzeko.*
- *2012ko amaieran, fakturen erregistroa ezarri da. 2013rako osatzeko dago haren kontabilitate-sistemarekiko lotura eta aurrekontuari aplikatzekoak zaizkien zordunen kontuen tratamendua.*
- *2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeak, lehenengo aldiz, goi karguek har ditzaketan ordainsari guztiak jasotzen ditu, bai eta kabineteetako behin-behineko langileen ordainsarien zenbateko osoa ere.*
- *2013an, azterlan bat egin da "Nafarroako Gobernuaren pentsioen gastuaren aurreikuspenari" buruz, oinarritzat balio dezan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Montepi-oko pentsio arrunten kontusailaren aurrekontua egiteko.*
- *Ikastetxeen kontu korronteen gaineko kontrol-prozeduren ezarpena hasi da.*

**VI. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren 2012ko Kontu Orokorrak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenak aurkezten ditugu.

**VI.1. 2012ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

2012ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Bateratua	Baimendua	Erabilia	Gauzatua	Ehunekoa	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.143.274	1.137.207	1.072.591	1.072.591	1.072.591	94	1.072.105
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	518.295	581.096	557.104	556.583	555.216	96	495.751
Finantza-gastuak	72.992	93.095	92.994	92.994	92.994	100	92.980
Transferentzia arruntak	1.434.382	1.435.703	1.398.234	1.395.730	1.392.066	97	1.342.745
Inbertsio errealak	282.401	225.378	153.619	152.518	142.611	63	122.822
Kapital-transferentziak	259.656	290.352	246.052	244.169	241.282	83	181.579
Finantza-aktiboak	23.119	23.761	21.420	21.420	21.420	90	20.436
Finantza-pasiboak	103.598	107.298	107.259	107.259	107.259	100	107.259
<b>Guztira</b>	<b>3.837.717</b>	<b>3.893.889</b>	<b>3.649.272</b>	<b>3.643.264</b>	<b>3.625.438</b>	<b>93</b>	<b>3.435.677</b>

2012ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	Ehunekoa	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.434.617	1.434.617	1.420.530	99	1.388.744
Zeharkako zergak	1.763.838	1.763.838	1.515.380	86	1.501.827
Tasak, prezio publikoak eta bestelakoak	104.790	127.972	145.806	114	109.305
Transferentzia arruntak	67.759	70.025	49.630	71	49.635
Ondare bidezko diru-sarrerak	9.952	16.710	21.494	129	18.326
Inbertsio errealen besterentzea	9.405	9.552	4.140	43	4.021
Kapital-transferentziak	17.578	20.323	26.358	130	25.932
Finantza-aktiboak	21.527	28.316	22.729	80	20.499
Finantza-pasiboak	408.250	422.536	418.860	99	418.860
<b>Guztira</b>	<b>3.837.717</b>	<b>3.893.889</b>	<b>3.624.926</b>	<b>93</b>	<b>3.537.150</b>

## VI.2. 2012ko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Kopurua
1. Eragiketa arruntak	3.152.840	3.112.867	39.973
2. Kapital-eragiketak	30.497	383.892	-353.395
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	22.729	21.420	1.308
<b>I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza</b>	<b>3.206.066</b>	<b>3.518.180</b>	<b>-312.113</b>
<b>II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia</b>	<b>418.860</b>	<b>107.259</b>	<b>311.601</b>
<b>III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa</b>			<b>-512</b>
4. Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako betebeharrak aitortuak.			2.397
5. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			7.393
6. Ekitaldiari egotz dakizkikeen finantzaketa-desbideratze positiboak			12.630
<b>V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5-6)</b>			<b>-3.352</b>

## VI.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA, 2012ko ABENDUAREN 31n

(eurotan)

Kontzeptua	Kopurua
<b>+ Kobratzeko dauden eskubideak</b>	<b>243.796.545</b>
Aurrekontuko diru-sarrerak: aurtengo ekitaldia	663.321.671
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-421.387.896
Aurrekontuko diru-sarrerak: itxitako ekitaldiak	3.891.968
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-3.584.690
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.770.460
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-214.968
<b>(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak</b>	<b>573.462.628</b>
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	496.414.157
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	12.996.858
Aurrekontuz kanpoko gastuak	64.051.613
<b>+ Funts likidoak</b>	<b>193.379.856</b>
<b>Diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>-136.286.227</b>
Diruzaintzako gerakina, Karbono Funtsari atxikitakoa	3.895.449
Diruzaintzako gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	96.848.005
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	2.720.293
<b>Atxikitako diruzaintzako gerakina, guztira</b>	<b>103.463.747</b>
<b>Diruzaintzako guztizko gerakina, gastu orokorrak</b>	<b>-239.749.974</b>

## VI.4. 2012ko ABENDUAREN 31KO EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)

AKTIBOA	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia*
<b>A) Ibilgetua</b>	<b>2.562.314.048</b>	<b>2.515.792.358</b>
III. Ibilgetu materialak	2.076.868.200	2.011.867.506
1. Lursailak eta eraikuntzak	1.399.511.026	1.362.981.130
2. Instalazio teknikoak eta makineria	66.084.099	66.046.002
3. Tresneria eta altzariak	351.189.446	342.803.491
4. Bestelako ibilgetua	236.305.240	233.402.715
6. Ekitaldiko ibilgetua	23.778.399	6.634.167
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	485.445.848	503.924.852
1. Epe luzerako baloreen zorroa	469.918.657	363.751.888
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	64.198.792	153.067.269
3. Epe luzerako eraturako fidantza eta gordailuak	0	25.159
4. (Hornidurak)	-48.671.601	-12.919.464
<b>C) Aktibo zirkulatuak</b>	<b>533.127.107</b>	<b>541.646.356</b>
I. Izakinak	13.005.540	10.300.915
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	13.005.540	10.300.915
II. Zordunak	326.725.992	306.661.913
1. Aurrekontu-zordunak	750.248.173	665.326.137
2. Aurrekontuetatik kanpoko zordunak	111.461	136.359
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administraziozko zordunak	450.418	43.507
5. Bestelako zordunak	11.493.204	8.707.917
6 (Hornidurak)	-435.577.264	-367.552.008
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	3.911.168	4.541.704
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	3.895.449	4.527.534
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	15.719	14.170
IV. Diruzaintza	189.484.407	220.141.824
<b>Aktiboa, guztira (A+B+C)</b>	<b>3.095.441.155</b>	<b>3.057.438.714</b>

\* 2011ko balantze birformatu edo berradierazia



ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia*
<b>A) Funts berekiak</b>	<b>246.531.151</b>	<b>592.048.742</b>
I. Ondarea	887.858.837	1.187.807.360
1. Ondarea	887.858.837	1.187.807.360
III. Aurreko ekitaldiko emaitza	-255.893.456	-294.669.894
1. Aurreko ekitaldiko emaitza	-255.893.456	-294.669.894
IV. Ekitaldiko emaitzak	-385.434.230	-301.088.724
<b>C) Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>2.141.433.710</b>	<b>1.873.680.125</b>
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.433.354.694	1.300.334.191
1. Obligazioak eta bonoak	1.433.354.694	1.300.334.191
II. Epe luzeko bestelako zorrak	708.079.016	573.345.933
2. Bestelako zorrak	707.571.500	572.818.072
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	507.516	527.860
<b>D) Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>707.476.294</b>	<b>591.709.848</b>
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	136.466.108	81.916.639
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	131.416.325	77.886.407
2. 520. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	5.049.783	4.030.232
III. Hartzekodunak	571.010.186	509.793.209
1. Aurrekontuko hartzekodunak	512.990.789	460.167.796
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administra- tzeagatiko hartzekodunak	4.395.050	5.691.609
4. Administrazio publikoak	1.848.307	2.837.319
5. Beste hartzekodunak	48.944.610	35.823.867
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	2.831.430	5.272.617
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)</b>	<b>3.095.441.155</b>	<b>3.057.438.715</b>

\* 2011ko balantze birformulatu edo berradierazia

## VI.5. 2012ko EMAITZEN KONTUA

(eurotan)

Zor	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia*
A) Gastuak		
<b>2. Hornidurak</b>	<b>236.697.750</b>	<b>195.159.434</b>
b) Ekitaldiko kontsumoak	236.697.617	195.159.380
c) Kanpoko beste gastu batzuk	133	54
<b>3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk</b>	<b>1.623.261.418</b>	<b>1.634.892.166</b>
a) Langile-gastuak.	1.002.018.318	1.089.909.794
a.1) Soldatak eta ordainsariak	841.458.559	924.818.337
a.2) Gizarte-zamak	160.559.759	165.091.457
b) Gizarte-prestazioak	70.844.844	66.588.368
d) Trafiko horniduretako aldagetak	68.025.256	67.620.710
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	68.025.256	67.620.710
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	316.020.611	317.478.099
e.1) Kanpoko zerbitzuak	316.002.156	317.464.167
e.2) Tributuak	18.455	13.932
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	130.600.252	97.912.203
f.1) Zorrak direla eta	130.600.252	97.912.203
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldageta	35.752.137	-4.617.009
<b>4. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>1.633.020.091</b>	<b>1.622.392.774</b>
a) Transferentzia arruntak	1.391.738.419	1.399.177.772
c) Kapital-transferentziak	241.281.672	223.215.002
<b>5. Ezohiko galerak eta gastuak</b>	<b>76.692.083</b>	<b>78.094.636</b>
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	1.138.056	236.988
c) Aparteko gastuak	61.825.128	66.001.454
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	13.728.899	11.856.194
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)		
<b>Zorra, guztira</b>	<b>3.569.671.342</b>	<b>3.530.539.010</b>

\*2011ko emaitzen kontu birformulatu edo berradierazia

Hartzeko	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia*
<b>B) Diru-sarrerak</b>		
<b>1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak</b>	<b>2.966.803.970</b>	<b>2.985.456.769</b>
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	2.949.037.966	2.968.739.275
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.138.117.701	1.107.657.996
a.2) Sozietateen gaineko zerga	196.908.841	167.526.487
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	48.979.714	33.447.655
a.4) Ondarearen gaineko zerga	36.523.998	0
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta E.J.D.en gaineko zerga	44.144.400	56.120.964
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.049.974.880	1.108.159.751
a.11) Zerga bereziak	421.260.224	480.547.235
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	0	637.228
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	13.128.207	14.641.958
b) Kotizazio sozialak	3.128.376	3.418.341
c) Zerbitzu-emateak.	14.637.628	13.299.153
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	14.637.628	13.299.1533
<b>2. Beste diru-sarrera batzuk, kudeaketa arruntekoak</b>	<b>125.826.457</b>	<b>141.883.507</b>
a) Diru-itzultzeak	25.837.285	35.779.213
c) Salmentak eta zerbitzu-emateak.	34.186.779	35.603.255
c) Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	49.485.786	51.521.273
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	49.485.786	51.521.273
d) Kapitaleko parte-hartzeengatiko diru-sarrerak	435	532
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	16.316.172	18.879.233
f.1) Beste interes batzuk	16.316.172	18.879.233
<b>3. Transferentziak eta diru-laguntzak</b>	<b>75.987.584</b>	<b>87.888.313</b>
a) Transferentzia arruntak	49.630.051	64.974.567
b) Kapital-transferentziak	26.357.533	22.913.747
<b>5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak</b>	<b>15.619.100</b>	<b>14.221.698</b>
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	7.414.353	283.328
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	26.765	116.743
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	8.177.982	13.821.627
<b>Saldo zorduna (desaurrezkia)</b>	<b>385.434.230</b>	<b>301.088.724</b>
<b>Hartzekoa, guztira</b>	<b>3.569.671.342</b>	<b>3.530.539.011</b>

\*2011ko emaitzen kontu birformulatu edo berradierazia

## VII. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA AHOLKUAK

Ondoren azaltzen ditugu eginiko fiskalizazioaren gaineko iruzkin, ondorio eta gomendio nagusiak.

### VII.1. 2012rako AURREKONTUA

Nafarroako 2012rako aurrekontuak abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen bidez onartzen dira. Hona haien ezaugarri garrantzitsuenak:

a) Aurrekontu hori prestatzeko oinarria izan ziren ildo makroekonomikoak –2011ko irailean aurkeztuak– eta giltzarriak hauek izan ziren:

- Nafarroako ekonomiak ehuneko 1,9ko hazkundea izanen zuela.
- Enpleguak urteko batez beste ehuneko 0,8ko hazkundea izanen zuela.
- Kontabilitate nazionaleko terminoetan, ehuneko 1,3ko defizita izanen zela, Nafarroako BPGaren gain. Urte horretarako begizko jotako BPGa 19.768 milioikoa izanen zela.
- Finantzaketaz kanpoko gehieneko gastua 3.711 milioikoa izatea; hau da, 2011rako hasiera batean aurreikusitakoa baino ehuneko hiru txikiagoa. Muga hori, milioika eurotan adierazia, ondokoetan arabera lortu da:

Adierazleak	Zenbateko partziala	Zenbatekoa, guztira
Zergak	3.198	
Finantzaz besteko beste diru-sarrera batzuk	209	
Finantzaz besteko diru-sarrerak, guztira		3.407
Finantzatzeko beharra, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen ondorioetarako		304
BPGaren % 1,3ko aurreikusitako defizita	257	
Kontabilitate Nazionaleko doikuntzak		
Foru sektore publikoa	(87)	
AHTaren lanak	134	
<b>Finantzaz besteko gastuaren muga</b>		<b>3.711</b>

- Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babeseko zerbitzuak mantentzea.
- Ekonomia suspertzeko eta enplegua berreskuratzeko apustua.
- Ekonomiaren egonkortasun faltako egoeraren aurrean zuhur jokatzeta.
- Gastu fiskalak ez dira sartzen 2012ko aurrekontuetan.

#### B) Hauek dira aurrekontu honen oinarrian dauden zenbatekoak:

• Gastuetarako eta diru-sarreretarako hasierako 3.837,72 milioi euroko kredituak; 2011ko aurrekontu doituarekin alderatuta ehuneko 0,2ko gutxitzea hain zuzen.

• Gastu arruntek 3.168,94 milioi euro egiten dute, 2011n baino ehuneko 1,49 gutxiago; kapital-gastuek, berriz, 542,05 milioi euro egiten dute; hauek gehiago jaitsi dira, ehuneko 10,64, kapital-transferentzietan dagokienez batez ere.

• Zerga bidezko diru-sarreraren aurreikuspenak 3.198,45 milioi eurokoak dira, 2011n izan zirenak baino 1,85 gutxiago, hain zuzen.

• Diru-sarrera arruntek, batera harturik, 3.380,95 milioi euro egiten dute, 2011n izan zirenak baino ehuneko 3,62 gutxiago.

• Aurreikusita dagoen zorpetzea 408 milioi eurokoa da, 2011ko beharren ehuneko 41,46 gehiago. Zorpetze hori honela xehakatzen da:

a) 2012ko ekitaldian bertan muga-egunera iristen den zorra birfinantzatzeko: 103,2 milioi.

b) AHTaren obrak finantzatzeko: 134 milioi.

c) Gainerako beharrak finantzatzeko, BPGaren ehuneko 1,3ko mugaren barruan: 170,8 milioi.  
Laburtuz, bada, 2012ko aurrekontuak, milaka eurotan adierazia, zenbateko hauek ditu:

Magnitudeak	Diru-sarrerak	Gastuak	Saldoak
Arruntak	3.380,95	3.168,94	
<b>Aurrezkia</b>			<b>212,01</b>
Kapitala	26,98	542,05	
<b>Kapital-defizita</b>			<b>(515,07)</b>
Finantza-aktiboak	21,53	23,12	
<b>Finantza-aktiboen defizita</b>			<b>(1,59)</b>
Finantza-pasiboak	408,25	103,60	
<b>Zorpetze garbia</b>			<b>304,65</b>

2011ko abenduan berriro ezartzen da ondarearen gaineko zerga, eta hala diru-sarreraren aurrekontuaren aurreikuspenak 20 milioi euro handitzen dira. 2012ko otsailean Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren tasa berriak aplikatzen dira, eta diru-sarreraren zenbatekoa 45 milioi euro handitzen da.

2012ko apirilean, egoera ekonomikoa ikusirik, aurrekontuaren oinarriko zenbateko makroekonomikoak<sup>17</sup> berrikusi ziren; hurrengo taulan agertu ditugun balio hauek ematen dituzte, eguneraturik:

Adierazleak	2012	
	Aurrekontua (2011ko iraila)	Aurrekontua (2012ko apirila)
BPGa (zenbatekoa milioitan)	19.768	18.950
BPGaren aldaketa aurreko ekitaldian	1,9	-1,2
Urteko batez besteko enplegua	0,8	-2,4
Defizit-helburua/ BPGfn <sup>18</sup>	-1,3	-1,5

Egoera ekonomikoa txarraren, diru-sarreraren bilketa murriztu izanaren –diru-sarrera fiskalak batez ere– eta defizitaren muga Kontabilitate Nazionalaren terminoetan BPGaren ehuneko 1,5eraino jaso izanaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ekonomia eta enplegua suspertzeko eta defizit-helburu hori betetzeko helburua duten zenbait neurri hartzen ditu 2012ko maiatzean. Neurrien multzo hau honela azal daiteke kuantitatiboki (euroak, milioitan):

Adierazleak	Zenbatekoak
Diru-sarrerak 2012ko apirilean	(75,5)
Baimendutako defizita ehuneko 1,3tik 1,5era jasotzea	21,6
Defizita 2012ko apirilean	(53,9)

<sup>17</sup> 2012ko martxoaren 31n, 237 milioioiak ziren Foru Komunitateko Administrazioaren finantzaketa-beharrak.

<sup>18</sup> Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa indarrean sartzearen eta Estatuaren eta Foru Komunitatearen arteko akordioaren ondorio gisa, 2012rako defizita Nafarroako BPGaren ehuneko 1,5ean finkatzen da.

Diru-sarrerak gutxitze hori gertatu da zerga bidezko diru-sarrerak 69,76 milioi gutxiago direlako eta bestelako finantzaketaz besteko diru-sarrerak 5,74 milioi euro gutxiago direlako.

Defizitaren handitze hori beste aurreikuspen hauen bidez berdintzen da (euroak, milioitan):

Gastuen eta diru-sarreren aldaketa	Zenbateko par- tziala	Zenbatekoa, guztira
<b>Gastuen murrizketa</b>		<b>(60,4)</b>
Langile-gastuak	(25)	
Estatuaren finantzaketarik ez edukitzeagatik bete ez diren gastuak (mendetatsuna eta enplegu politikak)	(20,2)	
Estatu osorako aurreikusitako aurrezpen-neurriak (Hezkuntza eta Osasuna) (1)	(15,2)	
<b>Diru-sarreren handitzea</b>		<b>+27</b>
Osasunerako zentimoa	8	
Tabakoa	2	
2012ko osagarritzko aitormenen pizgarriak ("amnistia fiskala")	14	
Sozietateen gaineko zerga	3	
<b>Gastuen gehitzea</b>		<b>+33,5</b>
Tokiko Azpiegituren Plana –lehenetasuna duten lanak–	1	
Enplegua sustatzeko plana	12,5	
Ekonomia eta enplegua sustatzeko Plana	20	

(1) Nafarroako Parlamentuak errekurtsioa jarri du Auzitegi Konstituzionalean neurri horiek Nafarroan aplikatzearen kontra.

2012ko maiatzean Gobernuak plan bat onartu zuen orubeak, lur-sailak eta ibilgailuak saltzeko, hartara finantza-baliabideak eskuratzeko; 14 milioi euro inguruko diru-sarrerak lortzea kalkulatu zen.

2012ko ekainean, Nafarroako Gobernuak beste 132 milioi euroko defizit-gainerakin baten berri eman zuen, eta, horrenbestez, 132,45 milioi euroko –hasierako kredituen ehuneko 3,45a– aurrekontu-doikuntza bat egitea erabaki zuen. Hartara, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 1eko 304/2012 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako 2012ko aurrekontuetatik arestian aipatutako zenbateko hori ezin dela gastatu erabaki zen. Doikuntza horrek honakoetan du eragina:

Gastuak	Erabilgarri ez dagoen zenbatekoa (milioitan)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15,01
Transferentzia arruntak	47,28
Inbertsioak	25,32
Kapital-transferentziak	34,82
Suspertze-planaren parte bat ezabatzea	10,00
<b>Guztira</b>	<b>132,45</b>

Doikuntza hau, 2012ko maiatzeko aurrekontuaren itxiera eginik, zerga bidezko diru-bilketaren data horretara bitarteko bilakaeratik (diru-sarreren aurrekontuko 1. eta 2. kapituluak) eta 2012 osorako kalkulatu den bilakaeratik ateratzen da.

2012ko abenduaren 31n, aurreko erabilgarri ez-egote edo "blokeo" hori egiatzki 82 milioikoa izatera iritsi da guztira<sup>19</sup>, eta honako kapitulu eta departamentuei dagokie:

<sup>19</sup> 2011n, kontusailen blokeoa 151,2 milioikoa izan zen..

Kapitulua	Erabilgarri ez dagoen zenbatekoa (milioitan)	Ehunekoa, guztizkoaren gainean
Transferentzia arruntak	28	34
Kapital transferentziak	26	32
Ondasunak eta zerbitzuak	13	16
Inbertsio errealak	12	14
Langileak	3	4
<b>Guztira</b>	<b>82</b>	<b>100</b>

Departamentua	Erabilgarri ez dagoen zenbatekoa (milioitan)	Ehunekoa, guztizkoaren gainean
Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena	38	46
Gizarte Politika	14	17
Hezkuntza	8	10
Kultura	8	10
Ekonomia eta Ogasuna	7	8
Sustapena eta Etxebizitza	4	5
Lehendakaritza, Administrazio Publikoak eta Barnea	3	4
<b>Guztira</b>	<b>82</b>	<b>100</b>

2012ko bigarren hiruhilekoan, finantzaketa-beharrak edo defizita, kontabilitate nazionalako terminoetan, 373 milioikoak direla kalkulatu da.

Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuaren onespenez eragina izan zuen 2012ko aurrekontuan; izan ere, haren baliabideak handitu egin ziren honako arloetan:

- BEZaren bidezko diru-bilketa 10,6 milioi igo da.
- Tabakoaren gaineko zergaren bidezko diru-bilketa 0,5 milioi gehiagokoa izan da.
- Gastua urritu egingen da, enplegatu publikoen abenduko aparteko soldata "eten" delako: 60 milioi.

2012ko abuztuan 2012ko bigarren hiruhilabetekoan Nafarroako BPGak izandako bilakaerari buruzko datuak argitaratzen dira; urte batetik bestera ehuneko 1,4 jaitsi da, eta 2012ko urtearen bukaerarako BPGa ehuneko 1,5 jaitsiko dela kalkulatu da. Kalkulu berri honekin, bada, 2012ko bigarren hiruhilabetekoko BPGa 18.329 milioi eurokoa da.

2012ko hirugarren hiruhilekoan, Nafarroaren defizita, kontabilitate nazionalako terminoetan kalkulatu, 332 milioikoa da guztira.

Azkenik, 2012ko abenduaren 31n, finantzaketa-beharrak 245 milioikoak izanen zirela kalkulatu zen hasiera batean; hau da, Nafarroako BPGaren ehuneko 1,35.

BPGari dagokionez, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den hari buruzko aurreikuspenen bilakaera (eurokoa, milioitan):

Nafarroako BPGaren kalkulua	Kopurua
2011ko iraila	19.768
2012ko apirila	18.950
2012ko uztaila	18.329
2012ko abendua	18.148
<b>2012ko BPGa, behin behinekoa (EEI)</b>	<b>18.216</b>

Hau da, 2012ko aurrekontua egiterakoan kontuan hartu ziren BPGaren hasierako aurreikuspenak 1.642 milioi jaitsi dira; hau da, ehuneko 8 egin dute behera. Logikoa denez, gutxitze horrek eragina izan du finantzaketa-beharrak finkatzeko orduan.

2012ko aurrekontuko zenbaki handiak kuantifikatzeko oinarri gisa baliatu ziren magnitude makroekonomikoek honako egoera agertzen dute:

Magnitude makroekonomikoak	2012ko aurrekontuaren aurreikuspenak	Egiazkoa
Nafarroako ekonomiaren hazkundearen ehunekoa (BPG)	1,9	-1,4
Enpleguaren urteko batez bestekoaren ehunekoa	0,8	-3,6

Laburbilduz, egoera ekonomikoaren bilakaera negatiboak eragin larria izan du 2012rako onetsi zen aurrekontuaren oinarri ziren aurreikuspen makroekonomikoak betetzerakoan, haien plan-gintza ekonomikorako tresna gisa zeukaten kontsiderazioari eraginkortasuna kenduta. Gainera, haien betetzea zuzenean lotzen da egoera ekonomikoaren bilakaerarekin eta aurrekontu-defizitaren helburua betetzearekin.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitaterako 2012-2014 urteetarako aurrekontua berrorekatzeko plan ekonomiko-finantzarioa 2012ko maiatzean gaurkotu zen, data horretan indarrean zeuden aurrekontu-egonkortasuneko baldintzen eta beharkizunen arabera. Horiek aldatu egin dira, eta, horrenbestez, gaurkotu beharko lirateke.

Gomendioak:

- *Gaur egungo krisi ekonomikoak plangintza ekonomiko egoki batean, sortzen dituen zailtasunak aitortuta, funts publikoen kudeaketan hobekuntzak lortzeko, zorrotasun handiena aplikatu beharra dago aurrekontuen plangintzan eta exekuzioan; prozedurak berraztertu behar dira; antolamendu-egiturak analizatu behar dira; gastua arrazionalizatu beharra dago, eta diru-sarrerak optimizatu behar dira, . Horren guztiaren xedea da aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzea, defizitari eta zor publikoari dagokienez.*

- *Foru Komunitatearen aurrekontua berrorekatzeko plan ekonomiko-finantzarioa gaurkotzea, zorraren eta defizit publikoaren beharkizun berrien arabera egokitzeko.*

## VII.2. KONTU OROKORRAK, KONTABILITATE-EREDUA ETA AURREKONTU-PROGRAMAK

### VII.2.1. Kontu Orokorra eta kontabilitate-eredua

Kontu Orokorrak azaltzeko datari buruz –hurrengo ekitaldiko irailaren 15a–, Kontuen Ganberak behin eta berriz esan izan du data hori aurreratutako beharko litzatekeela, garaiz ezagutzeko aurrekontuaren betetzeari buruzko zenbateko garrantzitsuak; hori are nabarmenagoa da kontuan hartzen bada Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa aplikatuz aurrekontu-exekuzioaren hileroko itxierak egiten direla eta hurrengo ekitaldiko apirilaren 1a baino lehen urteko itxieraren aurrerapen bat egin beharra dagoela. Eskari horri erantzunez, Parlamentuak apirilaren 17ko 16/2013 Foru Legea onetsi zuen, zeinak data hori aldatzen baitu. Foru lege horretan ezartzen da Nafarroako Gobernuak Kontu Orokorraren kasuko foru lege proiektua urte bakoitzeko uztailaren 1a baino lehen onetsi eta Parlamentura igorri behar duela. Aurreikuspen horiek 2012ko Kontu Orokorraren proiektuarekin aplikatu dira lehenengo aldiz.

Nafarroako Foru Komunitateak 2012an oraindik ere 1994ko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra aplikatzen du, zorraren nahiz haren interesen eta diru-laguntzen kontabilitate-erregistrarako izan ezik; izan ere, horiek 2010eko Kontabilitate Publikoko Plan Orokor berriaren irizpideen arabera jasotzen dira<sup>20</sup>. Zehaztu beharra dago Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 128. artikulua adierazten duela ezen Nafarroako Gobernuak berriazko araurik onesten ez badu, Estatuko sektore publikorako indarra duen plan orokorra izanen dela aplikatzeko. Nafarroako Gobernuak ez du aplikatu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aplikatzeko den kontabilitate planik.

<sup>20</sup> Apirilaren 13ko 1037/2010 Aginduaren bidez onetsia; bertan arautzen da hura nola aplikatuko zaion Estatuko sektore publikoari 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta berriaz indarririk gabe uzten da 1994ko Plana.



Zergen kudeaketaren arloan aplikatutako kontabilitate-tratamenduaren eskasiak eta haiek ekitaldieren itxieran duten eragina direla eta, kontabilitatez besteko eragiketak behar izaten dira, eta haiek ez daude beti agiri bidez bermatuak. Horrek, izan ere, Nafarroako Gobernuaren kontabilitate-kudeaketa bera zailtzen du. Horri gehitu behar zaizkio aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiak eskatzen duen kontabilitate-informazioaren betekizunak.

Ganbera honek berriz ere dio bi kontabilitate-sistema –kontabilitate publikoa eta kontabilitate nazionala– batera egoteak –Estatuko eta Europako aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiak exijitzen ditu, beren irizpideetan desberdinak dira eta maiz aldatzen edo/eta argitzen dira– zaildu egiten ditu defizitari buruzko estimazioak eta kalkulu errealak, kontabilitate nazionalaren eraginetarako, eta, zaildu egiten du, horrenbestez, aurrekontuko gastuen eta diru-sarreraren kopuruaren zehaztapena.

Egungo egoera ekonomikoan eta aurrekontuak ahal den modurik egokienean zenbatesteko asmoz, jotzen dugu jakin beharra dagoela jardunean diren funtzionarioen eta funtzionario pasiboen montepioetako pentsioen sistematik heldu diren betebeharren egungo balioa, eta hura ere Nafarroako Gobernuaren balantzean islatu beharra dagoela. Hala eta guztiz ere, 2013an, "Nafarroako Gobernuaren pentsioen arloko gastuaren aurreikuspenari" buruzko azterlan bat egin da, Foru Komunitateko Administrazioiko Montepioko pentsio arrunten kontusailaren aurrekontua egiteko oinarri gisa erabil dadin. Azterlan horren arabera, kalkulatzeko da montepioaren indarraldiak 2087ra arte iraunen duela, eta 2.785,64 milioi euro konstanteko kostua kalkulatzeko zaio (ikus VII.6 atala).

Halaber, oroitidazkiaren edukia osatu beharra dago, bereziki zorpetzeari buruzko informazio orokorrarekin, kontabilitate nazionalako terminoetan, eta onura fiskalen betetzearekin eta hark ezarritako helburuak lortzean duen eraginarekin.

## VII.2.2. Aurrekontu-programen betetzea

2012ko aurrekontuan, 73 programa ageri dira, 233 proiektuk osatuak; 2011ko aurrekontuan, berriz, 95 programa jaso ziren. Honakoak dira departamentuz departamentuko xehetasunak:

Departamentua	Programak	Proiektuak
Lehendakaritza, Administrazio Publikoak eta Barnea	10	35
Ekonomia eta Ogasuna	17	43
Hezkuntza	10	32
Osasuna	11	25
Sustapena eta Etxebizitza	5	13
Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena	7	38
Giz. Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	5	24
Kultura eta Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	8	23
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>233</b>

Programa bakoitzerako honakoa adierazten da: zein den zuzendu nahi den egoera edo zein egoeratan eragin nahi den; programaren helburuak, ekintzak eta adierazleak; aurreikusitako emaitzak; baliabide pertsonalak; aplikatzekoak diren xedapenen zerrenda eta gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-aurreikuspenen laburpena.

Gobernuaren 2012ko oroitidazkian, aurreko programen betetzeari buruzko azterketa jasotzen da, honakoei buruzko hamar programaren salbuespenarekin: programa orokor edo babes-programak –ia guztiak “Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak” izendapenaren pean sartzen dira–, Estatuarekiko Hitzarmena eta aurrekontu- eta finantza-kudeaketa.

Programa bakoitzaren betetzeari buruzko oroitidazkiak honakoak adierazten ditu: betetzeaz arduratu behar duen unitate organikoa, helburuak, aurrekontuan jasotako ekintzak eta adierazleak, lortutako emaitza, programaren betetzeari buruz beharrezkotzat jotzen diren azalpen gehigarriak eta gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-betetzea.

Sustapeneko eta Gizarte Politiketako departamentuen programen oroitidazkia aztertu dugu, eta honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- Programa horien exekuzioa aurkezteko moduan dagoen heterogeneotasuna.
- Emandako zerbitzuaren kostuari buruzko informaziorik ez egotea.

- Zenbait programatan, informazio gehigarri gisa jasotzen da adierazitako helburuen ez-betetzea kontusailen blokeoaren ondorioa izan dela.

- Jasotzen dituzten adierazleak, orokorrean, lehenengo mailakoak dira –hau da, behaketa bidez zuzenean lortuak–, barnekoak –unitate organikoaren jarduerari berari buruzkoak– eta emaitza orokorretakoak; gutxi dira ratioei lotutako adierazleak. Hauek dira:

a) Sustapenean, aztertu ditugun lau programak 29 helbururen arabera banatzen dira, eta helburu horiek 73 ekintzaren arabera; horietatik, 26 ekintzak (ehuneko 36) adierazleren bat dute lotua. Guztira 65 adierazle daude; horietatik 26k (ehuneko 44) aurrekontu-aurreikuspenak bete dituzte. Adierazleen guztizkotik, ehuneko 98 zenbaki bidezkoak dira: elurra kentzeko makinak orduak; gatz tonak; ezpondak zenbat kilometrotan garbitu diren; segurtasun barreren kilometroak; fresatzeak eta errodaduraren konponketak eta abar; haien ehuneko hiru portzentualak dira eta ehuneko beste hiru bai/ez gisakoak dira.

Departamentu horretan, garrantzitsua da helburu bakoitzari buruzko informazio gehigarria. Aztertutako programen 29 helburuetatik soilik hirutan ez da informazio gehigarririk agertzen. Gainerakoetarako, berriz, azalpen gehigarriak exhaustiboak dira: egindako jarduketan xehetasunak ematen dituzte, bai eta, kasu bada, helburuak lortu ez izatearen arrazoiak ere. Adierazlerik esleituta ez duten helburu edo ekintzak, halere, konprobatu egin daitezke, beren emaitzen betetze-mailari dagokionez, azken horiek neurgarriak eta identifikagarriak baitira, eta, oro har, oroitidazkian zehazten dira idatzi beharreko eraikuntza-proiektuak, edo kartografia lan zehatzak, edo abian diren obrak edo eremuen arabera zehaztutako desjabetzeak eta abar.

b) Gizarte politika. Aztertutako bost programek 79 helburu eta haiekin lotutako 259 ekintza dauzkate; horietatik, 199 ekintzak (ehuneko 77) adierazleren bat dute esleitua. 359 adierazleetatik, 191ek (ehuneko 53) aurrekontu-aurreikuspenak betetzen dituzte. Adierazleen ehuneko 96 zenbaki bidezkoak dira, funtsean Administrazioak eginiko ekintza edo jardueren kopuruari buruzkoak, onuradun edo erabiltzaileen kopuruari buruzkoak edo lankidetzan jardun den edo lan egin den entitateen kopuruari buruzkoak; adierazleen ehuneko 14 bai/ez terminoetan adierazita datoz, eta neurtzen dute ea neurri, politika, erakunde, zentro edo arau jakin bat egin edo ezarri den; adierazleen ehuneko sei portzentaje gisakoak dira: okupazio-maila, sektoreen arabeko laguntzak, diru-laguntzak eskatutako inbertsioaren aurrekontuan zenbat egiten duen eta abar; zortzi adierazlek, azkenik, gainditu beharreko portzentaje bat adierazten dute. Adierazlerik ez duten helburuei buruz, berriz, azalpen gehigarri bat egiten da askotan.

Gomendioak:

- *Fundazioen foru sektore publikoaren barruan sartzea –Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eta aurrekontu-egonkortasunaren eragineterako– araudi horietako bakoitzean adierazitako baldintzak betetzen dituztenak.*

- *Kontabilitatea 2010eko kontabilitate-plan publiko berriari egokitzeko prozesuan, Nafarroako Gobernuaren kontuen plan berekia onestea, non haren informazio-betekizunak jasoko diren eta eragiketa nagusietan aplikatu beharreko irizpide eta jarraibideak ezarriko diren.*

- *Balantzean sartzeko foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktua-rialak.*

- *Ekitaldiko Kontu Orokorraren oroitidazkiari erantzea ekitaldi bakoitzean betetako jardura hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarria den informazio guztia; bereziki honakoiei dagokiena:*

a) *Foru sektore publikoaren finantza-egoera orokorra.*

b) *Zorpetzearen bolumena, kontabilitate nazionalaren terminoetan, eta hura dela-eta ezarritako helburuen betetze-maila.*

c) *Estatuarekiko Ekonomi Hitzarmenetik heldu diren fluxu finantzarioak.*

d) *Zerga onuren exekuzioari buruzko azterlana.*

e) *Fundazioen sektore publikoaren informazio ekonomiko-finantzarioa.*

- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezana.*

- *Aurrekontu programetarako, aurreikusitako helburuak neurtzeko adierazleak osatzea; helburu horiek zenbagarriak eta neurgarriak izanzen dira, eta haien betetze maila eta gertatutako desbideratzeak aztertuko dira.*

### VII.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ZORPETZEA

Zorraren eta maileguen tratamenduari, kontabilitate plan berriaren arabera aplikatutako kontabilitate-irizpidearen aldaketa –kostu amortizatua– abiapuntutzat hartuta, Nafarroako Gobernuaren 2012ko abenduaren 31ko zorpetze finantzarioa (epe luzekoa eta epe laburrekoa) eta haren 2011koarekiko alderaketa, kasuan kasuko balantzeen arabera, honako taulan islatu ditugu (euroak, milakotan).

Nafarroako Gobernuaren zorra	2011 (*)	2012	2012/2011 alde garbia
Epe luzeko zor publikoa	1.300.334	1.433.355	133.021
Epe laburreko zor publikoa	42.000	90.152	48.152
Epe luzerako maileguak	572.818	707.572	134.753
<b>Zorpetzea honaino, guztira</b>	<b>1.915.152</b>	<b>2.231.079</b>	<b>315.926</b>
Sortutako interesak, muga-egunera iritsi	39.917	46.314	6.398
<b>Balantzea, guztira</b>	<b>1.955.069</b>	<b>2.277.393</b>	<b>322.324</b>

(\*) Balantze birformulatuaren arabera.

Bi ekitaldien artean, Nafarroako Gobernuaren zorraren bolumen garbiak 315,9 milioi egin du gora; hau da, 2011n baino ehuneko 16 gehiago. Haren ehuneko 4k epe laburreko muga-eguna dauka.

Balio nominalaren kontabilitate-irizpidea aplikatuta, honakoa litzateke zorpetze finantzarioa (euroak, milakotan):

Nafarroako Gobernuaren zorra	2011	2012	2012/2011 alde garbia
Zor publikoa	1.344.852	1.522.852	178.000
Maileguak	572.818	707.572	134.754
<b>Guztira</b>	<b>1.917.670</b>	<b>2.230.424</b>	<b>312.754</b>

Aurreko datuen multzoa dela eta, honakoa adierazi behar dugu:

- Obligazioetan edo "Nafarroako zorrean" dagoen zorra honako jaulkipenek eta zenbateko nominalak osatzen dute:

Jaulkipenaren data	Muga-eguna	Zenbateko nominala	Interes mota nominala
14/05/1998	14/05/2013	90.151.815,55	5,45
16/12/2000	16/11/2015	42.000.000,00	5,85
04/11/2004	04/11/2014	65.000.000,00	3,95
28/04/2005	28/04/2015	138.200.000,00	3,6
23/11/2006	23/11/2021	83.000.000,00	4
31/10/2008	31/10/2018	60.000.000,00	4,875
30/09/2009	30/09/2019	50.000.000,00	4,2
17/02/2010	17/02/2017	200.000.000,00	3,875
17/02/2010	17/02/2020	184.000.000,00	4,3
2011/02/24 eta 2011/12/28	24/02/2016	154.000.000,00	5,529
04/03/2011	04/03/2016	35.000.000,00	5,25
09/06/2011	09/06/2018	120.000.000,00	5,8
29/09/2011	29/09/2014	81.500.000,00	4,75
08/02/2012	04/11/2014	50.000.000,00	3,95
08/02/2012	16/11/2015	40.000.000,00	5,85
08/02/2012	24/02/2016	50.000.000,00	5,529
08/02/2012	17/02/2017	50.000.000,00	3,875
10/02/2012	10/02/2015	30.000.000,00	3,65
<b>Guztira</b>		<b>1.522.851.815,55</b>	

Aipatutako zor horren batez besteko tipoa ehuneko 4 inguruan dago.

2012an, zorraren jaulkipena egin da, 220 milioiko nominalarekin, eta 42 milioi amortizatu dira guztira.

- Emaille den sektoreari erreparatuta, Nafarroako Gobernuak itundutako maileguen saldo garbia honakoetatik heldu da (euroak, milakotan):

Kreditu-emailearen sektorea	2011	2012
Finantza entitateak	233.900	369.000
Europako Inbertsioen Bankua	300.000	300.000
Gizarte Segurantza	9.783	9.783
Sektore Publikoaren gainerakoa	14.080	13.734
AUDENASAKo akzioak erosteagatiko zorra	15.055	15.055
<b>Epe luzeko maileguak, guztira</b>	<b>572.818</b>	<b>707.572</b>
Sortutako interesak, muga-egunera iritsi gabeak	4.030	5.049
<b>Maileguak, guztira</b>	<b>576.848</b>	<b>712.621</b>

2012an, 200 milioi euroko maileguak itundu dira, eta 65,3 milioi amortizatu dira guztira.

Europako Inbertsio Bankuaren maileguak ordainketa bakarrarekin amortizatuko dira 2024an – 90 milioi– eta 2025ean –210 milioi–; Audenasaren akzioak erostekoa eta Gizarte Segurantzarena, berriz, 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren. Finantza-entitateekin hitzartutako gainerako maileguen amortizazio-epaek, termino orokorretan, 2013 eta 2019 artean bukatzen dira.

Halaber, nabarmendu behar dugu 2008an hiru mailegu egin zirela, 132 milioi euroko kopuru orokorra egiten zutenak, bost urteko muga-egunarekin, honako interes aldakorrarekin: sei hilabeterako euriborra gehi diferentzial bat (0,85 eta oinarritzko puntu baten artekoa). Mailegu horiek direla-eta, finantza-entitate batekin aseguru bat egin zen, interes tasaren estaldurari buruzkoa “prima zeroko lepoko finantzarioa”<sup>21</sup> izenekoa, erreferentziako interes tasaren –sei hilabeterako euriborra– igoera-arriskua bi bandaren artean mugatzeko: ehuneko 1,76ko zorua eta ehuneko lauko sabaia. Aipatutako finantza-lepoko sinatzeko unean, sei hilabeterako euriborra ehuneko hiru ingurukoa zen, nahiz eta 2008an bertan ehuneko bostekoa izatera iritsi zen. Hala eta guztiz ere, 2009tik erreferentziako tasa horrek beherako prozesu orokor bat hasi zuen. 2012ko amaieran, ehuneko 0,318 zen. Horren ondorioz, eta ikusita euriborra lau urtez kontratatutako zorutik behera egon dela, Nafarroako Gobernuak 2009tik 2012ra kasuko prima ordaindu behar izan du, 1,8 milioikoa.

Azken batean, finantzaketarako tresna mota horrek alde txar bat badauka, alegia, finantza-lepoko bat kontratatzen duenak ez duela jasotzen interes tasen beherakadaren ondoriozko onurarik, maila edo zoru batetik behera. Abantailak heldu dira, berriz, interes tasek adostutako sabaia gainditzen dutenean.

- Ondoko taulan Nafarroako Gobernuaren zor horren adierazle multzo bat erakusten da:

<sup>21</sup> Tresna finantzario bat da, interes aldakorreko maileguetan erabiltzen dena interes tasen igoerek dakarten arriskua mugatzeko, bi banden artean: zoru – beheko banda– eta sabaia –goiko banda–. Sabaiarekin, mailegu-hartzaileak segurtatzen du ordaindu beharreko interes tasa ez dela muga jakin batetik gora joanen; horretarako, prima bat ordainduko dio finantza-entitateari. Zorurekin, mailegu-emaileak segurtatzen du kobratzeko duen interes aldakorraren tasa ez dela jaitsiko erreferentziako gutxieneko batetik, segurtatze horrengatik prima edo sari bat ordainduta. Mailegu-hartzailearentzako aseguruaren amaierako kostua da sabaiarengatik ordaintzen den primaren eta zoruarengatik jasotzen duen primaren arteko aldea. Zero prima esaten da fluktuazio banda bat ituntzen denean, zeinak aukera ematen baitu sabaiarengatik ordaintzen den prima zoruarengatik kobratzen denaren baliokidea izateko.

Nafarroako Gobernuaren zorraren adierazleak	2011	2012
NGren zorra (milioitan)	1.915	2.231
Zor biziaren ehunekoa, diru-sarrera arrunten gainekoa	59,94	70,76
Zorraren ehunekoa, Nafarroako BPGaren gainean	10,23	12,31
Aurrezki gordinaren gaineko zorra	15,12	16,79
Zor bizia biztanleko (eurotan)	2.983	3.456

a) Zorraren bolumen hori diru-sarrera arrunten ehuneko 70,76koa da –2011n, ehuneko 59,94–, eta biztanle bakoitzeko 3.456 euroko zorra egiten du –2011n baino 473 euro gehiago–.

b) Nafarroako Gobernuak sortutako aurrezki gordinarekin, ia 17 urte beharko lirateke zor hori amortizatzeke; 2011n, balio hori 15 urtekoa zen.

c) 2012ko Nafarroako BPGaren gainean, ehuneko 12,31 egiten du; 2011n, ordea, ehuneko 10,23 zen.

- Nafarroako Gobernuaren zorraren bilakaera (2012-2011) –balio historikoaren arabera– hurrengo taulan erakusten duguna da:

Nafarroako Gobernuaren zorra (balio historikoa)	2008	2009	2010	2011	2012
Zenbatekoa (milioitan)	816	1.030	1.524	1.918	2.230
Adierazlea	100	126	187	235	273

Hau da, Nafarroako Gobernuaren zorrak ehuneko 173 egin du gora aztertutako aldirian.

Epe hori bat dator krisialdi ekonomikoaren hasierarekin eta mantentzearekin, eta zorpetze handiago horrek balio izan du gastuen aurrekontua orekatzeko, aipatutako krisiaren eraginez diru-sarrerak nabarmen jaitsi izatearen aurrean. Halaber, zehaztu beharra dago 2008ko abiapuntua zorpetze-maila oso txikia zela, Nafarroako BPGaren ehuneko 4,4 egiten zuena.


- Nafarroako Gobernuaren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (2012-2011) (aurrekontuaren 3. eta 9. kapitulua) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2008	2009	2010	2011	2012
Finantza-zama (milioiak)	90,70	35,13	144,99	148,83	200,30
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoa	2,63	1,01	4,24	4,66	6,35

Ikusten den bezala, garrantziak gora egin du, eta 2012an diru-sarrera arrunten ehuneko 6,35 izatera iritsi da.

- Hurrengo taulan eta irudian erakusten dira Gobernuaren zorraren guztizkoak datozen ekitaldietan amortizatzeke dauden aurreikuspenak (euroak, milakotan).

Urtea	Amortizatu beharreko zenba-	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2013	192.961	8,65	8,65
2014	296.532	13,29	21,95
2015	317.011	14,21	36,16
2016	296.079	13,27	49,43
2017	265.930	11,92	61,36
2018	195.981	8,79	70,14
2019	91.276	4,09	74,24
2020	185.533	8,32	82,55
2021	84.684	3,80	86,35
2022	1.835	0,08	86,43
2023	1.955	0,09	86,52
2024	90.329	4,05	90,57
2025	210.318	9,43	100
Guztira	2.230.424	100	



Hau da, amortizazio-punta handienak 2014tik 2025era bitarteko aldian egokituko dira. Nabarmentzekoa da, halaber, 2016ra arte zorraren ia ehuneko 50 amortizatu beharko dela.

• Azkenik, ondoko taula honetan Nafarroako Gobernuaren eta Espainiako Erreinuaren zorraz Standard&Poor's (S&P) rating-agentziak emandako kalifikazioak aldi horretan izan duen bilakera adierazten da:

Zorren kalifikazioa S&Pren arabera	Nafarroako kalifikazioa	Espainiako Erreinuaren kalifikazioa
2009ko urtarrila	AAA	AA+
2010eko otsaila	AAA	AA+
2010eko apirila	AA+	AA
2011ko urria	AA+	AA-
2012ko otsaila	AA-	A
2012ko maiatza	A	BBB+
2012ko urria	BBB+	BBB+

Ikus daitekeen bezala, foru erkidegoak zorren kalifikazio hobea du Espainiak duena baino, aipatutako agentziaren arabera, bere erakunde-esparruaren, diruzaintzako kudeaketa independentearen eta malgutasun finantzario handiagoaren ondorioz.

#### VII.4. EKITALDIKO GASTUEN EGOERA-ORRIAREN AURREKONTU- ETA KONTABILITATE-EBAKERAREN ANALISIA.

Gastuen egoera-orriaren aurrekontu-ebakeraren egokitasuna egiaztatzeko, hau da, 2012ko aurrekontuaren likidazioak urte horretan sortutako gastuen guztizkoa islatzen duela, honakoak analizatu dira bereziki:

- Aurrekontuari egoztekoak zaizkion betebeharrengatik zordunen kontuetako saldoak. Horri dagokionez, adierazi behar dugu Nafarroako Gobernuak kontu hauen erabilera mugatua egin duela, zeren eta, orokorrean soilik O-NOZen aplikatzen baitira.
- Aurrekontuetako hartzekodunen amaierako saldoen ordezkagarritasunaren lagin bat, eta haren eta zordun horiei igorritako zirkularizazioari buruzko berrespenaren alderaketa.
- 2013ko lehenengo hiruhilekoan eginiko betebeharren aitopenari buruzko kontabilitate-oharrak.

Halaber, aintzat hartu da aldizkako gastuen kontusailek ekitaldi baten gastua jaso dezatela. Era berean, kontuan hartu beharra dago araudiaren aniztasuna, zeinak 2012an kredituen blokeoa formalki baimendu baitzuen.

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu 2012an ahalegin bat egin dela ekitaldian bertan sortutako gastuak eta aurreko ekitaldietatik heldutakoak egozteko –55 milioi inguru dira–; ez da antzeman 2013ko aurrekontura aldatutako gastu-kopuru handirik dagoenik.

Hurrengo taulan erakusten da ekitaldi bakoitzeko aurrekontuaren exekuzioa –2008tik 2012ra bitarteko ekitaldiak–, 2. 4. 6. eta 7. kapitulueterako, itxierako foru agindua argitaratu zenetik hasi eta abenduaren 31ra artekoa, bai eta hurrengo urteko urtarrilean betetakoaren eta urteko aurrekontuaren arteko alderaketa ere.

Ekitaldia	Azaroan eta abenduan betetakoak ekitaldiko guztizkoan zenbat egiten duen	Hurrengo urtarrilean betetakoak aurrekontuan zenbat egiten duen
2008	35,19	4,68
2009	33,75	3,94
2010	33,27	4,27
2011	30,46	8,94
2012	40,34	5,03

Ikus daitekeen bezala, 2011ko ekitaldia da azaroan eta abenduan betetze txikiena duena eta hurrengo urteko urtarrilean betetze handiena duena –aurreko urteetakoen ia bi halako da–. 2012an, ordea, urteko azken hilabeteetan betetze handiena erakusten duen urtea da, urte horretan sortutako gastua egozteko egindako ahaleginaren ondorioz.

Kredituaren blokeoei dagokienez, berretsi behar dugu 2011ko kontuei buruzko txostenean jaso genuen iruzkina, haren aplikazioak dakarren zailtasun teknikoari buruzkoa, bereziki, jada Nafarroako Gobernuak bere gain hartutako gastu-konpromisoekin finantzatzen diren kredituei dagokienez. Betalde, zenbait inbertsioren mantsotzeak, aurrekontu-mugen ondorioz, berarekin ekarri du haien betetzearen eta kasuko ziurtagirien artean desdoikuntza batzuk gertatzea.

Kontabilitate nazionalaren ondorioetarako, 2011n 33 milioi gutxiagoko doikuntza bat egon zen (defizit gehiago), aurrekontuan aplikatzeke geratu ziren eragiketen ondorioz. 2012an, aurreko ahaleginaren ondorioz eta Gobernuak kontabilitate zerbitzuek eginiko fakturen erregistroko fakturak abenduaren 31n aztertzeke prozesuaren ondorioz, aurrekontuari egotzi gabeko gastuarengatik kontabilitate nazionalaren doikuntza positiboa da; hau da, 27 milioi gutxiagoko defizita dago ondorio horietarako, hurrengo taularen arabera (euroak, milakotan):

Aurrekontuari aplikatze geratutako hartzekodunengatikoko doikuntza	Hasierako saldoa	Amaierako saldoa	Kontabilitate nazionalaren doikuntza
Fakturen erregistroa	0	5.881	-5.881
Osasun modulua	33.567	666	32.901
	33.567	6.547	27.020

Aurreko taulari jarraituz, 2013ra aldatutako gastuak 6,5 milioi egiten du. Zenbateko horretatik, 5,8 milioi egotzi gabeko gastuari dagozkio, fakturen erregistroaren azterketaren arabera.

Fakturen erregistroa ezartzeko prozesua amaitzearen eta hura kontabilitate orokorrarekin eta, bereziki, aurrekontuan aplikatzekeoak diren hartzekodunen kontuekin lotzearen ondorioz, nabarmen hobetuko da ekitaldiko kontabilitate-informazioa.

Gure aholkuak:

- *Fakturen erregistroa ezartzeko prozesua osatzea.*
- *Nahitaezko izaeraz, Nafarroako Gobernu osoan aplikatzea aurrekontuan aplikatzekeoak diren hartzekodunen kontuen erabilera, aurrekontu-exekuzioari egozterik izan ez diren gastuak identifikatu ahal izateko.*

#### VII.5. HORNITZAILEEN ORDAINKETA-EPEEN JARRAIPENA.

Aplikatzekoa den araudiaren arabera, honakoak dira administrazio publikoek bete behar dituzten ordainketa-epeak, laburbilduta:

- **Obra kontratuak:** 60 egun natural, obren ziurtagiriak ematen direnetik kontatzen hasita. 2013ko martxoaren 5etik aurrera, epe hori 30 egunera laburtuko da, 3/2013 Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 25eko Foru Legearen eraginez.
- **Bestelako kontratuak:** 30 egun natural, faktura edo dokumentu baliokidea jaso eta erregistratzen denetik hasita.
- **Gainerako merkataritza-eragiketak:** 75 egun natural, faktura edo dokumentu baliokidea jaso eta erregistratzen denetik hasita.
- **Produktu fresko eta galkorrekin egindako merkataritza-eragiketak:** 30 egun natural, faktura edo dokumentu baliokidea jaso eta erregistratzen denetik hasita.
- **Osasun laguntzako zerbitzuak ematen dituzten entitate publikoak:** 60 egun natural.

Aplikatzekoa den araudian ezartzen da ezen epe horiek iragaten badira ordainketa egin gabe, zorpeko zenbatekoak automatikoki berandutza-interes bat sortuko duela, halakoaren errekerimendua egin



gabe ere, bai eta kalte-ordain bat ere, behar bezala egiaztatzen diren kobrantza-kudeaketaren kostuengatik.

Zehaztu beharra dago aurreko epeak enpresekin eta profesionalekin berariaz eginiko merkataritza-eragiketei dagozkiela, eta kanpo uzten direla, beraz, merkataritza-harreman batean oinarrituta ez daudenak, langile-gastuetatik heldu direnak, ondare-kontratuetatik heldu direnak edo desjabetzeko ahalmenetik heldu direnak, bai eta foru sektore publikoko entitateekin egindakoak ere. Merkataritza-eragiketa horiek, oro har, gastuen aurrekontuko 2. eta 6. kapituluetan egozten dira.

2012ko azaroan, Nafarroako Gobernuaren fakturen erregistroa ezarri zen, eta hilabete horretako 19tik aurrera, kontabilitate-sistemak ez ditu onartzen jada gastuen 2. eta 6. kapituluko kontusailen aurkako betebeharren aitopen-eragiketak, aipatutako erregistroaren erreferentzia baliaduna falta badute. Hala eta guztiz ere, zenbait arazo aurkitu dira aurreko erregistroaren funtzionamenduan eta sistemarekiko daukan loturan, eta 2013an zehar konponbidea ematen ari zaie. Hori dela eta, hurrengo ataletan komentatu ditugun ondorioek egoera horrek baldintzatuta daude.

Kontabilitate zerbitzuek helarazi dizkigute bai 2012ko laugarren hiruhilekoaren txostena, aldi horretako ordainketarako batez besteko aldiari buruzkoa, bai 2012ko abenduaren 31n ordaintzeko dauden eragiketetatik iragandako batez besteko aldiari buruzko txostena.

Horiek egiteko abiapuntua da SAP programatik lortutako ordainketei buruzko informazioa; gero, "ordainketarako batez besteko epea" (PMP) kalkulatzeko da, bai eta "abenduaren 31n egiteke zeuden eragiketen batez besteko epea" ere (PMPP), honakoen zatidurak baitira:

$$\text{Ordainketarako b.b. epea} = \frac{\sum (\text{Ord. aldiko egunen kop.} * \text{Eragiketaren zenbatekoa})}{\sum \text{Hautatutako eragiketen guztizko zenbatekoa}}$$

$$\text{Ordaindu gabeko b.b. epea} = \frac{\sum (\text{Ordaindu gabeko egunen kop.} * \text{Eragiketaren zenbat.})}{\sum \text{Hautatutako eragiketen guztizko zenbatekoa}}$$

Lortutako emaitzak hauexek izan dira:

Ordainketarako batez besteko epea.

Entitatea	Ordainketarako batez besteko epea, 2. kap.	Ordainketarako batez besteko epea, 6. kap.
Administrazioa	26,71	26,75
Osasun arloaz besteko erakunde autonomoak	26,71	30,3
O-NOZ	35	55,16

Horrenbestez, oro har, ondoriozta dezakegu egoki errespetatzen direla legedia indardunean ezarritako epeak.

2012ko kontabilitatean ez da gasturik ageri berandutza interesengatik eta jatorria hornitzaile-entzako ordainketetan izandako atzerapenetan duten kobrantza-kudeaketako kostuengatik.

Ordainketarako batez besteko epea, 2012ko abenduaren 31n

Entitatea	Egiteke dauden ordainketen batez besteko epea, 2. kap.	Egiteke dauden ordainketen batez besteko epea, 6. kap.
Administrazioa	8,39	28,93
Osasun arloaz besteko erakunde autonomoak	10,67	7,39
O-NOZ	16,56	19,14

Hau da, 2012ko abenduaren 31n, ordaindu gabe dauden eragiketak ordaintzeke dauden batez besteko epea 12 bat egunekoa da 2. kapituluko ordainketen kasuan eta 18 egunekoa 6. kapituluko ordainketen kasuan.

2012ko azken hiruhilekoko ordainketarako batez besteko epearen jarraipen bat egin dugu, aurrekontuko ordainketak eta Administrazioaren errentamenduaren nahiz O-NOZen osasun-itunen kontzeptuetan ukitutakoen ordainketak abiapuntu hartuta. Hura dela eta, honakoa adierazi behar dugu:

- Administrazioaren errentamenduak: Kalkulatutako ordainketarako batez besteko epea 15,74 egunekoa da; kontabilitate-zerbitzuen txostenak jasotakoa, berriz, 27,27 egunekoa da. Bi kasuetan, legediak ezarritako 30 eguneko epea baino laburragoa da.

- O-NOZen itunetan, kalkulaturako ordainketarako batez besteko epea 64,55 egunekoa da; kontabilitate-txostenean, berriz, 59,97 egun aipatzen dira. Bi kasuetan, ezarritako mugaren inguruan daude.

Halaber, azarotik 2012ko abenduaren 31ra egindako ordainketen faktura guztiak erregistrotik hartu ditugu; 47,3 milioi egiten dute. Milioi batetik gorako fakturak aztertuta –4 dira guztira eta 7,1 milioi egiten dute–, honakoa esan behar dugu:

- Kontabilitatearen erregistro-data fakturen erregistroan sarrera gisa adierazitako data baino 9 eta 23 egun bitarte geroagokoa da.

- Lau fakturak 30 eguneko epearen barruan ordaintzen dira, fakturak erregistratzeko datatik kontatzen hasita.

#### VII.6. LANGILE-GASTUAK

2012ko langile-gastuak 1.072,6 milioikoak izan dira, eta gastu guztiaren ehuneko 30 egiten dute; 2012arekin alderatuta, bi puntu behera egin du langile-gastuak guztizko gastuan daukan garrantziak. Arloka, guztizkoaren ehuneko 42 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari, eta gainerakoa Administrazio-erroari.

Bateratuaren gaineko betetze maila ehuneko 94koa izan da, eta hasierako aurrekontuarekin alderatuta, halaber, ehuneko 94 bete da.

2011rekin alderatuta, ehuneko zazpi egin dute behera –hau da, 83,3 milioi gutxiago–, hurrengo taulan adierazitakoaren arabera (euroak, milakotan):

Langile-gastuak	2011	2012	Aldaketaren ehunekoa
Goi-karguak	5.907	5.650	-4
Behin-behineko langileak.	1.328	1.029	-22
Lanpostuko ordainsariak	731.341	657.455	-10
Langileen ordainsariak	116.753	111.996	-4
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	231.713	231.415	-
Ordainsari aldakorak	57.020	51.803	-9
Beste hainbat ordainsari	11.848	13.242	12
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>1.155.910</b>	<b>1.072.590</b>	<b>-7</b>

Behera egite horren arrazoia<sup>22</sup>, funtsean, honakoaren aplikazioan datza:

a) Estatuko arauditik heldutako langile-arloko presako neurriak, guztira 65,3 milioi egiten dutenak. Neurri horien artean, nabarmentzekoa da abenduko aparteko soldata kentzea, zeinak 58,3 milioi euroko gastua kendu baitu.

<sup>22</sup> Behera egite horren xehetasunak Nafarroako Gobernuaren Oroitidazkiak ikus daitezke..

b) Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legea, ekainaren 21ekoa, Nafarroako administrazio publiko-koen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa. 3,3 milioi euroko gastua kendu du. Neurri horien artean, nabarmentzekoak dira elementu aldakorrenatik ordainak kentzea, oporrei dagokiena -1,6 milioi- eta erretiroen luzapena -1 milioi-.

c) Gobernuaren 2012ko otsailaren 15eko erabakia -haren bidez, langileria gastuak murrizteko jarraibideak eman ziren-, zeinak 12,7 milioiko gastua kendu baitu. Besteak beste, aipatu behar ditugu ordezkapenen gutxitzea -6,5 milioi- eta O-NOZen aparteko produktibotasunaren osagarria gutxitzea -3,7 milioi-.

d) Lan-egoeren aldaketa orokorra, zeinak 2,1 milioiko gastua kendu baitu.

Departamentu kudeatzaileari erreparatuta, langile-gastuen aurreko gutxitzearen ehuneko 49 Hezkuntza Departamentuan gertatu da; ehuneko 41, berriz, O-NOZen; eta, gainerakoa, Administrazio-erroan.

Adierazi behar dugu, halaber, abenduko aparteko soldatara bideratzen diren kredituak ekitaldiaren amaieran deuseztatu zirela; horrekin, aukera eman zen aurrekontu-saldo ez-finantzarioaren zenbateko negatiboa gutxitzeko eta, horrenbestez, kontabilitate nazionalaren eraginetarako defizita gutxitzeko.

• 2012ko abenduaren 31ko plantilla organikoa -2013ko uztailean argitaratua- eta haren 2011ko egoerarekiko alderaketa hurrengo taulan islatzen dena da:

Plantilla organikoa	31/12/2011	31/12/2012	2012/2011 aldea
Plantilla organikoko lanpostuak, guztira	22.572	22.681	109
Betetako lanpostuak	19.082	19.040	-42
Lanpostu hutsak	3.490	3.641	151

Hau da, plantillako lanpostuen kopuruak ehuneko 0,5 egin du gora; lanpostu hutsek ehuneko lau egin dute gora, eta betetako lanpostuak, azkenik, 2011ko maila berean mantentzen dira.

Departamentuka, aurreko lanpostuak, 2012an, honakoei atxikitzen zaizkie:

Departamentua	Lanpostuak, guztira	Beteriko lanpostuak
Gobernuko Lehendakaritza	6	6
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	3.051	2.508
Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegua.	809	671
Hezkuntza	7.833	6.808
Osasuna	8.751	7.288
Sustapena	336	251
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	659	503
Gizarte Politikak	852	671
Kultura eta Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	384	334
<b>Guztira</b>	<b>22.681</b>	<b>19.040</b>

Guztira dauden lanpostuen barruan, 10.648 lanpostu daude erakunde autonomoei atxikiak; hau da, guztizkoaren ehuneko 47.

Betetako lanpostuak honela banatzen dira, beren tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota	Kopurua
Behin-behineko langileak.	111
Betetako burutzak	1.410
Oinarrizko lanpostuak	17.519
<b>Betetako lanpostuak, guztira</b>	<b>19.040</b>

Oinarrizko lanpostuen barruan, 1.303 zerbitzu berezien egoeran edo antzekoetan ageri dira, lanpostua erreserbatuta; eta 238, berriz, eszedentzian.

2012an zehar plantillan egin diren aldaketek, NAO n argitaratu direnek, beraiekin ekarri dute 118 lanpostu amortizatzea eta 283 lanpostu berri sortzea. Argitaratutako aldaketa horiez gainera, plantillen fitxategiei erreparatuta, ikusi dugu 770 lanpostu amortizatu direla eta 710 lanpostu sortu direla.

Halaber, nabarmendu beharra dago Gobernuaren 2012ko otsailaren 15eko erabakiak, langile-riaren arloko gastuak gutxitzekoak, ezarri zuela Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak departamentu eta erakunde autonomo guztien plantilla organikoa aztertuko duela, alde batetik, plantillan ezarritakotik gora behin betiko beteta dauden lanpostuak erregularizatzeko eta, bestetik, aurrekontu-zuzkidurarik ez duten lanpostuen amortizazioa proposatzeko. Azterketa-prozesu horren ondorioz, otsailaren 13ko 15/2013 Foru Dekretua onetsi zen, zeinak plantilla organikoa aldatzen baitu eta beste aldaketa batzuk ere egiten baititu; esate baterako, Nafarroako Ospitale-guneko sukaldaritza zerbitzuko langileen doikuntza edo beste departamentu batzuen eskariak, langileak benetako beharren arabera egokitzeak.

Horren emaitza da 341 lanpostu amortizatu direla. Horietatik, 227 lanpostuk ez zuten aurrekontu-zuzkidurarik edo ez zen bidezkotzat jotzen haiek betetzea; aurrekontu-zuzkidura zutenetatik –114 lanpostu–, 109 O-NOZekoak ziren. Halaber, sei lanpostu berri sortu dira, aurrekontuan diru-zuzkidura bazutenak.

• 2012an guztira dauden lanpostuak 22.681 dira –22.572 lanpostu zeuden 2011n–, hurrengo taulan adierazi bezala. Lanpostu horietatik 3.641 hutsik daude –ehuneko 16, hain zuzen–: Osasunari ehuneko 39 dagozkio, Administrazio-erroari ehuneko 30 eta Hezkuntzari ehuneko 28. Lanpostu hutsetatik ehuneko 56 aldi baterako beteta daude.

Lanpostuak	Erroa	Hezkuntza	O-NOZ	Justizia	Guztira, 2012	Guztira, 2011
Betetakoak	4.826	6.808	6.995	411	19.040	19.082
Lanpostu hutsak	1.097	1.025	1.411	108	3.641	3.490
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	583	233	1.129	99	2.044	2.244
Bete gabeko lanpostu hutsak	514	792	282	9	1.597	1.246
<b>Guztira</b>	<b>5.923</b>	<b>7.833</b>	<b>8.406</b>	<b>519</b>	<b>22.681</b>	<b>22.572</b>

2011rekin alderatuta, esan beharra daukagu betetako lanpostuak 42 gutxiago direla, lanpostu hutsak 151 gehiago direla, aldi baterako betetako lanpostu hutsak 200 gutxiago direla eta bete gabeko lanpostu hutsak 351 gehiago direla. Azken batez, 2012an 242 lanpostu efektibo gutxiago daude.

Lanpostuen 2008ko datuen eta 2012ko datuen alderaketa ondorengo taulan ageri da:

Lanpostuak	Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Justizia		Guztira	
	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012	2008	2012
Betetakoak	4.304	4.826	6.357	6.808	6.374	6.995	354	411	17.389	19.040
Lanpostu hutsak	1.292	1.097	640	1.025	1.665	1.411	100	108	3.697	3.641
<b>Lanpostuak, guztira</b>	<b>5.596</b>	<b>5.923</b>	<b>6.997</b>	<b>7.833</b>	<b>8.039</b>	<b>8.406</b>	<b>454</b>	<b>519</b>	<b>21.086</b>	<b>22.681</b>
<b>Adierazlea</b>	<b>100</b>	<b>106</b>	<b>100</b>	<b>112</b>	<b>100</b>	<b>105</b>	<b>100</b>	<b>114</b>	<b>100</b>	<b>108</b>

Orokorrean, 2008tik 2012ra lanpostuen kopuruak ehuneko 8 egin du gora; hau da, 1.595 lanpostu. Alabaina, Administrazio-erroan eta Osasunean igoera orokorretik beherako igoera-ehunekoak badaude ere, Hezkuntzan eta Justizian igoera orokorretik gora hazi dira, ehuneko 12 eta 14, hurrenez hurren.

Betetako lanpostuek ehuneko 9 egin dute gora; bete gabeko lanpostuek, berriz, ehuneko 1,5 egin dute behera.

- Langileen guztizkoa honako unitate organikoetara atxikitzen zaie:

Departamentuak. 2011n eta 2012an departamentuen egituraren izandako aldaketak kontuan izanda, eta kontuan hartuta, halaber, departamentu guztiei, gainera, idazkaritza tekniko bat eta kabinete bat atxikitzen zaizkiela, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den unitate administratiboen bilakaera:

#### Departamentuak

Departamentua	Zuzendaritza nagusiak		Zerbitzuak		Atalak		Bulegoak		Guztira	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Lehendakaritza	5	4	19	14	52	51	28	31	104	100
Hezkuntza	2	2	9	9	34	29	44	46	89	86
Ekonomia	2	4	6	12	24	38	17	34	49	88
Sustapena	3	2	8	8	28	27	46	46	85	83
Landa Garapena	5	4	14	13	53	46	68	60	140	123
Gizarte Politika	1	1	-	-	5	5	4	5	10	11
Kultura	5	5	10	10	28	29	19	19	62	63
Osasuna	1	1	3	2	8	8	11	12	23	23
<b>Guztira</b>	<b>24</b>	<b>23</b>	<b>69</b>	<b>68</b>	<b>232</b>	<b>233</b>	<b>237</b>	<b>253</b>	<b>562</b>	<b>577</b>

Hau da, 2011tik 2012ra zuzendaritza nagusi bat eta zerbitzu bat kendu dira, eta handitu dira bai atalen kopurua –bat gehiago dago–, bai bulegoen kopurua –16 gehiago daude–.

#### Erakunde autonomoak (O-NOZ kenduta)

Erakunde autonomoak* (O-NOZ kenduta)	Zerbitzuak		Atalak		Bulegoak		Beste zenbait		Guztira	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutua	5	0	9	0	5	0	0	0	19	0
Nafarroako Larrialdietako Agentzia	3	2	7	7	0	0	30	35	40	44
Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua	1	1	3	3	1	2	0	0	5	6
Nafarroako Zerga Ogasuna	9	9	26	24	19	18	13	13	67	64
Nafarroako Enplegu Zerbitzua.	4	4	10	9	16	16	20	24	50	53
Nafarroako Mendekotasun Agentzia	5	3	17	17	18	11	3	2	43	33
Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua	1	0	3	5	1	5	9	10	14	20
Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua.	1	0	4	6	7	13	6	11	18	30
Nafarroako Gazteriaren Institutua	0	0	3	0	7	0	3	0	13	0
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua	2	5	5	12	0	0	4	12	11	29
<b>Guztira</b>	<b>31</b>	<b>24</b>	<b>87</b>	<b>83</b>	<b>74</b>	<b>65</b>	<b>88</b>	<b>107</b>	<b>280</b>	<b>279</b>

Ikusten da nolabaiteko egonkortasuna badagoela izendapen tradizionala duten unitateetan. Bitartean, nabarmen egin dute gora "beste zenbait" atalaren pean sartutakoek. Horren barranean aipatzen dira arloak, zuzendariordetzak, beste izen batzuk daukaten unitateak, haurtzaindegiak, enplegu agentziak, egoitzazentzakoak eta abar.

## Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Menpeko unitate organikoak	Kopurua 2011n	Menpeko unitate organikoak	Kopurua 2012an
Antolaketaren eta Informazio Sistemen Zuzendariordeztza	9	Antolaketaren, Osasun Laguntzaren Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Zuzendaritza	18
Giza Baliabideen Zuzendaritza	11	Giza Baliabideen Zuzendaritza	34
Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza	10	Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza	56
Eriaren Arretarako Zuzendaritza	6	Eriaren Arretarako Zuzendaritza	9
Nafarroako Osasun Mentaleko Zuzendaritza	37	Nafarroako Osasun Mentaleko Zuzendaritza	41
Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza	166	Oinarrizko Osasun Laguntzako Zuzendaritza	152
Laguntza Espezializatuko Zuzendaritza	331	Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza	260
Tuterako Osasun Barrutiko Zuzendaritza	73	Reina Sofía Ospitaleko zuzendaria	35
Lizarrako Osasun Barrutiko Zuzendaritza	60	García Orcoyen Ospitaleko zuzendaria	29
<b>Guztira</b>	<b>703</b>	<b>Guztira</b>	<b>634</b>

O-NOZen zuzendaritzen menpeko unitate organikoen guztizko kopurua ia ehuneko 9 jaitsi da.

- Lan eskaintza publikoa. Ez da onetsi 2012ko lan eskaintza publikoa. Azken eskaintza publikoak 2009koa –osasun langileena– eta 2010ekoa –unibertsitatez besteko irakasleena– dira. Nafarroako Gobernuak 2011ko urrian sartutako doikuntza-neurrien ondorioz, guztira 132 lanpostu kendu ziren eskaintza horietatik; lanpostu horietatik 102 O-NOZekoak dira.

Funtzio Publikoan, azken lan eskaintza orokorra 2009koa da; 2011n, beste eskaintza bat onetsi zen, partziala, Nafarroako Larrialdi Agentziako 20 lanposturako. 2012ko abenduaren 31n, aurreko eskaintzetako lanpostuen deialdi guztiak amaitu dira. Deitzeko geratu dira, guztira, 2009ko eskaintzako 28 lanpostu –horietatik 18 lanpostu aurreko deialdietakoak dira, bete gabe utzitakoak, funtsean arlo juridikoko administrazio publikoko teknikarientzat–.

Osasunaren arloan eta osasun langileei dagokienez, azken eskaintza 2009koa da. Eskaintza horretatik, 2012an, erizaintzako 172 lanposturako deia egin da. Hautapen prozesua amaitzeko dago. Deitzeko geratu dira guztira 110 lanpostu, bereziki erizaintzako laguntzaileenak.

Hezkuntzaren arloan, unibertsitatez besteko irakasleei dagokienez, lanpostuen azken deialdia 2010ean egin zen. Urte hartan, deitutako lanpostu guztiak bete ziren. Gaur egun, ez da geratzen batera lanposturik deitzeko.

Laburbilduz, 2012ko abenduaren 31n, 2009ko lan eskaintza publikoko 310 lanpostu betetzeko daude. Hona horri buruzko xehetasunak:

Maila	Kopurua	Deitu diren eta betetzeko dauden lanpostuak	Deitu diren eta bete gabe dauden lanpostuak	Deitu gabeko lanpostuak
A	26		18	8
B	182	172		10
C	15			15
D	87			87
E	-			
<b>Guztira</b>	<b>310</b>	<b>172</b>	<b>18</b>	<b>120</b>

Bete gabe utzitako lanpostuek eta deitu gabekoek 2012ko abenduaren 31ko plantilla organikoan hutsik dauden lanpostu guztien ehuneko 3,8 egiten dute.

- Nafarroako Gobernuak langileen absentismoa<sup>23</sup> honako kontzeptu hauen arabera kalkulatu da: aldi baterako ezintasuna, lanbide-gaixotasuna/lan-istripua, amatasun/aitatasun baimena eta baimen

<sup>23</sup> Txosten honen ondorioetarako, absentismotzat jotzen da lanpostutik modu justifikatu batengatik falta izatea.

sindikala. Hartara, 2012an, absentismo-tasa –absentisten kopurua langileen kopuru baliokidearen guztizkoaren gainean– ehuneko 4,98 da, eta langile absentisten galdutako egun-kopurua 18,26 da; 2011n, balio horiek ehuneko 5,6 eta 20,43 egun ziren, hurrenez hurren.

Eremu organikoari erreparatuta, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den datu horien bilakaera:

Eremua	Absentismo-tasa (ehunekoa)		Absentismo-tasa (egunak)	
	2012	2011	2012	2011
O-NOZ	5,41	6,41	19,75	23,40
Osasun langileak	5,45	6,46	19,88	23,56
Langile ez-sanitarioak	5,27	6,24	19,22	22,77
Hezkuntza	4,65	4,94	16,98	18,03
Irakasleak	4,74	5,00	17,29	18,25
Irakasle ez diren langileak	3,97	4,46	14,49	16,30
Nafarroako Mendekotasun Agentzia	5,57	7,04	20,33	25,69
Foruzaingoa	5,97	6,76	21,78	24,67
Nafarroako Larrialdietako Agentzia	3,21	3,89	11,73	14,19
Justizia Administrazioa	5,85	5,12	21,37	18,70
Administrazio-erroa	4,33	4,64	15,79	16,94
Nafarroako Gobernua, guztira	4,98	5,60	18,16	20,43

Azken batean, ikusten da Nafarroako Gobernuaren guztizkoan absentismoak behera egin duela –sektore pribatuan antzemandakoarekin bat–. Absentismo-ehuneko handienak Foruzaingoa, Justizian, Nafarroako Mendekotasun Agentzian eta O-NOZen gertatzen dira; nabarmentzekoa da, bestalde, Nafarroako Mendekotasun Agentzian absentismoak izan duen jaitsiera.

Absentismoaren arrazoari erreparatuta, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den haren bilakaera. Nabarmentzekoa da ehuneko handiena aldi baterako ezintasun kasuei dagokiela.

Arrazoa	Absentismo-tasa (ehunekoa)		Absentismo-tasa (egunak)	
	2012	2011	2012	2011
Aldi baterako ezintasuna	3,53	4,14	12,90	15,11
Amatasuna/aitatasuna	1,23	1,23	4,50	4,50
Lanbide-gaixotasuna/lan-istripua	0,15	0,17	0,56	0,60
Sindikatu gaietarako baimena	0,06	0,06	0,21	0,22
Nafarroako Gobernua, guztira	4,98	5,60	18,16	20,43

Egindako lanaren osagarri, langile-gastuen kapitulu honi egotzitako hurrengo gastuak aztertu dira.

**VII.6.1. Goi karguen ordainsariak**

2012an, atal honek honako betetzea dauka, eta honakoa da, era berean, 2010eko eta 2011ko betetzearekiko alderaketa, eurotan:

Kontusaila	2010	2011	2012
Goi karguen ordainsariak	6.574.368	5.245.764	4.616.169
Goi-karguen beste ordainsari batzuk	114.822	661.293	1.033.382
<b>Guztira</b>	<b>6.689.190</b>	<b>5.907.057</b>	<b>5.649.551</b>
Adierazlea	100	88	84

Goi karguen ordainsarien kontzeptuaren barruan, Gobernu kideen, zuzendari nagusien eta erakunde publikoetako zuzendaritza-langileen ordainsariak biltzen dira; beste batzuen artean, Gobernu kideen, zuzendari nagusien eta erakunde autonomoetako zuzendari-kudeatzaileen kargua utzi ondorengo ordainsarien gastua jasotzen da. Gastuak gora egin izatearen arrazoia 2012ko uztailan izandako gobernu-aldaketa izan da.

Egindako azterketatik honako hau nabarmenduko dugu:

- Goi karguen ordainsariak bat datoz Aurrekontuei buruzko Foru Legean aurreikusitakoekin. Nabarmenezkoa da ezen, lehenengo aldiz, aipatutako foru legeak goi karguek jaso ditzaketan ordainsari guztiak jasotzen dituela, eta aipatzen duela, halaber, goi karguek ezin izanen dutela inongo entitate publiko nahiz pribatutatik, modu pertsonalean, inolako dietarik jaso, administrazio kontseiluetara edo beste edozein motatako kide anitzeko organoen bileretara joategatik. Hona-koak dira ordainsari horiek: karguari dagokion urteko soldata gehi, ordain moduan, berariazko ordainsari osagarri bat, hamalau hileko ordainketatan jaso beharrekoa, zeinak, kasu bada, Gobernuaren izenean kide anitzeko organoetako kidea izatea jasotzen baitu. Hartara, honakoa aipatzen da:

a) Lehendakaria, lehendakariordea eta Gobernu kontseilariak: ehuneko 25, 20 eta 15eko osagarria ezartzen da, hurrenez hurren. Ehuneko hori, Aurrekontuei buruzko Foru Legearen arabera, aplikatzen da goi karguren ordainsarien guztizkoak gehi osagarriaren beraren zenbatekoak osatzen duten multzoaren gainean. Kalkulua egiteko modu hori dela eta, osagarriaren amaierako zenbatekoa handiagoa da aurreko ehuneko zuzenean aplikatuz lortzen dena baino. Horrenbestez, ateratzen diren balioak urteko ordainsarien ehuneko 33,33, 25 eta 17,5 dira, hurrenez hurren.

b) Zuzendari nagusiak, erakunde autonomoetako zuzendari kudeatzaileak, kabineteko kideak: gehieneko muga bat ezartzen da –ehuneko 15a bitartekoa–, eta adierazten da ordainsari osagarria eta haren ehuneko Gobernuak finkatuko duela kasuan kasu, eta litekeena dela batere osagarri ez aplikatzea. Hartara, Nafarroako Gobernuaren 2012ko urtarrilaren 25eko erabakiaz, osagarri hori jasotzea lotzen da kargudun horiek enpresa publikoetako administrazio kontseiluetako kideak izatearekin. Hamalau hileko ordainketei dagozkien honako zenbatekoak ezartzen dira: 4.000 euro administrazio-kontseilu batengatik eta 8.000 euro bi administrazio-kontseilurengatik edo gehiagorengatik. Politika Ekonomikoko eta Nazioarteko Ekonomiako eta Aurrekontuko zuzendaritza nagusietako titularrentzat –biak Ekonomia eta Ogasun Departamentukoak dira– 9.759,29 euroko zenbateko finko bat ezartzen da; bi kasu horietan, kalkulua egiteko metodoaren arabera, osagarriaren egiazko portzentajea ehuneko 17,65 da.

- Goi-kargudunek gizarte segurantzaren kotizazio pertsonala hartzen dute beren gain. Gobernu kideentzat, 1988ko azaroaren 30eko erabakiaren arabera, kostu hori Nafarroako aurrekontu orokorren kargura ordaintzen da. Alabaina, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen indarrez, urte horretako uztailaren 1etik aurrera, kotizazio hori nominatik deskontatzeko arau orokorra aplikatuko zaie; hala eta guztiz ere, egiaztatu da ezen, interesdunek berek eskatuta, deskontu hori egiazki 2012ko ekitaldi osoan egin dela.

- Kargua utzi ondorengo ordainsariak. Nafarroako Gobernu kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996



Foru Legea aldatzen duen ekainaren 21eko 12/2012 Foru Legeak<sup>24</sup> aldatu egiten du 2012ko abenduaren 28tik indarrean dauden kargua utzi ondorengo ordainsariei buruzko araubidea. Aldaketa nagusiak honakoei dagozkie:

- a) Kargua uzteko unean jasotzeko eskubidea zuten hileko ordainketa kentzen da.
- b) 2012ko abendura bitartean, kargua utzi ondorengo ordainsaria finkatzeko oinarria ziren urteko ordainketa bakoitzerako kargurako ezarritako ordainsariak; data horretatik aurrera, aldiz, kargua uzteko unean jasotzen ari zen ordainsarien urteko guztizkoa da oinarria, horren barne dela, beraz, berariazko osagarri berria.
- c) Nafarroako Gobernuaren Interneteko atarian argitaratuko dira goi kargu ohiek jasotako prestazio ekonomikoak.

2012an zehar, guztira, 35 pertsonak jaso dituzte, guztiz nahiz partzialki, kargua utzi ondorengo ordainsariak.

- Kargua uzteko unean eta kargua utzi ondorengo ordainsariak jasotzen ari diren bitartean gizarte aurreikuspeneko sistemarik ez duten goi karguek, hitzarmen berezi bat egin ahalko dute Gizarte Segurantzarekin, eta Administrazioaren kargura izanen dira horren ondoriozko kotizazioak, interesdunari behar den ordainketa eginez. 2012an, ordainketa horrek 129.912 euroko aurrekontu-gastua ekarri du.

- Goi karguen eta goi kargu ohien multzoak, gainerako langileek bezala, ez dute abenduan aparteko soldatarik jaso.

### VII.6.2. Kabineteko behin-behineko langileen ordainsariak

Kontusail honek 1,03 milioiko gastua izan du<sup>25</sup> 2012an, eta 2011rekin alderatuta ehuneko 23ko jaitsiera egon da. Jaitsiera horren arrazoia, funtsean, abenduko aparteko soldata ez ordaintzea izan da.

2012ko Aurrekontuei buruzko Foru Legeak, maila horretako arau batean lehenengo aldiz, Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren eta kontseilarien kabinetetako behin-behineko langileen ordainsariak, eta horrekin betetzen zen ganbera honetako txostenetan behin eta berriz jaso den gomendioa.

Kabineteei atxikitako pertsonak 31 dira, ia aurreko ekitaldian bezala.

Berariazko osagarriari dagokionez, behin-behineko lau langilek jasotzen dute, eta haien ordainsariak arestian aipatutako Gobernuaren 2012ko urtarrilaren 25eko erabakian jasota daude.

### VII.6.3. Langileen bestelako ordainsariak

Arlo honetako betetzea 13,2 milioikoa da. Hona xehakapena eta 2011rekiko alderaketa:

Langileen bestelako ordainsariak	2011	2012
Epaiak betetzea eta bestelako kalte-ordainak	2.933.825	6.181.820
Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren kalte-ordainak	4.540.316	-
Zerbitzuen aitortpenak, osagarri berriak, familia-laguntzak, gradua, antzinasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk.	1.753.857	4.355.800
Aurreko ekitaldietako langile-ordainsariak.	2.619.840	2.704.368
<b>18. artikulua, guztira</b>	<b>11.847.838</b>	<b>13.241.988</b>

<sup>24</sup> Indarrean sartzearekin batera, NAO-n argitaratu eta sei hilabetera. 2012ko ekainaren 28an argitaratu zen.

<sup>25</sup> Hala eta guztiz ere, antzeman da kabineteko kide baten ordainsariak oker egotzi zaizkiela “goi karguei”. Inguruabar hori doitu, behin-behineko langileen guztizko gastua 1,08 milioikoa da, eta 2011rekin alderatuta ehuneko 18 egin du behera.

2011rekiko aldaketa nagusiak sortzen dira bai urte horretan bukatu delako unibertsitatez besteko irakasleentzako Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan ezarritako erretiro aurreratuengatik saria, bai O-NOZeko langileen arrisku-osagarri buruzko epaiek dakarten gastuak gora egin duelako eta osagarri horiek bide administratiboan aitortu direlako.

Epaiek betetzearen arloan, 2012an sortutako gastuaren ehuneko 90 baino gehiago O-NOZen arriskuengatik epaietatik heldu dira, 5,6 milioiko atzerapenen zenbateko batengatik. Guztira, 1.351 langileri dagokie. 2013an, erakunde autonomoan berriazko kontusail bat zabaldu da gastu horiek erregistratzeko. 2013an, kontusail horren kreditua -0,4 milioi- agortu zen. Hori dela eta, data horretatik aurrera ez da inolako zenbatekorik egotzi. Ezin da betetzeko dauden arriskuengatik epaien kopurua jakin, ez eta haien kostu osoa ere, baina 2013an epaien eritmoak behera egin du nabarmen.

Zerbitzuen, osagarri berrien eta abarren aitopenaren kontusailean, O-NOZen lanbide karrerako atzerapenak eta bide administratiboko bestelako aitopenak jasotzen dira. Haren guztizko zenbatekotik, nabarmendu behar dugu 3,1 milioiko kopurua, arriskuen osagarritik heldu dena, bai eta 1,2 milioiko beste kopuru bat ere, lanbide-karreratik heldu dena. Ez da kontabilitatez kanpoko erregistrorik jaso, kontzeptu horiei buruzko jarraipena eta alderaketa egin ahal izateko.

Aurreko ekitaldietako ordainsarien kontusaila 2011n sortu zen, eta aurreko ekitaldietan sortu eta urte horretako nominan ordaintzen diren ordainsariak jasotzen ditu.

#### VII.6.4. Foru Komunitateko Administrazio funtzionarioen montepioa

2012ko aurrekontuaren betetzeak eta haren 2008tik aurrerako bilakaerak honako kopuruak jasotzen dituzte Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Montepiotik<sup>26</sup>, Udalen Montepio Orokorretik eta Iruñeko, Tuterako eta Tafallako montepioetatik heldutako gastu eta diru-sarrerari buruz (euroak, milakotan):

Foru Komunitateko administrazioaren montepioa.

1. kapitulua, guztira	2008	2009	2010	2011	2012
Funtzionarioen pentsio arruntak	54.245	57.526	61.104	66.517	70.761
Aparteko pentsioak	93	74	69	71	84
Erretiro aurreratuengatik kalte-ordainak	120	66	51	44	24
<b>Gastua, guztira</b>	<b>54.458</b>	<b>57.666</b>	<b>61.224</b>	<b>66.632</b>	<b>70.869</b>
3. kapituluko diru-sarrerak	2008	2009	2010	2011	2012
Eskubide pasiboengatik kuotak	4.147	3.732	4.206	3.418	3.128

#### Udalen Montepio Orokorra

Udalen Montepio Orokorren gastuak	2008	2009	2010	2011	2012
8. kapitulua. Udaletako funtzionarioen montepioaren kudeaketa	19.104	18.757	18.510	19.039	18.535
4. kapitulua. Toki entitateei egindako transferentziak, udalen montepio orokorra finantzatzeko <sup>(1)</sup>	6.197	6.552	6.432	6.353	6.552
Udalen Montepio Orokorren diru-sarrerak	2008	2009	2010	2011	2012
8. kapitulua. Udaletako funtzionarioen montepioaren kudeaketa	18.109	19.094	18.731	18.480	18.992

(1) Nafarroako Gobernuarentzako gastu efektiboa

<sup>26</sup> Hartzen dituzte bai aurrez araututako sistemak -antzinako sistema-, bai Nafarroako administrazio publiko-etako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean araututakoak.

## Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udaletako montepioak

Transferentzia arruntengatiko gastuak	2008	2009	2010	2011	2012
Iruñeko Udala	4.882	5.469	6.047	6.531	7.324
Tuterako Udala	349	374	374	377	380
Tafallako Udala	185	266	239	225	250
Udalen montepioei egindako transferentziak, guztira	5.416	6.109	6.660	7.133	7.954

Aurreko taulei erreparatuta, honakoa zehaztu behar dugu:

a) Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioa. Pentsio arrunten kontusailak jasotzen ditu funtzionario pasiboari ordaindutako pentsioengatiko nominak; aparteko pentsioek berezitasun batzuk dauzkaten pentsio batzuk jasotzen dituzte –zortzi 2012an eta aukeran eman daitezkeenak –bi 2012an–; erretiro aurreratuengatiko kalte-ordainek ezintasunarengatiko erretiro-pentsioen subsidio osagarria biltzen dute. Diru-sarrerara horiek nominan egindako deskontuak islatzen dituzte, Montepioari atxikita egon eta jardunean dauden funtzionarioek ordaintzen dituzten esku-bide pasiboen kuoten kontzeptua dela eta.

b) Udalen Montepio Orokorra. Gastuen 8. kapituluko kontusailean, Nafarroako Gobernuak montepio horretako funtzionario erretiratuei zuzenean ordaindutako nomina jasotzen da; kapitulu horretako diru-sarreraren kontusailak, berriz, udalek nomina horiengatik egindako ordainketa eta, horrekin batera, funtsean, familia-laguntza eta funtzionarioei montepio horren aktiboan atxikitako eskubide pasiboen kuotak jasotzen ditu. Transferentziengatiko gastuen kontusailak Nafarroako Gobernuak egindako ekarpena jasotzen du, montepio horren finantzaketara bideratua.

c) Iruñeko, Tuterako eta Tafallako montepioak. Transferentziengatiko gastuen kontusailak Nafarroako Gobernuak egindako ekarpena jasotzen du, montepio horien finantzaketara bideratua.

d) Zehaztu beharra dago montepioen finantzaketa heldu dela jarduneko afiliatuei nominan atxikitako kuotetatik eta entitateek pentsioak ordaintzeko dauzkaten aurrekontu orokorretatik. Gizarte Segurantzaren sisteman ez bezala, ez dago “enpresa-kuotarik”.

Hurrengo tauletan erakusten da, 2012ko abenduaren 31ko datarekin, zein den montepioei atxikitako jarduneko eta pasiboen guztizko kopurua, bai eta jasotako pentsioen tipologia ere.

Montepioak: jarduneko eta pasiboen kopurua 2012ko abenduaren 31n.

Montepioak	Jardunekoak			Pentsiodunak		
	Guztira Jardunekoak	Sistema berria	Sistema zaharra	Guztira Pentsiodunak	Sistema berria	Sistema zaharra
Foru Komunitateko	1.747	1.549	198	3.203	1.321	1.882
Montepio Orokorra	240	235	5	959	210	749
Iruña	307	274	33	935	262	673
Tutera	59	45	14	84	28	56
Tafalla	17	16	1	46	13	33
Guztira	2.370	2.119	251	5.227	1.834	3.393

## Montepioak. Pentsiodunak 2012ko abenduaren 31n, pentsio motaren arabera

Pentsio mota	Guztira	Montepioak				
		Foru Komunitateko Administrazioa	Udalen montepioa	Iruña	Tutera	Tafalla
Erretiroa	2.542	1.591	321	556	52	22
Baliaezintasunarengatiko erretiroa	697	581	116			
Alarguntasuna	1.396	718	350	284	26	18
Alarguntasuna-zurztasuna	66	46	20			
Zurztasuna	473	215	151	95	6	6
Egonkortua	41	40	1			
Albokoa	7	7				
Berezia	4	4				
Senideen aldekoa	1	1				
<b>Guztira</b>	<b>5.227</b>	<b>3.203</b>	<b>959</b>	<b>935</b>	<b>84</b>	<b>46</b>

Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioan zentratuta (aurrerantzean, Montepioa), hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den 2008tik 2012ra izan den bilakaera jarduneko afiliatuen zein afiliatu pasiboen kopuruan, zein den 2012ko abenduaren 31n pasiboen egora, pentsio motaren arabera, eta pasiboen zenbat alta eman diren 2012an.

## Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioa. 2008-2012 bilakaera.

Ekitaldia	Jardunekoak	Adierazlea	Pentsiodunak	Adierazlea
2008	2.420	100	2.771	100
2009	2.294	95	2.842	103
2010	2.122	88	2.942	106
2011	1.963	81	3.040	110
2012	1.747	72	3.203	116

Logikoa den bezala, aktiboen kopuruak behera egin du, sistemak 1992an atek itxi baitzizkien afiliazio berriei; Montepioko pentsiodunen kopuruak, aldiz, gora egiten du.

## Foru Komunitateko Administrazioaren Montepioa. 2012ko abenduaren 31ko pasiboen egoera, pentsio motaren arabera.

2012ko pasiboak, pentsio motaren arabera	Guztira	Sistema berria	Sistema zaharra
Erretiroa	1.591	950	641
Baliaezintasun handiarengatiko erretiroa	5	5	0
Ohiko lanerako guztiko ezintasunarengatiko erretiroa	309	124	185
Lan orotarako ezintasun osoarengatiko erretiroa	267	124	143
Alarguntasuna	718	103	615
Zurztasuna	215	14	201
Alarguntasuna-zurztasuna	46	-	46
Alboko pentsioa	7	-	7
Pentsio berezia	4	-	4
Pentsio egonkortua	40	-	40
Senideentzako pentsioak	1	1	-
<b>Guztira</b>	<b>3.203</b>	<b>1.321</b>	<b>1.882</b>

## Foru Komunitateko Administrazioako funtzionarioen Montepioko 2012ko altak

2012ko altak, pentsio motaren arabera	Guztira	Sistema berria	Sistema zaharra
Erretiroa	206	163	43
Ezintasunaren ondoriozko erretiroa	10	8	2
Baliazintasun handia.	0	0	0
Ohiko lanbiderako ezintasun osoa	5	3	2
Lan orotarako ezintasun osoa	5	5	0
Alarguntasuna	31	8	23
Zurztasuna	3	0	3
<b>Altak, guztira</b>	<b>250</b>	<b>179</b>	<b>71</b>

Hau da, 2012an, guztira, jardunean zeuden 216 funtzionarioek hartu zuten erretiroa; horietatik, ehuneko 78k beren borondatez hartu zuten erretiroa.

Alten multzoa dela eta, laginketa bat egin dugu, araudia zuzen aplikatu den egiaztatze aldera. Lortutako ondorioak adierazten du laginketan sartutako ia langile guztiek horretarako behar diren baldintzak betetzen dituztela; eta bai pentsioaren zenbatekoa, bai prestazio ekonomikoa sortu zeneko data, bai eta ordainketaren aldizkakotasuna ere, aipatutako araudian ezarritakoaren arabera dira. Hala eta guztiz ere, esan beharra daukagu ezen, 10/2003 Foru Legearen arabera, pentsioen eragin ekonomikoa pasibo-egoeran sartu eta hurrengo hilabetean sortzen direla; hala eta guztiz ere, ikusten dugu ezen, erretirora zerbitzu berezien egoeran iristen diren funtzionarioentzat, aurreratu egiten dela pentsioaren sortzapena erretiroa sortzen deneko hilabeteko egun zehatzera.

Azterlan hori 2006an hasi zen, eta, horrenbestez, urte hartatik 2012ra arteko datuak errealak dira. Gainerako urteetarako, egindako kalkulua oinarrituta dago aurreko urteetan antzemandako jokabideen arabera finkatutako aldagai batzuetan; aldagai horiek, funtsean, honakoak dira: pentsioa zein adinetan hasten den eta zein urtetan amaitzen den eta zenbatekoa den batez besteko erretiro-pentsioa. Aldagai horien arabera, pentsioengatiko urteko kostua finkatzen da, euro konstanteetan, 2013tik 2087ra arteko aldirako; izan ere, 2087a izanzen da, kalkulaturakoaren arabera, Montepioko gastua sortuko duen azken urtea.

Azterlanean ikusten da goranzko joera bat badagoela, bai onuradunen kopuruan (pentsiodunak eta gainerako onuradunak), bai pentsioen kostuan, 2026ra arte; izan ere, urte horretarako aurreikusten da kosturik handiena, 88,9 milioi euro konstanterena; 2035a izanzen da sistemako azken jarduneko langileak erretiroa hartuko duen azken urtea; 2058an kalkulatu da ez dela jada pentsiodunik batere izanen, eta aurreikusitako 1,3 milioi euroko gastua sortuko da, soilik, pentsioa sortu duten 81 onuradunengatik; horietatik, ehuneko 78 hurrengo bost urteetan desagertuko dira, eta pentsioengatiko gastuak nabarmen egiten du behera. 2066tik 2087ra, kalkulaturako gastua urteko ehun mila euro baino txikiagoa da.

Azterlan horren arabera, 2087ra arte kalkulaturako guztizko kostua 2.785,64 euro konstante-rena da. Zenbateko horretatik, ehuneko 77 pentsiodunei dagokie eta ehuneko 23 gainerako onuradunei.

Ikusita nolako lotura duen Montepioko pentsioen sistema berriak Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren printzipio eta irizpide orokorrekin, azken horretan une hauetan planteatutako erreformak aipatzeko moduko eragina izan dezake aurreko zenbatekoetan.

#### VII.7. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

Kapitulu honetako 2012ko gastua 555,2 milioikoa izan da, eta ehuneko 8 egin du gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Igoera hori, halere, funtsean etorri da 2012ko aurrekontuari aurreko ekitaldiko gastuak egoztetik; gastu horiek, izan ere, ez ziren erregistratu 28,3 milioiko kreditua falta zelako edo kreditua blokeatu zelako. Aurreko datu guztiak doituz gero, kapituluaren ehuneko hiruko jaitsiera izan da, 2011ko gastuarekin alderatuta.

Egindako lana egin eta gero, hona esan nahi duguna:

- Lankidetzaren publiko-privatuaren bidez edo itzalek bidesariaren bidez egindako obregatikoko kanona.

2012an, lehenengo aldiz egotzi zen Pirinioetako autobien kanona<sup>27</sup>, zeinak 13,14 milioiko gastua ekarri baitu ekitaldi horretarako.

Itzaleko bidesariengatikoko kanonaren kontzeptu horren barruan sartzen dira Done Jakue Bideko autobien eta aipatutako Pirinioetako autobien. Nafarroako Ubideko ureztalurretan egindako obren kanona INTIA enpresa publikoari egindako transferentzia arrunten kontusailaren barruan erregistratzen da.

Kanon horien zenbatekoa, 2010etik 2012ra, hurrengo taulan islatzen duguna da:

Itzaleko bidesariaren kanona	2010	2011	2012
Done Jakue Bideko autobia	37.694.454	39.902.837	40.120.184
Pirinioetako autobia	-	-	13.139.623
Nafarroako Ubideko ureztalurrak	6.256.163	10.025.301	14.157.241
<b>Itzaleko bidesarien kanona, guztira</b>	<b>43.950.617</b>	<b>49.928.138</b>	<b>67.417.048</b>

Ureztalurren kanonak gora egitearen arrazoia da ureztatze-sisteman sartu diren hektarea kopuruak gora egin duela; izan ere, 14.856 izatetik 22.370 izatera pasa dira.

Hemendik gutxira, Kontuen Ganberak berariazko txosten bat emanen du itzaleko bidesarien gastuaren fiskalizazioari buruz.

- Osasun itunak.

2012an, 63,7 milioiko gastua dute; hau da, 2011n baino ehuneko 12 gehiago.

Gora egite horren xehetasunak argitu beharrekoak dira, halere, zeren eta 2012ko aurrekontuak aurreko urteko 7,5 milioiko gastua jasotzen baitu. Bi aurrekontuetako zenbatekoak doituz gero, 2012ko gastu erreala 56,2 milioikoa izanen da, hau da, 2011ko gastu erreala baino ehuneko 11 txikiagoa.

<sup>27</sup> Trafikorako guztiz irekia 2012ko urtarrilaren 15ean.

Saldoa hornitzaileen arabera xehakatuta, honakoa aurkitzen dugu:

Hornitzailea	2011ko gastua, 2012an egotzia	2012an sortutako gastua	2012an betetakoa, guztira
Nafarroako Unibertsitatea	5.582.773	18.776.972	24.359.744
San Juan de Dios		19.648.940	19.648.940
San Miguel Klinika	238.458	3.969.187	4.207.645
Gasmedi 2000 SA	402.916	2.622.286	3.025.202
HH HH SCJ Iruña	162.619	1.943.498	2.106.117
HH HH SCJ Elizondo	59.848	707.764	767.612
Aho-hortzetako laguntza	244.494	2.372.539	2.617.033
ARFE Fundazioa	195.202	1.137.100	1.332.302
Argibide Fundazioa	2.163	1.177.662	1.179.825
Baxter SL	82.166	890.520	972.686
Alliance Medical Diagnósticos S.L.	405.949	293.386	699.335
Resonancia Magnética SA	34.747	384.888	419.634
Cannaregio SL	1.400	352.360	353.760
ACOAD Laguntza Zerbitzuetako Elkarte		334.812	334.812
José Carreras Fundazioa	5.863	307.423	313.286
C. Diagnóstico Radiológico de Navarra SL		294.035	294.035
C. Diagnóstico Granada SL		284.275	284.275
Irunberriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea		226.844	226.844
Beste zentro batzuk	79.346	458.964	538.310
<b>Itunak, guztira</b>	<b>7.497.943</b>	<b>56.183.454</b>	<b>63.681.396</b>

Nafarroako Unibertsitatea, San Juan de Dios Ospitalea eta San Miguel Klinika dira 2012ko aurrekontuari egotzitako gastuaren ehuneko 76 justifikatzen dutenak.

Nafarroako Unibertsitateak, 24,36 milioirekin –itunen guztizkoaren ehuneko 38– honakoak ditu itunduak: osasun sistema publikotik deribatutako gaixoen osasun laguntza (12 milioi), beren langileentzako osasun prestazioa (5,8 milioi) eta organoen transplanteetarako zerbitzua (6,6 milioi).

San Juan de Dios Klinikak, 19,6 milioirekin –guztizkoaren ehuneko 31– eta San Miguel Klinikak, 4,2 milioirekin –guztizkoaren ehuneko 7– funtsean osasun sistema publikotik deribatutako gaixoei osasun laguntza ematen dihardute.

Halaber, nabarmentzekoa da osasun mentaleko laguntzarako zerbitzua, funtsean hiru zentroetan ematen dena: Ahizpa Ospitalariak (Iruñean eta Elizondon daukate zentroak), ARFE Fundazioa (Josefina Arregui zentroa) eta Argibide Fundazioa. Batera hartuta, itundutako kopurua 5,4 milioikoa da –guztizkoaren ehuneko 8–.

Azkenik, adierazi beharra daukagu itunen kontusail honek aurrekontu-aldaketa batzuk izan dituela hasierako kredituekin alderatuta. Aldaketa horien artean, nabarmentzekoa da Nafarroako Unibertsitatearentzako 4,3 milioiko diru-laguntza baten itzulketatik heldu diren diru-sarreraren bidez finantzatutako bat. (Ikus VII.8 atala)

Azkenik, gure lanaren osagarri, Nafarroako Gobernu Kontu-hartzaitzak finantza-kontrol iraunkorreko lan bat egin du "Aldez aurretiko kontu-hartzaitzetatik salbuetsitako 2012ko gastu eta kontratu txikiei buruz". Gastu horiek funtsean 2. kapitulu honi dagozkio, nahiz eta inbertsioen 6. kapituluko gastuak ere hartzen dituen. Guztira 530 espediente aztertuta, aldeko iritzia bat ematen da haiek aplikatzeko den araudiari eta lanaren helburuei egokitzeari dagokionez. Hala eta guztiz ere, antzematen dute ezen zenbait kasutan, hobetu daitezkeen alderdi batzuk badaudela. Honela laburbil daitezke: faktura batzuek aurreko ekitaldiko data daukate; ez da aginduzkoa den kreditu-erreseerbarik egiten; kode ekonomiko egokiagoa dago gastuak aurrekontuari egozteko; eta kasu guztietan ez da lizitazio prozedurarik izapidetu, gastuaren urteko zenbatekoak horixe eskatzen duenean.

### VII.8. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO GASTUAK

2012an emandako transferentzia arruntek 1.392,1 milioi euro egin zuten, ehuneko 97ko bete-tze-mailarekin. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 38 egiten dute. 2011rekin alde-ratuta<sup>28</sup>, gastu horrek ehuneko bat egin du behera –hau da, 7,5 milioi txikiagoa da–; artikularen arabera, nabarmentzekoa da enpresa publikoei bideratutakoek behera egin dutela –ehuneko 12, hau da, 11 milioi gutxiago–, eta, bereziki, familientzako eta irabazi asmorik gabeko erakundeent-zako gastuak izandako jaitsiera –ehuneko lau gutxiago; hau da, 21 milioi gutxiago–. Estatuari Hitzarmen Ekonomikoa dela-eta egiten zaion ekarpena 520,7 eurokoa da –hau da, kapituluaren ehuneko 37–, eta 2011rekin alderatuta, ehuneko 5eko igoera izan da.

2012an emandako kapital transferentziek 241,3 euro egin zuten, ehuneko 83 betetzearekin; guztira aitortutako betebeharrak ehuneko 7 egiten dute. 2011rekin alderatuta<sup>29</sup>, ehuneko zortzi egin dute gora –hau da, 18 milioi–; artikulua guztiek gora egin dute, salbu eta fundazioei bideratu-takoek. Nabarmentzekoa da, halaber, honakoek izandako igoera: enpresa publikoek –ehuneko 22– eta toki entitateek –ehuneko 17–.

Toki entitateentzako kapital transferentzietan dagokienez, hurrengo taulan ikusten dugu zein izan den haren bilakaera azken hiru urteetan.

Toki entitateentzako kapital-transferentziak.	Hasierako kreditua	Bateratua	Aitortutako betebeharrak	Betetzearen ehuneko
<b>7600 Kapital-transferentzien funtsa</b>				
2012	36.914	43.062	32.734	76
2011	59.042	63.044	13.661	22
2010	57.602	57.602	53.076	92
2012/2010 aldaketa, ehunekotan	-36	-25	-38	
<b>7609 Bestelako kapital-transferentziak</b>				
2012	19.252	18.963	12.960	68
2011	30.350	33.086	25.251	76
2010	62.635	56.852	48.560	85
2012/2010 aldaketa, ehunekotan	-69	-67	-73	

Kapital Transferentzien Funtsean zentratuta, honakoa zehaztu beharra dago:

- 2011ko azarora arte, funtsaren erregulazioak ezartzen zuen kasuko betebeharrak aitortutako egiteko zain egon eta erabilia zen kreditua (AD fasea) ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31n aitortutako betebeharrak gisa hartuko litzatekeela.

- 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan Parte Hartzeko Funtsean zenbatekoa aldatzen duen azaroaren 30eko 18/2011 Foru Legea aldarrikatzearekin, kapital-transferentzietarako funtsaren lehenagoko kontabilitate-irizpidea aldatzen da, eta ezartzen da kontabilitate-egozpena ordainketa-aurreikuspenen arabera eginen dela eta bete ez diren kredituak diruzaintzako gerakin atxikitzen joko direla.

- 2012ko abenduaren 31n, funtseko eragiketen guztizkoak ukitutako diruzaintza-gerakina, bai ekitaldi horretakoa bai itxitako ekitaldietakoa, 96,85 milioikoa zen; 2011koa, aldiz, 90,14 eurokoa izan zen.

Hitzarmenaz gainera –ikus VII.9 atala–, 2012an emandako transferentzia arruntak eta kapital-transferentzien hurrengo lagina aztertu dugu (euroak, milakotan):

<sup>28</sup> Gastu fiskalik gabe.

<sup>29</sup> Gastu fiskalik gabe.



Kontzeptua	Transferentzia arruntak	Kapital-transf.
Farmazia-prestazioak	147.714	
Iruñerriko garraio publikorako ekarpena	7.330	
Kirol entitate eta klubentzako diru-laguntzak	2.989	
Federazio eta teknifikazio zentroentzako diru-laguntzak	2.558	
Enplegarritasuna eta gizarteratzea hobetzeko osagarria	2.103	
Entitate artistiko eta kulturalekiko hitzarmenak	1.441	
Oteiza Fundazioaren Etxe-Museoa. Funtzionamendu gastuak.	902	
Lekarozko Erabilera Anitzeko Zentroa		4.915
Zentro Teknologikoen finkapena		2.144
Nafarroako Unibertsitatea-Ikerketa eta teknologia zentro berriak		888

Halaber, diru-sarreretan diru-laguntzen eta transferentzien itzulketa gisa erregistratutako eragiketen izaera aztertu da.

Egjaztatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimendu, fiskalizatu, justifikatu eta kontabilizatu direla eta diru-laguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu direla.

Ondoren lagin hori aztertu ondoren ateratako ondorio nagusiak zehazten ditugu:

- Farmazia-prestazioak:

Aurreko urtearekin alderatuta aurrekontu-gastuak ehuneko bi gora egin duen arren, igoera horri heldu da, funtsean, 2011ko ekitaldiko gastuak egoztetik. Hartara, hurrengo taulan 2008tik 2012ra aurrekontu-gastuak izan duen bilakaera erakusten du, bai eta kontusail horri dagokion betetzearen berezko gastuaren bilakaera ere.

Ekitaldia	Betebeharrak	Aldaketaren ehunekoa, aurreko urtearekin alderatuta	Ekitaldiko berezko gastua	Aldaketaren ehunekoa, aurreko urtearekin alderatuta
2008	160.868.647		161.889.555	
2009	169.588.475	5	169.937.438	5
2010	166.343.761	-2	165.759.318	-2
2011	144.590.041	-13	154.119.266	-7
2012	147.713.715	2	134.535.481	-13

2012an farmazia-gastuan aurrezteko neurrien multzo bat ezartzeak (funtsean, koordainketa farmazeutikoak gora egitea, farmako batzuk finantzaketa publikotik kanpora ateratzea eta generikoen nahitaezko preskripzioa) gastu-murrizketa hori justifikatzen dute.

Horrek berarekin ekarri du, gainera, sare publikoak finantzatzen dituen errezeta-kopuruak behera egitea. Hartara, 2011n, kopuru hori 12,32 milioi errezetakoa izan zen; 2012an, aldiz, 11,71 milioi errezeta izan ziren; hau da, ehuneko bost gutxiago.

• Iruñerriko garraio publikorako ekarpena. Zerbitzu hori Iruñerriko Mankomunitatearen eskumena da.

2012an, 7,33 milioi euroko gastua dauka –ehuneko zortzi gehiago 2011n baino–, bi kontusailetan xehakaturik: eskualdeko garraiorako ekarpena, 6,93 milioikoa, eta garraio horretarako ekarpena, familia ugari zuzendutakoa, 0,4 milioikoa.

Bigarren kontusailak islatzen du zein den familia ugari aplikatutako tarifek sortzen duten defizita, zeina Nafarroako Gobernuak ordaintzen baitu guztiz. 2013ko ekainean, kopuru hori erregularizatzeari ekin zaio, gastu errealari egokitze aldera. Horren ondorioz, Mankomunitateak 63.765 euroko kopurua itzuli du.

Lehenengo kontusailak jasotzen du Nafarroako Gobernuak eskualdeko garraio publikoaren sarearen ustiaketa-defizita finantzatzeko egiten duen ekarpena, 2011-2012 urteetan indarra duen Iruñerriko Hiri Garraioaren Planeari ezarritakoaren arabera.

Plan horri jarraituz, kostuen aurreikuspena, bi urteetarako, 65,5 milioikoa da. Honako bidez finantzatzen dira: tarifen bidezko diru-sarrerak: ehuneko 58; Nafarroako Gobernuaren ekarpena: ehuneko 21,53; eskualdeko udalen ekarpenak: ehuneko 15,56; eta gainerakoa, beste diru-sarrera batzuen bidez, bereziki, aurreko ekitaldietako gaindikinarekin bidez.

Planak bere indarraldia luzatu du hurrengo onetsi arte. Izan ere, hurrengo plan hori prestatzen ari da une honetan. Plan berri horrek jasoko du bai zerbitzuen, bai araubide ekonomiko eta finantzarioaren berrazterketa.

2012ko ekitaldiko Iruñerriko hiri garraio publikoaren kudeaketaren gaineko txostenetik, bi alderdi azpimarratu nahi ditugu:

- Bidaiarien kopuruak ehuneko 4,70 egin du behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

- 2012ko aurrekontu-defizita 2,36 milioikoa da. Defizit hori aurreko urteetan metatutako superabitarekin finantzatu da; metatutako emaitza erreala, 2012an, negatiboa da, hain zuzen ere 151.644 eurokoa.

- Aurreko ekitaldietako gerakinak agortu dira.

- Kirol entitate eta klubentzako diru-laguntzak.

3,2 milioi euroko hasierako aurrekontuak, Nafarroako Gobernuak aplikatutako aurrekontu-doikuntzaren bidez, 0,2 milioi jaitsi da. Aitortutako gastua 2,99 milioikoa da, 2011koa baino ehuneko 50 handiagoa. Izan ere, urte horretan, egindako aurrekontu-doikuntza tarteko, ez zen halako laguntzetarako deialdi publikorik egin.

Guztira 151 kirol entitateri eman zaizkie diru-laguntzak; horietatik, 12k gastuaren ehuneko 62 hartzen dute. Hamabi entitate horiek 0,1 milioi baino gehiago jasotzen dute. Kopururik handiena, 0,23 milioikoa, Basket Navarra klubak hartzen du.

Oro har, ez da diruz lagun daitezkeen gastuen egiaztagiri edo fakturarik aurkezten, baizik eta egindako gastu guztien eta jasotako diru-sarrera guztien egiaztatze-kontu bat.

- Nafarroako kirol federazioentzako diru-laguntzak.

Deialdi publiko bidez eta banakako ebaluazioaren prozedura erabiliz, diru-laguntzak eman zaizkie, guztira, 42 kirol federazio eta teknifikazio zentrori. 2,6 milioi izan dira, 2011ko gastua baino ehuneko hiru gehiago.

Kontusailaren ehuneko 45 zazpi federazio diruz laguntzeko erabiltzen da, 0,1 milioiko kopuru-ekin; horien barrenean, Pilota Federazioa da diru gehien jasotzen duena, 0,37 milioi hain zuzen ere.

Exijitutako egiaztagirien barruan, federazioaren kontabilitate-plan orokorreko kontuen xehakapena edo liburu nagusia aurkezten dute, egindako jarduketan azterketa-xehetasunekin, diru-sarrerak eta gastuak xehakaturik.

2013an, deialdi horren oinarriak aldatu dira; honakoak izan dira egindako aldaketa garrantzitsuenak: balorazio batzorde bat sortu da; zenbatekoaren arabera mailakatzeko duten moduluak aplikatu dira txapelketa ofizialak diruz laguntzeko, eta emate-baremoaren irizpide orokorrak aldatu dira (aurreko deialdian emandako zenbatekoaren ehuneko 50, eta ehuneko beste 50a deialdi berriko irizpideen arabera).

- Enplegarritasuna eta gizarteratzea hobetzeko osagarria.

Kontusail hori 2012an sortu zen, 11 milioiko hasierako zuzkidurarekin. 2012ko aurrekontuaren oroitidazkiaren arabera, bizirauteko bitartekorik gabeko familia nafarrentzako laguntzaren –hau da, oinarritzko errentaren– osagarri gisa sortu zen, bermatu gabeko prestazio gisa. Gutxitzen joan da bederatzi milioiko aurrekontu-aldaketan bitartez. Diru hori aipatutako oinarritzko errentaren kontusailera aldatu dira. Sinatutako lan kontratu bakoitzeko, 4.214 euroko (toki entitateek eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuek izapidetutako kontratuen kasuan) eta 3.848 euroko (en-

presa pribatuen kasuan) diru-laguntzak eman dira. Guztira, 105 izan ziren diru-laguntza hartu zutenak, eta gastua 2,1 milioikoa izan zen; horretatik, ehuneko 83 toki entitateen bitartez izapidetu da.

- Entitate artistiko eta kulturalerako hitzarmenak.

1,44 milioiko gastuarekin, 2012an lehia askearen prozedura erabili zen entitate horientzako deialdi baten bitartez, lehenago nagusi ziren kontusail izendunen eredia erabili beharrean.

2012ko deialdira, guztira 47 entitate aurkeztu ziren. Horietatik 14 entitatek jaso zuten diru-laguntza; hau da, aurkeztutakoen ehuneko 30ek. Onuradun batek gehienez ere jaso dezakeen zenbatekoak ezin du gainditu kontusaileko kredituaren ehuneko 20a, ez eta onetsitako proiektuaren kostuaren ehuneko 70a ere.

Hurrengo taulan erakusten dugu zein diren entitate horiek eta zenbateko kopuruak jaso dituzten:

Onuraduna	Diru-laguntza	Ehuneko, guztizkoaren
Operaren Lagunak Gayarre Elkartea.	280.257	19
Nafarroako Antzerki Eskola	273.876	19
Nafarroako Ganbera Opera Elkartea	249.800	17
Iruñeko Ganbera Abesbatza Elkartea	207.350	14
Nafarroako Ganbera Abesbatza	125.000	9
Nafarroako Musikaren eta Arteen Foroa	75.567	5
Nafarroako Abesbatzen Federazioa.	72.812	5
Nafarroako Antzerki Amateurraren Federazioa	30.502	2
ATENA Fundazioa	30.000	2
Oreka Nafarroako Zirko Eskola	28.811	2
El Tajador Gazte Elkartea	25.428	2
Hierba Roja-Belar Gorria Konpainia	20.099	1
El Vértigo Kultur Elkartea	15.298	1
Nafarroako Dantzaren aldeko Elkartea	6.500	-
<b>Entitate artistiko eta kulturalak, guztira</b>	<b>1.441.300</b>	<b>100</b>

Nahiz eta oinarri arautzaileek adierazten duten entitate onuradunek egindako gastuaren egiaztagiriak aurkeztu behar dituztela (jatorrizkoak nahiz kopia konpultsatua), aztertutako hitzarmenek horri buruz diote egindako gastuen zerrenda xehea aurkeztuko dutela; halaber, hitzarmen horietan, baldintza gisa gehitzen da, eta horrelaxe osatzen da, diru-laguntzako 100.000 euroko zenbatekoa gainditzen duten entitateek beren urteko kontuak ikuskatuta aurkeztu behar dituztela.

- Oteiza Fundazioaren Etxe-Museoaren funtzionamendu gastuengatik diru-laguntza.

0,9 milioiko gastua du. Betetze-maila, berriz, ehuneko 87koa da. Ehuneko hori sortu da Nafarroako Gobernuak aplikatutako aurrekontuan izandako doikuntzarengatik; izan ere, diru-laguntzaren kreditua 0,13 milioitan jaitsi zen, horretarako Fundazioarekiko hitzarmena aldatuta. 2011rekin alderatuta, 2012ko gastua ehuneko 23 txikiagoa da.

Egindako lanetik azpimarratzen dugu Museo Zerbitzuak azterketa zorrotza egin duela Fundazioak aurkeztutako urteko gastu eta kontu ikuskatuen ziurtagiriei buruz. Halaber, esan beharra dago Fundazioaren diru-sarreraren ehuneko 90 diru-laguntza horretatik heldu direla.

- Lekarozko Erabilera Anitzeko Zentroa.

4,9 milioiko gastua du, CEIN enpresa publikoari emandako kapitaleko diru-laguntza batetik. Diru-laguntza horren xedea da Lekarozko Erabilera Anitzeko Zentroa izeneko ekimen kultural, hezkuntzako eta ekonomikoetarako esparrua garatzen jarraitzea.

Zuzeneko diru-laguntza hori Gobernuaren eta CEIN enpresaren artean sinatutako hitzarmen batean du babesa, horrek ezartzen baitu haren araubidea. Enpresa horrek dauzkan diruzaintzako zailtasunen ondorioz, aurreikusita dago diru-laguntzaren ordainketa partzialak egitea enpresak obren esleipen-hartzaileei kasuko ziurtagiriak ordaindu baino lehen. Diru-laguntza honekin, amaitutzat ematen dira aipatutako zentroko hasierako garapenerako aurreikusitako obrak.

Honakoak dira Lekarozko jardueraren aurrekariak eta egungo egoera, laburbilduta.

Lekarozko Zentroa Nafarroa 2012 Planean sartutako proiektuen multzo bat da, zeinek helburu baitute erabilera anitzeko zentro bat garatzea. Horretarako, 12 milioiko gastu-aurreikuspenak daude. Proiektu hori interes sozialekotzat jotzen da, eskualdeko jarduera dinamizatzeko daukan gaitasuna dela eta.

Lanak 2009ko martxoaren 2an hasi ziren, Nafarroako Gobernuak, Baztango Udalak eta Lekarozko Ikasle Ohien Elkarteak lankidetzara hitzarmena sinatuta. Hitzarmen horren arabera, Gobernuak bere gain hartzen ditu hura garatzeko behar diren lan guztiak (aukeren azterlana, diseinu orokorra, eraikuntza proiektua, obrak egitea eta kudeaketa).

Proiektuak, ideia-lehiaketa bat egin ondoren aukeratu zenak, jasotzen du enpresa-campus bat eraikitzea, 120.868 m<sup>2</sup>-ko esparru bat berrurbanizatuz –bertan, 34.000 m<sup>2</sup> bitarte eraiki ahal izatea aurreikusten da–. Campus horrek, bere ezaugarriak direla eta, berdegune handiak eta dentsitate txikia izanen ditu. Gainera, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideak sortzea aurreikusten da.

Proposatutako ekintzak hiru dira, funtsean: elizaren ingurunea berreraikitzea, harrera-gune gisa; antzinako baratzeak enpresa-parke bilakatzea, hirugarren erabilerrako; eta antzinako ukuluen ingurunea berrurbanizatzea bertan hizkuntza-murgiltze zentro bat ezartze aldera.

Hasiera batean, proiektua Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A.k (SPRIN) kudeatu zuen.

Espedientean –haren dokumentazioa Enpresa eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak bildu du– “2010eko abuztuko Bideragarritasun Plana” jasotzen da, SPRINen anagramarekin, non honakoa azpimarratu behar baitugu:

a) Lekarozko ekimenaren helburua: SPRIN sozietatearentzat berarentzat errentagarritasun ekonomiko bat lortzea, lursailak eta eraikinak saltzearen eta errentan ematearen bitartez.

b) Jarduketa proiektuaren ezaugarriak:

- Hezkuntza-arloan, Hizkuntza-murgiltze Zentroa.

- Goi mailako jarduera ekonomikoen esparruan, hiru jarduketa nabarmentzen ditugu: 3.000 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia duen eraikin bat egitea, zeinaren hasierako erabilera izanen baita prestakuntza jarduerak hartzea –hasiera batean, erosteko aukera biltzen duen alokairuaren sistemaren bidez–; salmentarako lursail eraikigarriak urbanizatzea (guztira, <sup>2</sup>) eta Baztango Udalak kultur ekipamendu bat eraikitzea Udalak lagatutako lursailetan.

c) Diru-sarrerei dagokienez, honako suposamenduak hartu dira aintzat: 3.000 m<sup>2</sup> eraikina 2012an alokatuko da, 8 urtetarako; lursail urbanizatuak 15 urteko epean saltzen joanen dira.

d) SPRINek, kapitaleko ekarpen gisa, 2,97 milioi euroko balioa duten lursail batzuk jasotzen ditu.

2010ean zehar, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak enkargua eginda, SPRINek udalez gaitzako plan sektoriala egin zuen, bai eta urbanizatzeko eta birzatatze-proiektuak ere. 2011n zehar, Lekarozko Jarraipen Batzordeak onetsita, enpresa-campusaren eta hizkuntza-murgiltze zentroaren urbanizazio-lanak hasi ziren.

2011ko martxoan, SPRINek erabaki zuen enpresen aldi baterako batasun bati esleitzea hizkuntza-murgiltze zentroko eraikinak errentan emateko kontratua, erosteko aukerarekin; esleipen-hartzaileak, horretarako, sozietate mugatu bat eratu zuen. 2011ko maiatzaren 31n, SPRINek eta aipatutako sozietateak erosteko aukera jasotzen zuen errentamendu-kontratua izenpetu zuten. Urteko 136.001 euroko zen errentamendua, 30 urteko iraupenarekin. Kontratu horren bidez lortutako errentarekin aurreikusita zegoen zentro osoaren kudeaketa- eta sustapen-gastuak ordaintzea.

Nafarroako enpresen sektore publikoa berregituratzeko prozesuaren barruan, SPRIN Navarra de Deporte y Ocio (NDO) delakoan sartu zen; kontuan izanda Lekarozko Zentroak garatzea aurreikusita zeuden jarduketak ez direla ageri NDOren enpresa-helburuan, sozietate horrek Lekarozko aktiboa CEIN sozietate publikoari eskualdatu dio, eta azken hori salerosketa-kontratua sinatu aurretik izenpetutako kontratuetatik heldutako eskubide eta betebeharrak guztietan subrogatzen da; hau da, lursailen eta jada eginda dauden obren titularra izateaz gainera, konpromisoa hartzen du obra horiei amaitu arteko jarraipena emateko. Hala eta guztiz ere, CEINek txosten batzuk aurkeztu zituen enpresei egin beharreko ordainketei aurre egiteko ezintasunari buruz, Nafarroako Gobernuak bere burua ekonomikoki inplikatu ezean.

Jarduketarako kalkulatu den gastua, eskura dagoen han-hemenkako informazioaren arabera, 10 milioi eurokoa da, gutxi gorabehera. Zenbateko hori, funtsean, honela banatzen da: 3,2 milioi antzinako ikastetxea erosteko; 2,2 milioi hizkuntza-murgiltze zentroa eraikitzeke; eta 3,4 milioi urbanizazio lanak egiteko, kapera egokitzeko eta campusaren sarbideak egiteko.

Gaur egun, proiektua ia amaituta dago; ez da urbanizatutako lursailetatik bakarria ere saldu; eta hizkuntza-murgiltze zentroa abian jartzeko lehiaketan esleipen-hartzaile suertatu zenak 2013ko apirilean uko egin zion kontratuari.

Azken batean, beste eszenatoki ekonomiko batean planifikatutako eta diseinatutako proiektu baten aurrean gaude; egungo krisi egoerarekin, ordea, zailtasun handiak gerta daitezke hura guztiz garatzeko.

Inbertsio horrek Europar Batasuneko Eskualde Garapeneko Europako Funtsean (FEDER) finantzaketa eduki du. Momentuz, diruz laguntzekoak diren gastuak aurkeztu dira (ehuneko 50): funtsean, urbanizazio lanei, kapera egokitzeko lanei eta Lekarozko enpresa-campusarako sarbidea egiteko lanei dagozkien 3,13 milioi euro dira. 2012an, 1,56 milioi euro egiten duten diru-sarrerak jaso dira.

- Zentro Teknologikoen finkapena.

2,14 milioi euroko gastua dauka eta ehuneko 97ko betetzea. Honako onuradunak dauzka:

Onuraduna	Diru-laguntza
Asociación de la Industria Navarra	719.691
Elikagai-segurtasun eta teknologiararen Zentro Nazionala (San Adrian)	268.335
Esnekari Erakundea (Lekunberri)	126.784
Ikerkuntza Mediko Aplikaturako Zentroa	86.171
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	481.031
Investigación y Desarrollo en Nanotecnología fundazioa	441.092
Investigación, Desarrollo e Innovación en Medio Ambiente fundazioa (Liza-	20.768
<b>Zentro teknologikoak, guztira</b>	<b>2.143.872</b>

Kontusail hori sartzetik "Enpresa-jarduerak, berrikuntza eta energia-azpiegituren teknologia eta garapena sustatzea. Moderna Plana-Lehiakortasuna" programan. Haren helburuak 2012-2015 urteetarako Nafarroako IV. Plan Teknologikoaren helburuak dira; izan ere, azken horrek Moderna Planaren kasuko ildo estrategikoak garatzen ditu. Zehazki, helburuen artean, honakoak ageri dira: eskualdearen lehiakortasuna erraztea, zientziaren eta berrikuntzaren gizarteratzea sustatzearen bidetik, eta Nafarroako berrikuntzaren sistema Europako eta mundu mailako esparruan sartzeko.

Laguntza horiek 360/2000 Foru Dekretuan araututa daude. Izan ere, dekretu horrek ikerketarako eta garapenerako eta berrikuntzarako laguntzen araubidea onetsi zuen. Honako modalitateak izan daitezke: funts galdurako diru-laguntzak, interesik gabeko aurrerakin itzulgarriak eta Gobernuak abalaturako maileguen interesen baliokideak diren diru-laguntzak. Zenbatekoa ikerketak duen interesaren arabera modulaturatu dago, eta izapidetzea interesdunak laguntza eskatzen duenean hasten da.

2012ko azaroan, Nafarroako Gobernuak Nafarroaren sare teknologikoaren eredu berria aurkeztu zuen. Une honetan garatzen eta egituratzen ari da sare hori. Erreforma hori sortu da dagoen egoera aztertu ondoren; izan ere, egoeraren ezaugarria da ikerketan bikoiztasunak gertatzen direla, zentro batzuk txikiak direla, oinarri teknologikoak dituzten eta patenteen enpresa gu-

txi sortzen direla, nazioko eta nazioarteko lehiakortasun gutxi dagoela eta sektore pribatua gutxi esku hartzen duela haren finantzaketan.

- Nafarroako Unibertsitatea. Ikerketa eta teknologia zentro berriak.

2012an 0,88 milioiko gastua egon da. Zuzeneko diru-laguntza hori sartzen da hezkuntza Ministerioak Nafarroako Unibertsitatea Nazioarteko Bikaintasun Campusa jotzearen esparruan. Halakotzat jotzeak, izan ere, hiru milioiko zuzkidura ekonomikoa dakar.

2009ko abenduaren 15ean, Hezkuntza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmen bat sinatu zen, Nafarroako Unibertsitateari hiru milioiko diru-laguntza emateko baldintzak arautzeko. Hitzarmen horretan ezartzen da ezen diruz lagundu beharreko proiektuak finantzatuko direla Nafarroako Gobernuari Ministerioak emandako mailegu batekin; Nafarroako Gobernuak, gero, Unibertsitateari emanen dio diru-laguntza hori.

2010eko apirilean, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitateak lankidetzara hitzarmen bat sinatu zuten, non honakoak finkatu baitzituzten: garatu beharreko jarduketak, finantzaketa-modua eta Hezkuntza Ministerioak onetsitako proiektuaren jarraipena. Aipatutako hiru milioi horiekin batera, Nafarroako Gobernuaren 2010erako Aurrekontuko beste 100.000 euroko ekarpena egin zen. Haien xedea, honela ezarri zen, eskema moduan adierazita: 1,5 milioi jakintzaren eta teknologiaren hobekuntza zientifikorako eta transferentziarako (funtsean, Bioingeniaritzako Zentrorako, Giza Zientzien eta Gizarte Zientzien Zentrorako eta Farmakobiologia Aplikatuko Ikerketa Zentrorako); beste 1,5 milioi irakaskuntza hobetzeko, Europako goi mailako hezkuntzaren esparrura egokitzeko eta campusa eraldatzeko; eta, azkenik, Gobernuak emandako emendiozko 100.000 euroko kopurua Giza Zientzien eta Gizarte Zientzien Zentroaren zenbait proiektutarako. Kopuru horiek transferentzia arrunten 4. kapituluari egotziko zaizkio -1,8 milioi- bai eta kapitaleko transferentzien 7. kapituluari ere -1,6 milioi, zehazki, aztertutako kontusailerako-.

2011n, Bikaintasun Campusaren garapenarekin jarraitzeko, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan (Parlamentuko zuzenketa baten bidez), 1,1 milioiko zuzeneko diru-laguntza bat jaso zen, Nafarroako Unibertsitateari laguntzeko Iruñeko Campusaren inguruko ikerketa- eta teknologia-zentro berrietan inbertsioak egiten; halaber, 0,1 milioi euroko diru-laguntza arrunt bat jaso zen. Kasuko hitzarmena sinatu zen; kapitaleko diru-laguntza honakoei aplikatu behar zitzairen:

a) Zentro berrietarako behar den Esperimentazio Zerbitzua zabaltea.

b) Plataforma Omikoa ezartzeko ekipamendua erostea. Plataforma horrek, izan ere, zerbitzua emanen dio Bioingeniaritzako Zentroari, Nutrizioko Zentroari eta Ahaztutako Gaixotasunen Zentroari (500.000 euro).

2011ko hitzarmen hori aldatu zen Nafarroako Gobernuak urte horretan aplikatutako aurrekontu-doikuntzaren ondorioz. Aldaketak erreferentzia egiten dio, besteak beste, 2012ra arte 450.000 euro geroratzeari.

2012an, aurrekontuetan, 1,1 milioiko diru-laguntza bat sartu zen Bikaintasun Campusa garatzen jarraitzeko. Kopuru horretan sartzen da 2011tik geroratutako 450.000 euroko ordainketa. 2012ko berezko diru-laguntza -650.000 euro- esperimentazio zerbitzua zabalteko eta Farmakobiologia Aplikatuko Zentroan dauden instalazioak birmoldatu eta modernizatzeko erabiliko da. Obra horiek 2,4 milioitan esleitu zituen Unibertsitateak (BEZik gabe).

Diru-laguntzan eragina izan zuen, era berean, Nafarroako Gobernuak urte horretako ekainean aplikatutako doikuntzak; izan ere, kopurua 211.640 milioitan jaitsi zen.

Laburbilduz, 2010etik 2012ra doan aldian, Nafarroako Unibertsitateak 2,8 milioi euroko kapitaleko diru-laguntzak jaso ditu -ehuneko 45 Estatuaren ekarpenak dira- zentro teknologikoetan egindako jarduketara batzuk finantzatzeko. Hona taula:

Ekitaldia	Hasierako kontzesioa	Ordaindutakoa
2010	1.260.000	1.260.000
2011	1.100.000	650.000
2012	650.000	438.360
<b>Guztira</b>	<b>3.010.000</b>	<b>2.798.360</b>

(\*) 2011ko diru-laguntzatik etorrria

- Diru-laguntzen eta transferentzien itzulketa.

Jatorri hori dela eta, 26 milioiko diru-sarrerak identifikatu dira. Kopuru honetatik, ondorengo hauek azpimarratuko ditugu:

a) 11,4 milioiko guztizko kopurua, parlamentu-erakundearen transferentzien itzulketetatik eta aurreko ekitaldiko Estatuarekiko hitzarmenaren behin betiko likidaziotik heldu dena.

b) Nafarroako Unibertsitateari emandako diru-laguntza baten itzulketa. 4,3 milioi egiten du. Itzulketa hori Nafarroako Gobernuak emandako diru-laguntza batetik heldu da, zeren eta jotzen baitzen Gizarte Segurantzaren entitate laguntzailea zela osasun laguntzaren prestazioaren kudeaketan, bere borondatez eta bere kargura ematen baitzuen prestazio hori bere langileei eta haien senide onuradunei gaixotasun arrunten eta lanekoak ez diren istripuen kasuetan. Diru-laguntza horien betetze-oinarriari jarraituz<sup>30</sup>, Unibertsitateak diru hori itzuli beharko zuen baldin eta Gizarte Segurantzak lankidetzan horren-gatiko kalte-ordain bat ematen bazuen; hain zuzen ere, horixe gertatu zen 2012an.

c) Guztira, 2,03 milioi heldu dira funtsean enpresa pribatuetatik, I+G proiektuetarako eta inbertsio- eta enplegu-proiektuetarako hartutako diru-laguntzak tarteko.

d) 3,17 milioi jatorria dute eragile sozialek toki entitateetako lantegi-eskoetarako exekutatu-tako prestakuntza planetarako emandako diru-laguntzen itzulketetan.

e) Itzulketen multzotik guztira 1,3 milioi agentzia exekutiboari eskualdatu zaizkio, haien ko-brantza kudea dezan.

Gure aholkuak:

- *Gobernuaren diru-laguntza politikak berrikustea, gizarteak dituen beharrei eta eskatzen dituen helburuei erantzuna ematen ote dieten egiaztatzeko.*

- *Egiaztatze-kontua edo urteko kontuak aurkeztuz justifikatzen diren diru-laguntzen kasuan, onuradunen laginketa bat egiteko, a posterioriko berrikuspen prozedura sistematiko bat aplikatzea, egiazki egindako gastuaren izaerari eta justifikazioari buruz.*

- *Entitate artistiko eta kulturalentzako diru-laguntzen oinarrietan, berariaz arautzea baterako ekoizpenaren formulaz eta beste entitate batzuen finantzaketaren bidez garatzen diren diruz lagundutako proiektuen tratamendua.*

## VII.9. ESTATUAREKIKO HITZARMEN EKONOMIKOA.

Nafarroaren jarduera ekonomiko eta tributarioa eta Estatuarekiko harremana, foru araubidearen ondoriozkoa, hitzarmen ekonomikoaren sistema tradizionalaren bidez arautzen da.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoak, 1990eko uztailearen 31n sinatuak, harmonizazio fiskaleko irizpideak ezartzen ditu eta metodo bat finkatzen du Nafarroak urtero Estatuari eginen dion ekarpena kalkulatzeko –eskualdatu gabe egon eta Administrazio Zentralak ematen dituen zerbitzu eta eginkizunen truke eginen duen ekarpena hain zuzen–. Bost urtez behin gaurkotu izan da.

2012ko maiatzean, Hitzarmenaren Koordinazio Batzordeak, besteak beste, erabaki bat hartu zuen, zeinak bereizgarri gisa baitu 2010-2014 bosturterako BEZaren doikuntza kalkulatzeko metodoa aldatzen duela; horren eraginak 2012ko apirilaren 1etik hasten dira aplikatzen.

Hartutako erabakietatik, honakoak nabarmendu behar ditugu, laburbilduta:

**A)** 2010-2014 bosturtekoan balio erantsiaren gaineko zergaren diru-bilketaren doikuntza eraginkor egiteko metodoaren aldaketa.

<sup>30</sup> Horri dagokionez, Kontuen Ganbera honen txosten bat ikus daiteke "Nafarroako Unibertsitateak O-NOZeko erabiltzaileen kolektibo batzuei osasun laguntza emateko kontratua", 2009an argitaratua. ([www.camaradecomptos.navarra.es/Informes](http://www.camaradecomptos.navarra.es/Informes))

Gaurkotze hau heldu da Tributu Agentziak Nafarroan kokatutako automobilen enpresa batek eginiko eragiketen BEZaren likidazioa dela-eta eginiko jarduketengatik, haren merkataritza-eginkizunaren harira.

Jarduera horien ondorioz, enpresa horrek egiten dituen esportazioak Nafarroatik zuzenean egiten dira apirilaz gero, eta ez lehen, esportazio horiek Europako Batasunean zegoen mendeko sozietate baten bitartez egiten zirenean bezala. Horrela, esportazio horiek BEZtik salbuetsita daudenez, Nafarroako Gobernuak galdu egiten du BEZari dagokion tasa hori; horrela bada, Zerga Agentziaren irizpideak aplikatuz gero, BEZ zuzeneko kudeaketaren guztirako diru-bilketak Nafarroako kontuetan eragin negatiboa izanen zukeela estimatzen zen: 2012ko ekitaldian, 360 milioi gutxiagoko diru-sarrerak; 2013ko ekitaldian, 259 milioi gutxiagoak, eta 2014ko ekitaldian 163 milioi gutxiagoak.

Hitzarmenean sartutako aldaketarekin, bermatzen da Nafarroako zuzeneko diru-bilketan izan duen galeraren zati bat Estatutik jasotzen duen BEZarengatik doikuntza fiskalaren bitartez konpentsatuko dela, halako moduz non Nafarroak bere lurraldean egiten den kontsumoari dagokion zerga jasotzen jarraituko baitu. Urteko 25 milioiko aurrekontu-inpaktua erabakitzen da Nafarroarentzat.

Horretarako, Nafarroaren diru-bilketa ahalmena aldatzen da, eta Estatuak 2012tik 2014rako ekitaldietan ordaindu beharreko urteko konpentsazioa ezartzen da; konpentsazio horren ordainketa hiruhilekoko zenbateko berdinetan egiten da, behin-behineko doikuntzekin batera. Halaber, jasotzen da ezen, behin betiko doikuntza erabakitzeko unean, alderatuko direla BEZaren guztizko diru-bilketa, aurreko metodologia erabiliz egindakoa, eta BEZaren guztizko diru-bilketa, metodologia berriarekin egina; alderaketa horretatik eratorritzen bada urteko amaierako aurrekontu-eragina Nafarroarentzat 25 milioitan txikiagoa dela, alde hori Nafarroako Gobernuak konpentsatuko dio Estatuari; zenbatekoa, aldiz, 25 milioitik gorakoa bada, aldea Estatuak konpentsatuko du.

Halaber, Estatuak Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordeari aurkeztuko dizkio, bi administrazioek aurkeztutako eskumenik ezari buruzko adierazpenak, lurralde komunean dagoen enpresa batek Nafarroako plantan fabrikatutako ibilgailuen merkaturatze-lanarengatik jasandako BEZaren itzulketa dela eta. Behin Batzorde horrek erabakia hartzen duenean, bi administrazioek –Hitzarmenaren Koordinazio Batzordearen bidez– erabaki horren ondorioak ebaluatuko dituzte.

Azkenik, adierazi behar dugu balizko arrisku bat badagoela foru erkidegorako, aurreko gaurkotzearen aurka formazio politiko batek Auzitegi Nazionalean aurkeztutako errekurtsioa dela eta.

**B)** Honako behin betiko likidazioak onetsi dira:

- Nafarroak Estatuaren zametarako 2011n egindako ekarpena.
- Balio erantsiaren gaineko zergaren diru-bilketaren doikuntza, bai eta 2010etik 2011ra bitarteko fabrikazioaren gaineko zerga berezien diru-bilketaren doikuntzen likidazioa ere.

**C)** Halaber, aipatutako akordioan, honakoen onespina sartzen da:

- Nafarroako Foru Komunitatea berrerekatzeko 2009-2013 urteetarako Plan Ekonomiko-finantzarioa.
- 2012-2014 urteetarako egonkortasun helburua.
- 2012rako egonkortasun helburu gaurkotua.



2012ko aurrekontuen hitzarmenak izan duen eragin kuantitatiboa eta 2011rekiko alderaketa hurrengo taulan ageri direnak dira (euroak, milakotan):

Hitzarmenaren aurrekontu-kontzeptuak	2011	2012	2012/2011 aldaketa, ehunekotan
Estatuarentzako behin-behineko ekarpena	498.106	520.687	5
<b>Gastu-kontusail guztiak</b>	<b>498.106</b>	<b>520.687</b>	<b>5</b>
BEZaren ondoriozko doitzeak	171.155	483.270	182
Alkoholaren gaineko zerga bereziak	-35.286	-39.947	-13
Garagardoaren gaineko zerga bereziak	4.197	4.177	-
Tabakogaien gaineko zerga bereziak	44.849	28.079	-37
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziak	-29.897	-43.013	-43
<i>Zergetan egindako doikuntzak, honaino</i>	<i>155.017</i>	<i>432.567</i>	<i>179</i>
Aurreko ekitaldian Estatuari eginiko ekarpenaren behin betiko likidazioa	24.324	8.066	-67
Mendekotasunari arreta eskaintzea	13.081	12.569	-4
<b>Diru-sarreraren kontusailak, guztira</b>	<b>192.422</b>	<b>453.202</b>	<b>136</b>

Ekarpenarengatiko gastuei dagokienez, kontuan hartzen bada aurreko urteko erregularizatzea –diru-sarreretan islatutakoa– ehuneko 8ko igoera duen aurrekontu-saldo bat lortzen da; hau da 38,84 milioi gehiagoko ekarpena, hurrengo taulari jarraituz (euroak, milakotan):

Estatuarentzako ekarpena	2011	2012
Behin-behineko ekarpena (gastua)	498.106	520.687
Aurreko urteko erregularizazioa (diru-sarrerak)	-24.324	-8.066
<b>Estatuarentzako ekarpenaren aurrekontu-saldoa</b>	<b>473.782</b>	<b>512.621</b>

Diru-sarreretan, igoera hori nabarmen handiagoa izan da, ehuneko 136koa –hau da, 260,8 milioi gehiago–; igoera hori heldu da, funtsean, BEZaren ondoriozko doikuntza kalkulatzeko metodologia berriatik. Azkenik, bada, BEZ zuzeneko kudeaketa urritu egin da, eta Hitzarmenaren arabera doikuntzetatik heldu dena handitu egin da, ondoko taulan ikusten den bezala (milaka eurotan):

Aitortutako BEZa	2011		2012	
	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	937.005	85	566.705	54
Hitzarmenaren arabera doikuntza	171.155	15	483.270	46
<b>BEZa, guztira</b>	<b>1.108.160</b>	<b>100</b>	<b>1.049.975</b>	<b>100</b>

Doikuntza negatiboek (Estatuari egindako ordainketak), zerga berezien ondoriozkoek, ehuneko 214 egin dute gora: 16,1 milioikoak izatetik 50,7 milioikoak izatera pasa dira.

Halaber, nabarmendu behar dugu Estatuak mendekotasunaren sistemako gutxieneko babes-maila finantzatzera bideratzen dituen zenbatekoek pixkanaka behera egin dutela, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala (euroak, milakotan).

Mendekotasunari arreta eskaintzea	2010	2011	2012
Kopurua	17.673	13.081	12.569
Adierazlea	100	74	71

## VII.10. INBERTSIOAK

2012ko inbertsioek 142,61 milioi euro egiten dute, 2011n baino ehuneko 26 gutxiago –51 milioi gutxiago–, eta gastu guztien ehuneko lau egiten dute. Betetze-maila ehuneko 63koa izan da.

Kapitulu hau 428 kontusailetan xehakaturik dago; horietatik 110ek (haien ehuneko 26) ez dute betetzerik ageri eta 85ek 6.000 eurotik beherako gastu-betetzea daukate.

Betetze orokorra hurrengo taulan erakusten duguna da (euroak, milioitan):

Inbertsioak	Hasierako kreditua	Aldaketak	Kreditu bateratua	Aitortutako betebeharrak	Kreditu-gerakina
6. kapituluko zenbatekoa	282,40	-57,02	225,38	142,61	82,77


Aldaketa nagusia AHTa egiteko obretarako kreditua gutxitzeari dagokio: 53,9 milioi egiten du; gainera, AHTaren kontusailen multzoak kreditu-gerakinaren gutxitzearen ehuneko 76 azaltzen du.

Urtean inbertsio gehien egin dituzten departamentuak –inbertitutako guztiaren ehuneko 46– Osasun Departamentua –ehuneko 23– eta Gizarte Politiketako Departamentuak –ehuneko zortzi– dira.

Inbertsio nagusien ehuneko 42 obra publikoei dagokie, eta ehuneko 31, berriz, eraikinei etab estelako eraikuntzei. 2012ko gastuaren ehuneko 48 Nafarroa 2012 Planeko kontusailei dagokie.

Hurrengo taulan, 2008tik 2012ra bitarteko urteetako inbertsioen kapituluko bilakaera ageri da, bai eta gutzitako aurrekontuarekin duen lotura ere:

	2008	2009	2010	2011	2012
Inbertsioengatiko gastua (milioitan)	305,98	341,10	273,59	193,93	142,61
Adierazlea	100	111	89	63	47
Ehunekoa, aurrekontu osoaren gainean	6,95	7,80	6,36	4,89	3,93
Ehunekoa, Nafarroako BPGaren gainean	1,66	1,88	1,47	1,04	0,79



Kapitulu honek azken bost urteetan izan duen bilakaera aztertuta, ikusten dugu 2012ko inbertsioaren bolumena ia erdiraino jaitsi dela; hau da, 2008an 306 milioikoa izatetik 2012an 143 milioiko izatera pasa da. Jaitsiera hori azken hiru urteetan gertatu da: 2009an ehuneko 11 gora egin ondoren, 2010ean ehuneko 20 jaitsi zen, 2011n, ehuneko 29 eta 2012an ehuneko 26.

Halaber ikusten da inbertsioek gastuaren guztizkoan daukaten garrantzi erlatiboak behera egin duela pixkanaka –2009ko goraldi txiki bat izan ezik–: 2008an ehuneko zazpi izatetik 2012an ehuneko lau izatera pasa da.

Nafarroako BPGaren gainean, 2009ko igoerarengatik ez bada, ehuneko hori nabarmen jaitsi da, 2012an ehuneko batekoa baino txikiagokoa izateraino.

Arlo honetan egindako lana honakoa izan da:

- Eraikuntza fasean dauden obra garrantzitsuenen egoeraren jarraipena. AHTaren obrak kanpo utzi dira: VII.16 atalean aztertu ditugu berariaz.
- 2012an esleitututako/amaitutako kontratuen lagin baten gainean egindako berrikuspena.

Honakoak izan dira iruzkin eta ondorio nagusiak:

### VII.10.1. Jarraipena

Atal honetan, 2011ko Kontu Orokorren txostenean xehakatu genuen inbertsio hauen multzoaren gaineko azterketa osatu eta gaurkotu dugu.

#### VII.10.1.1. Nafarroa 2012 Plana

Nafarroa Plana, zeina Gobernuaren eta Nafarroako Alderdi Sozialistaren arteko akordioaren emaitza baita. 2008ko apirilean onetsi zuen Gobernuak. Urte bereko maiatzean, Nafarroako Parlamentuak berretsi zuen. Haren funtsezko helburua izan zen krisi ekonomikoari aurre egitea 2008tik 2011rako epean dotazio eta inbertsio publikoak eginez.

Hasieran, lehentasunezko 90 jarduketa biltzen zituen guztira, 2011ra arte egitekoak. Haietarako, 3.560 euroko inbertsioa aurreikusten zen, 949 milioi egiten zuten beste jarduketa batzuek gainera. Kalkulatutako inbertsioaren guztizkoa 4.509 milioikoa zen, eta honela finantzatuko zen: 1.947 milioi Nafarroako Gobernuaren ekarpenei dagozkie; 1.349 milioi sozietate publikoek jarriko dituzte, eta 1.212 milioi Estatuak exekututako ditu.

Gainera, toki entitateek zuzenean, tokiko azpiegitura planen bitartez eta beste ekimen bazuen bitartez, egin beharreko inbertsioak aurreikusten dira, 440. milioi egiten dutenak.

2010ean, lehentasunezko jarduketetarako inbertsioaren zenbatekoa gaurkotu zen, eta 2.719 milioitan zenbatetsi zen. Zenbateko horrek gutxitze bat dakar hasieran aurreikusitakoarekin alderatuta (841 milioi), funtsean AHTaren exekuzioan izandako atzerapenengatik.

Nafarroako Gobernuaren 2011ko otsailaren 22ko erabakiaz, lehentasunezko jarduketek plan-gintza gaurkotzea onetsi zen. Haien exekuzio epea 2012ra arte luzatu zen eta inbertsioen gaurkotutako zenbatekoa 2.155,4 milioitan finkatu zen.

2012ko abenduan, jarraipen txostena egin zen, eta hartan Nafarroa 2012 Planaren amaierako ebaluazioa jasotzen da. Honakoak dira planeko lehentasunezko lanen egoera eta inbertsioa (euroak, milakotan):

Nafarroa 2012 Plana. Lehentasunezko jarduketak	Kopurua	Aurreikusitako inbertsioa (*)	Eginiko inbertsioa	Ehuneko
Bukatuak	48	1.525.164	1.510.928	99
Eraikitzen ari dira	12	593.483	462.136	78
Geroratuak/baztertuak	33	36.771	36.203	98
<b>Lehentasunezko jarduketak, guztira</b>	<b>93</b>	<b>2.155.418</b>	<b>2.009.267</b>	<b>93</b>

(\*) 2011n gaurkotua

Hau da, 2012ko abenduaren 31n, lehentasunezko 60 jarduketa edo exekututzen ari dira edo exekutatze fasean daude, guztira.

2012an, berariaz, eta aipatutako txostenaren arabera, 131,1 milioiko inbertsioak exekutatu dira.

Aurreikusita dago egiten ari diren jarduketak, orokorrean, 2013an bukatuko direla. Proposatutako edo ezetsitako jarduketak direla-eta, plangintza berri bat egin beharko da, Gobernuak epe ertainera egindako programazio ekonomikoaren esparruan.

Exekutatutako obraren guztizkoak 2.009,3 milioi egiten du, eta zenbateko horrek azken gaurkotzean aurreikusitako kopuruaren ehuneko 93 egiten du; hasieran aurreikusitakoarekin alderatuta, ehuneko 56 da. Arloka, inbertsio gehienak errepide-sarean egin dira –guztizkoaren ehuneko 28–, nekazaritza-industrian eta ureztalurretan –ehuneko 27–, etxebizitzan –ehuneko 11– eta kulturaren eta aisian –ehuneko 7–.

Planaren finantzaketarako, honako iturriak izan dira:

Nafarroa 2012 Planaren finantzaketa	Kopurua	Ehunekoa
6. kapitulua	717.646,64	36
7. kapitulua	154.044,09	8
Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-finantzaketa (A)	871.690,73	43
Itzaleko bidesariaren emakida	377.452,05	19
Estatuarekiko lankidetzaren bidez egindako aurrekontu-	11.461,85	1
Eragiketengatiko diru-sarrerak	61.043,76	3
Enpresa publikoen baliabide berekiak	243.526,76	12
Kanpoko bestelako finantzaketa (zorpetzea) eta beste batzuk	444.092,04	22
Aurrekontuz kanpoko finantzaketa (B)	1.137.576,46	57
<b>Finantzaketa, guztira (A+B)</b>	<b>2.009.267,19</b>	<b>100</b>

Hau da, Planaren ehuneko 43 Nafarroako Aurrekontuen bidez finantzatu da. Kanpoko finantzaketatik, nabarmenezkoa da itzaleko bidesariaren emakida, zeinak 377 milioi egiten baitu, eta zorpetzea, 444 milioikoa.

Amaierako txosten hori Gobernuaren 2013ko otsailaren 27ko erabakiaz onetsi zen. Erabaki horretan, gainera, amaitutzat ematen da Nafarroa 2012 Planaren jarraipena.

#### VII.10.1.2. A-12/A-68/AP-68 lotura.

2007ko apirilean, Nafarroako Gobernuak Done Jakue Bideko autobieren (A-12) eraikuntza amaitu zuen. Haren ustiaketa, berriz, itzaleko bidesariaren formularen bitartez egiten zen.

2009ko urtarrilean, Sustapen Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu zuten aipatutako A-12aren, etorkizuneko A-68aren eta Autopista Vasco-Aragonesa (AP-68) delakoaren arteko loturarako obrak egiteko.

Hitzarmenean jasotako jarduketak bi eraikuntza-proiektu desberdini dagozkie. Lehenengoa, AP-68 autobidea etorkizuneko A-68arekin lotzea da; kalkulaturako aurrekontua 10,3 milioi eurokoa da, eta Sustapen Ministerioak finantzatzen du guztiz. Bigarrenak, berriz, aurreikusten du Done Jakue Bideko autobia (A-12) etorkizuneko A-68arekin lotzea, eta 71,3 milioi euroko esleipen-aurrekontua dauka. Zenbateko horretatik, Nafarroak 18,03 milioi euro jarriko ditu, eta gainerako 53,30 milioiak, berriz, gobernu zentralak ordainduko ditu. Obraren guztizko luzera 6,45 kilometrokoa da. Horietatik, 1,8 kilometro Nafarroan daude.

Obrak honela egiten dira: Sustapen Ministerioako Errepideen Administrazio Orokorra obrak kontratatzeaz eta zuzentzeaz arduratuko da, eta behar diren desjabetzeak egiten ditu Errioxako Autonomia Erkidegoaren lurraldeari dagozkion obrak exekutatzeke. Bestalde, Nafarroako Gobernuak, bere obra-zatia finantzatzeaz gainera, foru erkidegoari dagozkion desjabetzeak hartuko ditu bere gain.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa izanen da bere lurraldean egindako bidez-azpiegituraren titularra, eta azpiegitura hori Nafarroako errepideen sarean sartuko da, obrak zerbitzuan jartzen diren unetik aurrera.

Obra amaitzeko hasierako aurreikuspenetan 2011ko abuztua aipatzen zen. Hala eta guztiz ere, obra nabarmen mantsotu da Estatuko Aurrekontu Orokorretan ondoz ondo kreditu-gutxipenak egin

direlako hura egiteko, halako moduz non, azkeneko aldaketaren ondoren, epea 2015era arte luzatu baita.

2012an egindako jarduketei buruz, eta 2011ko Kontuei buruzko txostenean adierazitakoaren osagarri, honakoa esan behar dugu:

- 2012ko azaroan, Estatuarekiko Hitzarmenean aurreikusitako araubide ekonomikoa aldatu zen, A-12/A-68 loturarako obrei dagokienez, esleipena beherantz egokitzeko eta 2010ean eta 2012an izandako BEZaren igoerari egokitzeko. Aldaketa horren arabera, Nafarroaren ekarpena 18,6 milioikoa da eta Estatuarena, berriz, 55,3 milioikoa. Halaber, 2010etik 2015era doan aldirako gastuaren urteko ordainketak finkatzen dira.

- 2012ko abenduaren 31ra arte, obra horren exekuzioak 7,54 milioi euroko gastua ekarri dio, guztira, Nafarroako Gobernuari, honako taularen arabera:

A-12/A-68 lotura	2010	2011	2012	Guztira
Desjabetzeak	1.278.269	13.037	16.880	1.308.186
Eraikuntza	1.807.637	2.863.403	1.565.433	6.236.473
<b>Guztira</b>	<b>3.085.906</b>	<b>2.876.440</b>	<b>1.582.313</b>	<b>7.544.659</b>

Hau da, Nafarroako Gobernuak 2012an egin duen gastua 1,6 milioi eurokoa izan da guztira. Zenbateko hori ia guztiz dagokio 2012ko urtariletik maiatzera egindako obren ordainketari. Kopurua bat dator ekitaldi horretarako aurreikusitako urteko ordainketarekin, aldatutako hitzarmenean ezarritakoari jarraituz.

- Gastuak ordaintzeko, Nafarroan egindako obren ziurtagiriak eskuratu zizkion Nafarroako Gobernuak Ministerioari. Gobernuak ez ditu jasota ez obren ziurtagiri osoak, ez eta kontratistari amaieran egin beharreko ordainketa ere.

- Emandako informazioaren arabera, 2012ko irailean, obren ehuneko 24,35 egin da (2011n, ehuneko 20 exekutatu ziren).

- AP-68aren eta A-68aren arteko lotura-lanak geraturik daude 2010eko apiriletik, eta obretarako kontratua 2011ko azaroan ebatzi da, bi aldeak ados daudela.

- 2012ko urrian, Sustapen Ministerioak obra-aldaketa bat onetsi zuen, 6,3 milioi egiten zuena. Zenbateko horretatik, 1,6 milioi Nafarroari dagozkio. Nafarroako Gobernuak aldaketa hori izapidetzeko zain gaude.

#### VII.10.1.3. "Reyno de Navarra Arena" erabilera anitzeko kiroldegia

Arena kiroldegia lehentasunezko jarduketa bat da Nafarroa 2012 Planaren barruan, eta 65,6 milioiko aurrekontua du aurreikusita. Hasiera batean, obra 2011ko lehenengo hiruhilekoan amaitzea aurreikusi zen.

Proiektu osoa, obrei eta ekipamenduari dagokienez, zazpi lotetan azpi-zatitua dago, SPRINi egindako enkarguaz gainera, non kudeaketa-gastu eta -kontratu guztiak, koordinazio-lanak eta laguntza teknikoa sartzen baitziren.

#### Nafarroako Erresuma kiroldegiko loteak

SPRINi egindako enkargua

1. lotea: Eraistea eta kiroldegiaren I. fasea

2. lotea: Harmailak eta plataforma

3. lotea: Urbanizazioa eta kiroldegiaren II. fasea

4. lotea: Bideo-markagailuak Lizitazioa eta exekuzioa

5. lotea: Afororako gortinak eta sareak Lizitazioa eta exekuzioa

6. lotea: Federazioen eraikina eta akabera-lanak Lizitazioa eta exekuzioa

7. lotea: Bestelako ekipamenduak Lizitazioa eta exekuzioa

2011ko Kontuei buruzko txostenean jasotako informazioaren osagarri, honako alderdiak adierazi behar ditugu:

Esleitutako kontratuen egoera honako taula honetan azaltzen da:

Kontratua	Esleipen-data	Esleitutako aurrekontua	Gastua, 2012-12-31n	Egungo egoera
SPRINI egindako enkargua, kiroldegiko urbanizazio eta exekuzio lanen kudeaketa teknikoa egitekoa	07/05/2009	3.441.519	2.920.582	2011/10/24an amaitu zen
Kiroldegiko proiektua diseinatu, exekutatu, garatu eta kudeatzeko aholkularitza (1)	24/06/2008	612.480	172.957	Nafarroako Gobernuak subrogatua 2011-10-24an
Eraikuntza proiektua, ekipamendu-proiektua eta obraren zuzendaritza (1)	11/12/2008	2.030.000	330.199	Nafarroako Gobernuak subrogatua 2011-10-24an
Urbanizazio- eta eraikuntza-obren segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa (1)	20/08/2009	151.158	16.371	Nafarroako Gobernuak subrogatua 2011-10-24an
<b>Laguntza teknikoa, honaino</b>			<b>3.440.109</b>	
Eraispen-proiektuko obrak eta I. faseko eraikuntza-proiektua (I. lotea)	07/08/2009	12.642.676	13.008.110	2009-09-07an hasia 2011-07-04an jasoa
Plataforma, harmailak eta eserlekuak diseinatu, fabrikatu eta muntatzea (II. lotea)	20/11/2009	10.322.840	10.553.000	2010-07-19an hasia 2011-06-20an berriz hasia 2013-04-26an jasoa
Eraispen-proiektuko obrak eta I. faseko eraikuntza-proiektua (III. lotea)	11/05/2010	28.236.326	23.286.810	2010-06-10ean hasia 2013-05-29an jasoa
Beste gastu batzuk			333.021	
<b>Obrak, honaino</b>			<b>47.180.941</b>	
<b>Kiroldegia, guztira, 2012-12-31n</b>			<b>50.621.050</b>	

(1) Nafarroako Gobernuak subrogatutako kontratuak, SPRINI egindako enkargua amaitzearen ondorioz.

Ikus daitekeen bezala, esleitutako obra-kontratuak 2011 eta 2013 bitarte jaso dira. Hiru lotee-tan jasotako obrak amaitu dira. Laguntza kontratuek oraindik ere indarrean jarraitzen dute, zeren eta pabilioia eraikitzeke eta ekipatzeko prozesu osoa hartzen baitute. Halere, haien indarraldia 2013an amaitzen da, teorikoki.

2012an, obra honen multzoak ia 10 milioiko aurrekontu-betetzea izan du, ehuneko 100eko be-tetze-mailarekin.

Obraren guztizko gastua, 2009an hasi zirenetik 2012ko itxierara arte, 50,6 milioi eurokoak dira, eta honako xehetasunak dauzkate:

Nafarroako Erresuma kiroldegia	2009	2010	2011	2012	Guztira
Laguntza teknikoa	1.803.907	870.873	475.351	289.978	3.440.109
Obrak eta beste gastu batzuk	2.914.315	12.767.149	21.811.650	9.687.826	47.180.941
<b>Guztira</b>	<b>4.718.221</b>	<b>13.638.023</b>	<b>22.287.001</b>	<b>9.977.804</b>	<b>50.621.050</b>

Laburbilduz, 2013ko maiatzean, lizitatutako obra osoa jaso da, 1. 2. eta 3. loteei dagokiena.

Gainerako loteak, funtsean azpiegituraren ekipamenduari, obra osagarri txikiei, seinalezta-teari eta segurtasunaren arloko jarduketei dagozkienak, lizitatu gabe daude, eta ez da aurrei-kusten epe laburrean lizitatuko direnik, aurrekontu-arazoak direla eta. Haiek gabe, eraikinak ez ditu biltzen normalki funtzionatzeko behar dituen baldintzak. Kalkulatu da azpiegitura amaizeko dauden finantzaketa-beharrak 2,8 milioikoak direla.

Aztertzeko dago haren mantentzerako eta kiroldetia partzialki erabili ahal izateko zer egin behar den. Horri dagokionez, ez da ahaztu behar obren berme-epeak jada indarrean daudela, baina ezin izan dela guztiz egiaztatu haien funtzionamendua zuzena dela.

### VII.10.2. 2012an esleitutako/amaitutako kontratuen lagin baten berrikuspena

Kontratazio espediente hauek fiskalizatu ditugu:

Kontratuak	Prozedura	Esleipen data	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa	Metatutako gastua, guztira
Irurita-Elizondoko saihebidetako obrak	Irekia, europar atalasetik gora /eskaintzarik onuragarriena	2009ko abendua	12.208.961	22	11.079.777	13.650.729
Nafarroako Ospitaleguneko Larraldietarako eraikin berriko obrak	Irekia, europar atalasetik gora /eskaintzarik onuragarriena	Abuztua 2009	22.467.351	22	15.727.095	22.268.285
Nafarroako Ospitaleguneko saneamendu sareetako obrak	Irekia/ eskaintzarik onena	2011ko apirila	3.663.756	13	2.567.560	2.567.559
Lotekako hornikuntzak-Ubarmin Klinikako ebakuntza-gelako ekipamendua	Irekia, europar atalasetik gora /eskaintzarik onuragarriena	2012ko abuztua	2.885.000	48	2.643.528	2.679.691

Oro har, kontratazio-espedienteen izapidetzea, esleipena eta exekuzioa kontratu-legedia bezela egin zen, eta gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude. Hala eta guzti zere, ziurtagiri batzuk lege ezarritako epeak gaituta ordaindu dira.

- Irurita-Elizondoko saihebidetako. Obren kostuan izandako desbideratzea –ehuneko 23koahonela azaltzen da: aplikatu beharreko BEZa aldatu da –0,2 milioi– eta bi kontratu-aldaketa izapidetu dira obrak egiten arizaren bitartean –2,4 milioi, guztira–. Kontzeptu horiek kontuan izanda, desbideratzea ehuneko 0,08 ingurukoa da. Aldaketa horiek justifikatzen dira, funtsean, proiektuan egindako akats nahiz aurreikuspen faltengatik eta aurreikusi gabeko obra-unitateen igoera eta egonkortze-lanak egin behar izategatik, arrazoi meteorologikoak tarteko lubeta batzuk erori ondoren.

Bestalde, nabarmendu behar dugu ezen, aurrekontu-egonkortasunaren helburua bermatzeko neurri buruz Nafarroako Gobernuak 2011ko irailean hartutako erabakia aplikatuta, baimena ematen zaiola Sustapen kontseilariari kontratuen aurreikusitako urteko ordainketak birdoitzeko. Birdoikuntza hori datza 2011ko ekitaldiko 3,8 milioi egiten duten gastuak 2012ko ekitaldira aldatzean. Halere, ez da obren programazio berriari, ez eta exekuzio-eperen aldaketarik finkatzen. Praktikan, birdoikuntza horrek aldaketa bat ekarri du bai gastuen kontabilitate-erregistroan, bai ordainketen araubidean.

Aldagai honek 15,1 milioiko amaierako kostua dakar, honako xehetasunen arabera:

Irurita-Elizondoko saihebidetako	Kopurua
Obrak	13.650.729
Desjabetzeak	1.413.828
Beste gastu batzuk	19.620
Guztira	15.084.177



- Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietarako eraikin berriko obrak. Hasiera batean, eraikin horretarako egindako proiektuak soilik Nafarroako Ospitaleko larrialdiak hartzen zituen, eta 22,47 milioiko kostua zeukan. 2009ko otsailean, kontratazio-espeditentea, baldintza-orriak eta behar zen gastua onetsi ziren, eta esleipen-prozedura abiatu zen. Lizitazio-iragarkia martxoaren 5ean jarri zen Kontratazio Atarian. Egun horretan bertan, haren publikitateak Europako instantzietara bidali zen. Obrak 2009ko abuztuan esleitu ziren, 15,73 milioiko prezioan, ehuneko 30eko beherapenarekin eta 22 hilabeteko exekuzio-eparekin –hau da, epea 2011ko uztailen amaitu zen–.

2009ko martxoaren 15ean, hau da, proiektua onetsita eta esleipen-prozesua jada hasita zegoela, O-NOZek, Nafarroako Parlamentuak eskatuta, onetsi zuen eraikin horretan batera bil zitezela Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdiak. Horrek berarekin ekarri zuen eraikina zabaltea eta ospitale horiek lur azpitik lotzea; langintza horrek eragin zuen bai proiektua idazteko laguntza-kontratua aldatzea bai obretarako proiektua aldatzea.

Eraikinaren zabalpena, zeinak 2,88 milioiko kostua baitu, obra-kontratuaren aldaketa gisa sartu zen. Lur azpiko galeria, ordea, 5,18 milioiko aurrekontuarekin, obra nagusiaren kontratu osagarritzat jotzen da, eta obra nagusiko kontratistari esleitu zitzaion. Bi obra horietan, lizitazio-batekoari ehuneko 30eko beherapena aplikatu zitzaion.

Nabarmendu beharra dago ezen obra-kontratuaren zabalpenak ez dakarrela berarekin hasierako kontratuan aurreikusitako exekuzio-epa egokitzea, nahiz eta zabalpena eta haren finantzaketa onesteko kasuko ebazpenean, obren amaiera 2012ko ekitaldira arte atzeratu baitzen.

Eraikineko obrak 2012ko abuztuan amaitu ziren, eta galeriakoak, berriz, 2012ko azaroan. Horien guztizko gastua 22,27 milioikoa da, esleitutako kopurua baino ehuneko 42 gehiago. Igoera hori honela dago justifikatuta: 0,26 milioi BEZaren doikuntzarengatik; 2,02 milioi eraikinaren zabalpenarengatik, eta 4,1 milioi obra osagarriarengatik –lur azpiko galeria–. Aldaketa horiek kenduta, desbideratzea ehuneko 0,82 ingurukoa da.

Obrak amaituta, 2013ko maiatzean, Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietako eraikinerako ekipamendu orokorraren eta altzarien hornikuntzarako lizitazioa argitaratu da. Eskaintzak aurkezteko epea 2013ko uztailen amaitu zen.

- Ubarmin Klinikako ebakuntza-gelaren ekipamendurako lotekako hornikuntza. Espediente hori 2011n hasi zen, baina urte horretako irailean egindako gobernu-akordioaren ondorioz, esleipen-prozedura ezetsi zen eta haren izapidetzea 2012ko aurrekonturako utzi zen.

Hornikuntza 15 lotetan xehakatu zen, 2,88 milioiko lizitazioarekin. Guztira, 48 enpresa aurkeztu ziren, lote bakarrerako nahiz zenbait lotetarako. Esleipenaren guztizko kopurua 2,64 milioikoa da eta esleipenaren gaineko gaidikina aplikatu beharreko BEZaren tasa 2012ko irailetik aurrera igo izateari zor zaio.

- Ikusi dugu ezen, kasu batzuetan, prezioen berrikuspenaren zenbatekoa atzerapenez likidatu dela –normalean, aurrekontu-krediturik ez edukitzeagatik– Kontratuari buruzko Foru Legeko 120. artikuluan ezarritakoaren aurka: *“Berrikuspenen zenbatekoa ziurtagirietan edo ordainketa partzialetan gauzatuko da, edo ordainduz, edo deskontua eginez, kasu bakoitzaren arabera; salbuespenez, kontratuaren likidazioan eginen da, ziurtagiri edo ordainketa partzial horietan sartu ezin izan denean”*.

Horrenbestez, inbertsioetan egindako gastuaren atalean, exekuzioan eragina izaten ari diren garrantzizko hiru alderdi nabarmendu behar ditugu:

a) Oparotasun ekonomikoko garaietan diseinatu eta hasitako inbertsioak, amaitu behar direnak, nahiz eta horietako bakarren baten gainean arrazoizko zalantzak daude funtzionamenduan jartzeko egokitasunari buruz.

b) Estatuarekin koordinatuta planifikatutako eta exekutututako inbertsioak, zeinetan atzerapenak baitaude Estatuaren aldetik, bai eta haien diseinu eta gauzatzeari buruzko zalantzak ere.

c) Aurrekontu-tentsioek haien exekuzioaren eta behar den ekipamenduaren erritmo normal eta konpasatuan eragiten dute.

Gure aholkuak:

- *Inbertsio politika aztertzea egungo krisi ekonomiko eta aurrekontukoaren testuinguruaren barruan. Horri dagokionez, komenigarria litzateke epe ertaineko inbertsio plan bat egitea, zeinak*

*islatuko baititu lehentasunezkoztat eta bideragarritzat jotzen diren jarduketak, aurrekontu-irizpideei eta errentagarritasun ekonomiko eta sozialeko irizpideei erreparatuta.*

- *Prezioen berrikuspenari buruzko kontratazio-araudia aplikatzea.*

#### VII.11. ZERGEN BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Zergen bidezko diru-sarrerak (diru-sarreraren aurrekontuko 1. eta 2. kapitulua) honako exekuzioa izan dute 2012an:

Zergak	Aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzearen ehunekoa	Aitortutako eskubide garbietan izandako aldaketaren ehunekoa, 2011/2012
PFEZa	1.118.307.000	1.132.105.985	101	3
Sozietateen gaineko zerga	236.793.000	196.908.841	83	17
Egoiliar ez direnen errenta	9.081.000	6.011.716	66	-29
Ondarea	30.000.000	36.523.998	122	-
Oinordetzak eta dohaintzak	40.436.000	48.979.714	121	46
Iraungiak	6	0	0	-100
<b>1. Zuzeneko zergak</b>	<b>1.434.617.006</b>	<b>1.420.530.254</b>	<b>99</b>	<b>8</b>
BEZa	1.180.477.000	1.049.974.880	89	-5
Zerga bereziak	477.084.000	372.677.324	78	-15
Kontsumoen gaineko beste zerga batzuk	22.983.000	26.811.862	117	12
Aseguru primen gaineko zerga	20.367.000	21.771.038	107	7
Ondare eskualdaketak.	42.947.000	28.773.335	67	-23
Egintza juridiko dokumentatuak	19.980.000	15.371.065	77	-19
<b>2. Zeharkako zergak</b>	<b>1.763.838.000</b>	<b>1.515.379.504</b>	<b>86</b>	<b>-8</b>


Oharra: 2011ko datuak, onura fiskalik gabe.

Datu horien azterketatik, honako hauek azpimarratzen ditugu:

- Aurreikuspenen betetze-maila honakoa izan da: zuzenetan, ehuneko 99, eta zeharkakoetan, ehuneko 86.
- Beren garrantzi kualitatiboari erreparatuta, esan behar dugu honakoek batez beste horren azpiko betetze-mailak dauzkatela: sozietateen gaineko zerga –ehuneko 83– eta zerga bereziak –ehuneko 78–.
- 2011rekin alderatuta, zuzeneko zergek ehuneko zortzi egin dute gora; zeharkakoek, berriz, ehuneko berean egin dute behera.
- 2012ko zuzeneko zergak direla eta, ondarearen gaineko zerga berria jasotzen da, zeinak 36,5 milioiko aitopena ekarri baitu.
- PFEZak eta Sozietateen gaineko zergak aurreko ikasturtean baino balio txikiagoak daukate –33 eta 29 milioi gehiago, hurrenez hurren–. BEZarekin eta zerga bereziekin, ordea, ez da gauza bera gertatzen, haien aitopenak nabarmen behera egin duelako –58 eta 64 milioi gutxiago, hurrenez hurren–.
- BEZari dagokionez, hurrengo taulan xehatzen dugu haren zenbatekoa, hura kudeatzeko moduari erreparatuta (euroak, milakotan) –ikus VII.9 atala–: zuzena, Foru Ogasunak egina, eta Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren bitartekoa.

Aitortutako BEZa	2011		2012		Aitortutako esku-bide garbien aldaketa, 2012/2011
	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa	
Zuzeneko kudeaketa	937.005	85	566.705	54	-39
Hitzarmenaren araberako doikuntza	171.155	15	483.270	46	182
<b>BEZa, guztira</b>	<b>1.108.160</b>	<b>100</b>	<b>1.049.975</b>	<b>100</b>	<b>-5</b>

Irudi bidez, honela azal daiteke:



2012ko apiriletik BEZa kalkulatzeko metodo berria aplikatzeak berarekin ekarri du zerga horrengatik egin beharreko doikuntzak finkatzeko modua aldatzea eta, horrenbestez, haren behin betiko likidazioa doitzea; likidazio hori, izan ere, aurrekontuari dagokionez, hurrengo ekitaldiko lehenengo hiruhilekoan sortzen da. Hartara, hurrengo taulan islatu dugu 2011ko eta 2012ko ekitaldietako BEZaren behin betiko likidazioaren ondoriozko doikuntza. Izan ere, likidazio horiek 2012ko eta 2013ko aurrekontuei egotzi zaizkio.

BEZaren behin betiko likidazioaren doikuntza	Kopurua (euroak, milakotan)
2011ko ekitaldia – Nafarroako Gobernuaren 2012ko aurrekontu-likidazioa	- 116.671
2012ko ekitaldia – Nafarroako Gobernuaren 2013ko aurrekontu-likidazioa	- 166.146

Hau da, Estatuaren aldeko saldoak ia 50 milioi egin du gora.

- Ondare-eskualdaketan gaineko eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergek beheranzko joerarekin jarraitzen dute; hartara, 2012an, haien aitortpena ehuneko 23 eta 19 jaitsi da, hurrenez hurren, 2011koarekin alderatuta; 2011n, datu horiek, 2010eko ehunekoekin alderatuta, ehuneko 21 eta 23 izan ziren.

2012an, **Ogasunaren jarduketan**<sup>31</sup> ondorioz (berrikuspenak, ikuskapenak eta abar), 161,5 milioiko diru-bilketa sortu da; hau da, urteko guztizko diru-bilketa likidoaren ehuneko 5,42. 2011n, balio horiek 123,1 milioikoak izan ziren; hau da, guztizkoaren ehuneko 3,91.

Aurreko egoera dela eta 2012an izandako **lege-aldaketa garrantzitsuenei** buruz, honakoak azpimarratu behar ditugu:

<sup>31</sup> Horri buruz, ikus Ganbera honek egindako txostena “Iruzur Fiskalaren aurkako 2008-2012 Planari” buruzkoa, 2013ko irailean egina.

- BEZaren tasen igoera, 2012ko irailetik aurrera aplikatu beharrekoa: tasa orokorra ehuneko 18tik ehuneko 21era; tasa murriztua ehuneko zortzitik ehuneko hamarrera; tasa supermurriztuaren kasuan ehuneko lauari eutsi zaio.

- PFEZaren kasuan, hurrengo 4. eta 5. tauletan erakusten ditugu PFEZaren zerga-tasek 2010etik 2013ra izan dituzten aldaketak (2011tik 2014ra aurkeztu beharreko aitortpenak), bai eta tarte bakoitzaren oinarri likidotik ateratzen diren batez besteko tasak ere. Azterketa horrek aldi baterako zergapetze osagarria jasotzen du, 2013ko eta 2014ko aitortpenetan aplikatu beharrekoa (2012ko eta 2013ko ekitaldiak).

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

4. taula. Kuota osoaren eta zerga-tasen bilakaera (Oharra: alderaketa homogeneoa izan dadin, 2011ko aitortpenaren datuak doitu egin dira)

Oinarri likida- zenbateraino (eurotan)	2014ko aitortpena (2013ko PFEZa)			2013ko aitortpena (2012ko PFEZa)			2012ko aitortpena (2011ko PFEZa)			2011ko aitortpena (2010eko PFEZa)					
	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbate- raino (euro- tan)	Aplikatzeko den tasa (%)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbate- raino (euro- tan)	Aplikatzeko den tasa (%)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbate- raino (euro- tan)	Aplikatzeko den tasa (%)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbate- raino (euro- tan)	Aplikatzeko den tasa (%)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbate- raino (euro- tan)	Aplikatzeko den tasa (%)
3.825	0,00	3.825	13,00	0,00	3.825	13,00	0,00	3.825	13,00	0,00	3.825	13,00	7,80	3.825	13,00
8.499	497,25	4.674	22,50	497,25	4.674	22,50	497,25	4.674	22,00	497,25	4.674	22,00	518,93	4.674	22,00
17.526	1.548,90	9.027	25,50	1.548,90	9.027	25,50	1.525,53	9.027	25,00	1.525,53	9.027	25,00	1.570,45	9.027	25,00
30.805	3.850,78	13.279	29,50	3.850,78	13.279	29,50	3.782,28	13.279	28,00	3.782,28	13.279	28,00	3.858,50	13.279	28,00
45.480	7.768,09	14.675	38,00	7.768,09	14.675	38,00	7.500,40	14.675	36,00	7.500,40	14.675	36,00	7.382,30	14.675	36,00
53.407	13.344,59	7.927	42,50	13.344,59	7.927	42,50	12.783,40	7.927	42,00	12.783,40	7.927	42,00	12.839,90	7.927	42,00
88.000	16.713,57	34.593	45,00	16.713,57	34.593	45,00	16.112,74	34.593	42,00	16.112,74	34.593	42,00	16.169,24	34.593	42,00
125.000	32.280,42	37.000	47,00	32.280,42	37.000	46,50	30.641,80	37.000	43,00	30.641,80	37.000	43,00	30.698,30	37.000	42,00
175.000	49.670,42	50.000	49,00	49.485,42	50.000	48,00	46.551,80	50.000	44,00	46.551,80	50.000	44,00	46.238,30	50.000	42,00
300.000	74.170,42	125.000	51,00	73.485,42	125.000	48,50	68.551,80	125.000	44,00	68.551,80	125.000	44,00	67.238,30	125.000	42,00
	129.170,42	Gainerakoa	52,00	134.110,42	Gainerakoa	49,00	123.551,80	Gainerakoa	44,00	123.551,80	Gainerakoa	44,00	119.738,30	Gainerakoa	42,00

5. taula. Batez besteko tasen bilakaera

Oinarri likida- gariaren tar- teak, zenbate- raino	2013-2012ko PFEZa			2012-2011ko PFEZa			2011-2010eko PFEZa		
	Kuota osoa- ren aldageta	Tasa marjina- laren aldageta	Batez besteko tasaren alda- keta	Kuota osoaren aldaketa	Tasa marjina- laren aldageta	Batez besteko tasaren alda- keta	Kuota osoaren aldaketa	Tasa marjina- laren aldageta	Batez besteko tasaren alda- keta
3.825	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	-7,80	0,00	0,00
8.499	0,00	0,00	0	0,00	0,00	0,19	-21,68	0,00	0,00
17.526	0,00	0,00	0	23,37	0,50	0,35	-44,92	0,00	0,00
30.805	0,00	0,00	0	68,50	1,50	0,70	-76,22	0,00	0,00
45.480	0,00	0,00	0	267,69	2,00	1,09	118,10	0,00	0,00
53.407	0,00	0,00	0	561,19	0,50	1,18	-56,50	0,00	0,00
88.000	0,00	0,50	0,09	600,83	3,00	1,58	-56,50	0,00	0,00
125.000	185,00	1,00	0,29	1.638,62	3,50	2,15	-56,50	1,00	1,00
175.000	685,00	2,50	0,95	2.933,62	4,00	2,62	313,50	2,00	2,00
300.000	-4.940,00	3,00	-0,10	4.933,62	4,50	3,26	1.313,50	2,00	2,00
				10.558,62	5,00	4,01	3.813,50	2,00	2,00

a) 2011ko PFEZean, 88.000 eurotik beherako oinarriko tarreak deflatatu ziren. Zenbateko horretatik aurrera, tasa marjinala ehuneko 42koa izatetik ehuneko 43koa izatera pasa da 125.000 euro bitarte, eta ehuneko 44koa izatera gainerakoetarako. 88.000 eurora bitarteko batez besteko tasak 2010ean baino txikiagoak dira, eta handiagoak kopuru horretatik gora.

b) 2012ko PFEZean, 2011koarekin alderatuta, ez dago tasen deflaziorik, eta bai kuota, bai tasa marjinalak igo egiten dira, aldi baterako zergapetze osagarri bat ezartzen delako. Igoera hori izaera progresiboa duten tarte guztietan ikusten da.

c) 2013ko PFEZean tasa marjinalak eta batez besteko tasak igo dira 88.000 eurotik gorako errententzat.

• Zenbait Tributu-neurri ezartzen dituen ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legea aplikatuta – lege horrek xedatzen du, borondatezko erregularizazioak aldi baterako errazte aldera–, ehuneko 90eko jaitsiera aplikatuko zaie Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean ezarritakoaren aplikazioak dakartzan errekarguei, baldin eta epez kanpoko aitorpenak, aitorpen-likidazioak edo autoliquidazioak aurkezten badira 2012ko ekainaren 14tik abenduaren 31ra bitarte; berandutza-interesek, berriz, ehuneko 20ko jaitsiera izanen dute. Foru lege horren babesean egindako Ordezko aitorpenek edo aitorpen osagarriek sortutako diru-sarrerak<sup>32</sup> 27,31 milioikoak dira, eta, guztira, 4.751 aitorpenen bitartez jaso dira. Kopuru horren jatorria, funtsean, honako zergetan dago:

	Aitorpen-egileen kopurua	Aitortutako kuota
PFEZa	771	5.721.808
Ondarearen gaineko zerga	132	3.505.607
BEZa	1.169	6.357.845
Sozietateen gaineko zerga	32	971.626
Oinordetzen gaineko zerga	47	5.849.115
I. Eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	634	780.637
Atxikipenak	1.376	1.758.078
Aseguru primen gaineko zerga	258	1.634.138
Bestelako zergak eta diru-sarrerak	332	726.629
<b>Guztira</b>	<b>4.751</b>	<b>27.305.483</b>

**Iturria: Nafarroako Zerga Ogasuna**

Zergen **kontabilitate-tratamenduari** eta SAP kontabilitate-sistemaren eta hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (CAP) arteko loturari dagokienez, ganbera honek Foru Ogasunaren 2012ko ekainaren 30eko egoerari buruz egin zuen txostenera jotzea gomendatzen dugu. Txosten horretan, nabarmentzen dira bi sistemen artean dauden disfuntzioak, zeinei, ganbera honek gomendatu izan duen bezala, presaz eman behar baitzaie konponbidea; halaber, aipatzen da zergen eta zordunen eta tributu-hartzekodunen kontabilitate-tratamendu egokirako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrak dauzkan kontu eta irizpideak beren zabaltasun guztiarekin aplikatu behar direla.

Azken batez, ekitaldiko itxierako aurrekontu-informazioak, Nafarroako Gobernuak dauzkan tributu-izaerako diru-sarrei buruzkoak –bereziki, diru-bilketa likidoa–, exijitzen du estimazio gisako zenbait esleipen ezartzea bai diru-sarreen, bai ekitaldi korronteko edo itxitakoen diru-sarreen aurrekontu-kontzeptuen egozpenean.

2012an, aurreko egoera berrikusteko prozesua hasi da, antzemandako arazoei konponbidea emate aldera; hartara, lehenengo analisi fase bat kontratatu da, hirugarrenen kontabilitate lagun-

<sup>32</sup> 31. oharren berdina.

tzailearen egoera eta, bereziki, diru-bilketaren kudeaketa eta kontabilitate orokorrean daukan eragina aztertzeko; gero, bigarren fase gisa, edo garapen-fase gisa, konponbide tekniko egokiak bilatuko dira, dauden disfuntzioei aurre egiteko.

Txostenaren norainokoari buruzko III. atalean adierazi bezala, 2012an **onura fiskaletatik** heldu diren gastuak eta diru-sarrerak erregistratzeko irizpidea aldatu da, eta halakoak ez zaizkio ez aurrekontuari, ez exekuzioari egotzi, urte horretara arte egiten zen bezala. 2012ko aurrekontuan, araudiari jarraituta, onura fiskalen aurrekontua aurkeztu da, baina Kontu Orokorrek ez dute haren exekuzioari buruzko ez azterlanik, ez analisirik jaso. Komenigarritzat jotzen dugu analisi hori egitea, zeren eta ez baita ahaztu behar aurreko ekitaldietako onura fiskalek diru-sarreraren aurrekontuaren ehuneko 25 inguru egin dutela.

2012an, hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen arabera, **zergen itzulketek** –funtsean konpentsazio bidez eta eskudirutan– 1.090 milioi egin dute guztira; aurreko ekitaldian baino ehuneko 23 gehiago hain zuzen. Zenbateko horretatik, ehuneko 87 eskudirutan da.

Hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den zerga nagusien itzulketen hilez hileko bilakaera (euroak, milioitan).

Itzulketa metatuak	PFEZa	Sozietateen gaineko zerga	BEZa
<b>2011</b>			
Urtarrila	0,0	63,9	13,6
Otsaila	2,5	66,6	90,4
Martxoa	4,0	68,4	145,1
Apirila	85,7	69,5	184,1
Maiatza	121,3	70,5	229,8
Ekaina	159,9	70,5	236,9
Uztaila	205,9	71,8	305,5
Abuztua	220,2	72,2	350,2
Iraila	223,5	72,4	377,9
Urria	227,8	75,0	408,0
Azaroa	234,5	75,7	439,4
Abendua	235,0	75,9	446,5
<b>2012</b>			
Urtarrila	11,4	41,8	55,8
Otsaila	13,3	46,9	76,4
Martxoa	14,4	48,4	161,1
Apirila	97,9	52,2	180,0
Maiatza	159,1	53,6	215,9
Ekaina	206,0	54,2	266,0
Uztaila	226,4	55,5	402,4
Abuztua	232,3	56,3	466,0
Iraila	237,1	56,6	532,9
Urria	241,7	58,1	571,3
Azaroa	244,0	58,8	615,4
Abendua	246,3	59,0	633,7

Hau da, itzulketen igoera handiena BEZean ikusten da –446,5 milioitik 633,7 milioira–; PFEZaren kasuan, berriz, neurri txikiagoan egin dute gora itzulketek –235 milioitik 246,3 milioira–, eta sozietateen gaineko zergan, azkenik, itzulketen bolumena jaitsi egin da –75,9 milioitik 59 milioira–.

Azkenik, hurrengo tauletan erakusten dugu zein izan den **diru-bilketa likidoaren** bilakaera<sup>33</sup> eta alderaketa, Nafarroaren zein Estatuaren<sup>34</sup> esparruko zerga nagusietan. Alderaketa horrek 2009. urtea hartzen du oinarri edo 100eko adierazle gisa.

Honakoak dira lortutako emaitzak (euroak, milioitan):

#### NAFARROA

Diru-bilketa likidoa	2009	2010	2011	2012
<b>PFEZa</b>	<b>1.110</b>	<b>1.039</b>	<b>1.096</b>	<b>1.118</b>
Adierazlea	100	94	99	101
<b>Sozietateen gaineko zerga</b>	<b>410</b>	<b>186</b>	<b>211</b>	<b>200</b>
Adierazlea	100	45	51	49
<b>BEZa</b>	<b>878</b>	<b>1.025</b>	<b>1.208</b>	<b>1.068</b>
Adierazlea	100	117	138	122
<b>Zerga bereziak</b>	<b>402</b>	<b>422</b>	<b>440</b>	<b>381</b>
Adierazlea	100	105	109	95

#### EGOERA

Diru-bilketa likidoa	2009	2010	2011	2012
<b>PFEZa</b>	<b>63.857</b>	<b>66.977</b>	<b>69.803</b>	<b>70.619</b>
Adierazlea	100	105	109	111
<b>Sozietateen gaineko zerga</b>	<b>20.188</b>	<b>16.198</b>	<b>16.611</b>	<b>21.435</b>
Adierazlea	100	80	82	106
<b>BEZa</b>	<b>33.567</b>	<b>49.086</b>	<b>49.302</b>	<b>50.464</b>
Adierazlea	100	146	147	150
<b>Zerga bereziak</b>	<b>19.349</b>	<b>19.806</b>	<b>18.983</b>	<b>18.209</b>
Adierazlea	100	102	98	94

Grafikoki<sup>35</sup>, eta zergen arabera, honakoa adierazi behar dugu:

- PFEZa.


Nafarroan PFEZa dela-eta izan den diru-bilketa likidoak ehuneko bat egin du gora 2009tik; Estatuan, berriz, igoera hori ehuneko 11koa izan da. Gainera, ikusten da Estatuan, hiru urteetan, igoera pixkanaka gertatu dela; Nafarroan, aldiz, 2012an baizik ez da igoerarik izan.

<sup>33</sup> Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira arialdiko ekitadian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako ko-brantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken eskudiruko eta konpentsazio bidezko itzulketak.

<sup>34</sup> Estatuako Zerga Agentzietatik lortutako datuak.


<sup>35</sup> Oinarri-urtea edo 100 adierazlea 2009. urtea da.






- Sozietateen gaineko zerga.

Nafarroan, zerga horren diru-bilketaren bilakaera negatiboa izan da aztertutako urte guztietan, eta Estatuan baino proportzio handiagoan; gainera, 2012an, goraldi xume bat gertatu da Estatuan.




- BEZa.

Bi administrazioetan diru-bilketak gora egin duela ikusi da, baina Estatuan igoera handiagoa izan da.



- Zerga bereziak.

Nafarroan jokaera hobea ikusten da zerga horien diru-bilketan, nahiz eta 2012an beherakada bat izan den.



Laburbilduz, egindako zerga-kudeaketari eta aplikatzekoa den araudiari buruzko abstrakzio bat eginez, aurreko datuek nabarmen uzten dute zerga horien Nafarroako diru-bilketa likidoak, dirudienez, Estatuak baino neurri handiagoan nozitu duela krisi ekonomikoko egoera.

**Tributu-zordunak** direla-eta, honako azterketak egin dira:

a) 2012ko abenduaren 31n 300.000 euro baino zor handiagoa duten tributu-zordunak errebisatu dira. Azterketa honetatik, ondokoa azpimarratzen dugu:

- Zordun horiek, guztira, 399 zergadun dira, eta 429 milioiko zor-bolumena dute: aurrekontu-zordun guztien ehuneko 57 egiten dute.
- 2011n zeukaten egoerari dagokionez, aurreko zordunek beren zorra, oro har, 72,9 milioitan igo dute.
- zor hori sortu den urtea hurrengo taulan erautsi dugu, nabarmenduz zorraren ehuneko 80 inguru 2009tik sortu dela.

Zorraren jatorri urtea	Kopurua
2000 bitarte	8.700.080
2001	467.024
2002	3.085.165
2003	4.425.758
2004	5.195.186
2005	5.399.992
2006	9.415.690
2007	17.649.348
2008	16.789.397
2009	66.182.917
2010	86.492.730
2011	67.471.353
2012	138.264.153
<b>&gt;300.000 euroko zordunak, guztira</b>	<b>429.538.793</b>

- Bere izaeraren arabera, aurreko zorra honela banatzen da:

Kontzeptua	Kopurua
Zor ez-fiskalak	3.283.912
Gerorapenak	108.466.264
Derrigorrezko Diru-bilketarako Agentzia	196.149.501
Egoera bereziak	10.894.735
Zatikatzekak	43.233.264
Zergak-kudeaketa arrunta	67.511.117
<b>&gt;300.000 euroko zordunak, guztira</b>	<b>429.538.793</b>

Hau da, agentzia exekutiboan ehuneko 46 dago; geroratzeetan, berriz, ehuneko 25; eta zatikatzeetan, azkenik, ehuneko 10. Ehuneko 16 kudeaketa arruntean dago.

• 2011n, 300.000 eurotik gorako zorrak dituzten zordunak 342 zergadun dira, eta guztira 365,4 milioiko zorra egiten dute. Zordun horiek 2012an 11,6 milioitan igo dute beren saldo zorduna.

b) Geroratzeak, kudeaketa arruntean.

2012an, hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen arabera, 10.515 geroratze-espeditente izapidetu dira kudeaketa arruntean, aurreko urtean baino ehuneko zazpi gehiago. Hurrengo taulan, izapidetutako geroratze-espeditenteen kopurua eta haren zenbatekoa xehakatu ditugu, 2009-2012 aldiko urte bakoitzaren arabera.

Urtea	Zenbat geroratze-espeditente	Adierazlea	Geroratutako kopurua gehi interesak	Adierazlea
2009	6.740	100	159.433.602	100
2010	8.532	127	181.814.196	114
2011	9.811	146	161.936.991	102
2012	10.515	156	122.421.747	77

Hau da, espeditente kopurua ehuneko 56 inguru igo den bitartean, haren zenbateko orokorra ehuneko 33 jaitsi da. Azken batean, geroratze-espeditente gehiago daude, baina kopuru txikiagoekin

2012ko abenduaren 31n, geroratutako zorrak eta haren interesek 166,8 milioi egiten dute. Zor horren ehuneko 98 2009tik 2012ra bitarteko aldirian sortu da, eta haren ehuneko 75ek 2013tik 2016ra bitartean du muga-eguna.

c) Agentzia exekutiboa

Hirugarrenen kontabilitate lagungarriaren arabera, bide exekutiboko zordunek 415,4 milioiko zorra zuten 2012ko abenduaren 31n; kopuru horretatik, ehuneko zazpi bide exekutiboko geroratzeei dagokie.

Zor horren ehuneko 76 inguru zergen zorrei dagokie. Zerga horietatik honakoak nabarmendu behar dira: BEZa –guztizkoaren ehuneko 47–, PFEZa –ehuneko 17–, zerga-zehapenak –ehuneko 11– eta sozietateen gaineko zerga –ehuneko 9–.

Zorren jatorri-urtearen arabera, haren ehuneko 49 2008a baino lehenagokoa da. Nabarmentzekoa da, halaber, 2009an guztizko zorren ehuneko 15 biltzen dela.

2011n eta 2012an zordun zirenen egoera eta haien zorren bolumena alderatuta, honakoa ikusten dugu: zordunen ehuneko 47k zenbateko bera dute zorrean; ehuneko 40k beren zorren zenbatekoa jaitsi dute, eta ehuneko 13k zor handiagoa dute.

Azkenik, 2008tik 2012ra bitarteko aldirian zordun horiek hurrengo taulan islatu dugun bilakaera izan dute bide exekutiboan, hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen arabera (euroak, milakotan).

Urtea	Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen kopurua	Adierazlea	Abenduaren 31ko saldoa	Adierazlea
2008	41.162	100	169.195	100
2009	47.564	116	224.036	132
2010	51.915	126	277.630	164
2011	67.179	163	353.310	209
2012	76.690	186	415.442	245

Hau da, aldi horretan, zor horien bolumenak ehuneko 145 egin du gora, krisi ekonomikoa hasi zenetik.

d) Baliogabetutako zorrak.

2012an, 11,6 milioi euroko zorra, 247 zordunena, baliogabetu da, funtsean kaudimengabeziarengatik.

Jatorriaren arabera, haren ehuneko 31 BEZari dagokio; ehuneko 17 zerga-zehapenei eta geroratzei, eta ehuneko 12 sozietateen gaineko zergari.

Zor bakoitzaren zor bolumenaren arabera, honakoak ikusten ditugu:

Zorra (eurotan)	Zordun kopurua	Kopurua	Batez besteko balioa
+ 300.000	12	6.108.195	509.016
10.000-299.999	72	5.295.886	73.554
9.999-1	144	249.080	1.730
-1	19	5	0,27
<b>Guztira</b>	<b>247</b>	<b>11.653.166</b>	<b>47.179</b>

e) Zergen kudeaketaren ondoriozko interesak.

Geroratu gabeko zorrei erreparatuta, guztira, geroratzeen ondoriozko sei milioiko diru-sarrerak lortu dira (2011n, 8,3 milioi izan ziren).

Geroratzeek eta zatikatzeek 2012an 7,24 milioiko interesak sortu dituzte (2011n, 7,42 milioi).

Bide exekutiboko zorren premiamenduzko errekgua dela-eta 16,35 milioiko eskubideak aitortu dira.

Bestalde, errekurtsuengatik eta PFEZaren nahiz BEZaren itzulketan gertatutako atzerapenengatik guztira 0,41 milioiko berandutza-interesak ordaindu dira (2011n, 0,63 milioi izan ziren). Zenbateko hori 1.496 espedientetan dago bermatuta, guztira, eta 273,46 euroko batez besteko balioa dauka.

f) Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren Ganberaren Baliabidea.

Baliabide hori, hasiera batean azaroren 19ko 17/1998 Foru Legean araututa zegoena, Zergen eta lanaren arloko jarduketei eta inbertsioa eta enplegu-sorrera sustatzeko jarduketa liberalizazioa buruzko abenduaren 3ko 13/2010 Errege Lege-dekretuak deuseztatu du. Halaber, arau horrek ezartzen du borondatezkoa izan den dela merkataritza ganbera bateko kidea izatea.

Hala eta guztiz ere, Errege Lege-dekretuak aldi iragankor bat egonen dela arautzen du, 2011n eta 2012an indarrean egonen dena, ganberak finantza-egoera berriari egokitu ahal izateko. Dekretu hori Nafarroan aplikatu ahal izateko, 17/1998 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 24ko 9/2011 Foru Legea eman zen. Laburbilduz, bertan ezartzen da ezen, aldi iragankor horretan, ganberak honakoak eskatu ahalko dituela:

- 2011n: Ganberaren baliabidea, 2010ean sortutako sozietatean gainera zergaren eta PFEZaren kuotei dagokiena, eta 2011n sortutako jarduera ekonomikoen gainera zergaren kuotei dagokiena.

- 2012an, aurreko ekitaldian 10 milioi euroko edo gehiagoko negozio-zifrako zenbatekoa duten entitateen sozietateen gainera zergari dagokiona.

Nafarroako Ogasun Publikoak bildu dituen zenbatekoak emanen dizkio Ganberari, baina kobrantza kudeaketatik bildu den kopuruaren 100eko 5a kenduta, dagozkion kuotak borondatezko ordainketa aldiaren kobratzeko epea bukatu eta hilabeteko epean edo, hala denean, epez kanpoko ordainketa egiten denetik.

Aurrekoaren emaitza gisa, 2012an, Nafarroako Gobernuak Merkataritza Ganberari 1,8 milioi ordaindu dizkio guztira ganberaren baliabidea dela eta. Kopuru hori, batetik, 2011ko behin betiko likidazioari eta PFEZaren eta sozietateen gainera zergaren osagarriari dagozkio -1,35-, eta, bestetik, 2011ko behin-behineko likidazioei -0,45 milioi-.

2008tik 2012ra, Nafarroako Gobernuak honako zenbatekoak ordaindu dizkio Ganberari ganberaren baliabidea dela eta:

Ekitaldia	Ganberaren baliabidea
2008	2.731.265
2009	3.384.828
2010	2.807.000
2011	2.000.928
2012	1.800.065

Gure aholkuak:

- *Eskubide aitortuen eta eskubide ezeztatuengatik zordunen kontabilitate-kontuak, abian dagoen ekitaldikoak eta ekitaldi itxietakoak bereiziz, eta zergak itzultzeagatik hartzekodunenak ere oso-osorik aplikatzea, aurrekontuaren hileroko egoera-orriak eta urtearen itxierakoak kontabilitatetik zuzenean atera ahal izan daitezen, gaur egun egiten den bezala estimazioak egin beharrik ez izateko.*

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen (HKL) sistemaren eta kontabilitate orokorraren sistemaren arteko koordinazioa hobetzeko prozesua amaitzea..*

- *Urteko oroitidazkian azterketa bat jasotzea onura fiskalen exekuzioari buruz eta haiek ezarritako helbururako egiten duten ekarpenari buruz.*

- *Gogoeta orokor bat egitea zergak kudeatu eta biltzeko egiturari, arau erregulatuileari eta prozedurei buruz, aztertze aldera ea ongi egokitzen zaizkien egungo egoera ekonomikoaren eskakizunei eta gizartearen eskariei.*

## VII.12. DIRUZAINNTZA

2012ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakina 189,5 milioikoa zen; 2011n, berriz, 220,1 milioikoa zen –hau da, ehuneko 14 jaitsi da–. Honena xehakatu daiteke:

Kontzeptua	Saldoa 2011-12-31n	Saldoa 2012-12-31n
Kontu korrante operatiboak	-1.303.034	1.927.592
Inbertsio kontuak	121.444.858	167.556.815
Ezarpenak	100.000.000	20.000.000
<b>Guztira</b>	<b>220.141.824</b>	<b>189.484.407</b>

Kontu orokorrek, oro har, ez dute ageri interesengatiko diru-saririk; inbertsio- eta ezarpen-kontuek, 2012an, 2,84 milioiko interesak sortu dituzte, ia 2011ko kopuru bera –2,88 milioi izan ziren–.

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen izenean dauden kontuei dagokienez, bi egoera bereizten ditugu haiek kontabilitatean erregistratuta egotearen ala ez egotearen arabera:

a) Kontabilitatean islatzen diren kontuak.

- Aurreko kontuak, diruzaintzako azpitaldean erregistratu daudenak.
- Kutxa finakoaren aurrerakinei lotutako kontu korranteak eta justifikatu beharreko ordainketa-aginduak; kontu horiek, zeinak kontabilitatean islatzen baitira, 63 dira guztira, eta 0,26 milioiko saldo garbia egiten dute. Balantzean erregistratzen dira, epe laburreko bestelako zordunak eta hartzekodunak atalaren barrenean, beren saldoaren izaeraren arabera.

b) Kontabilitateak korrelaziorik ez duten kontuak. 449 dira eta 10 milioi inguruko saldoa dute.

- Hezkuntza Departamentuaren kontuak, ikastetxeen kudeaketarako –funtzionamendu gastuak eta tasak/tarifak–. 338 kontu inguru dira eta 6,13 milioiko saldoa dute. Kontu hauen saldoa osatzen duten gastu eta diru-sarrereri buruzko araudiak ez du haien gaineko kontrol-sistema definitzen, eta gastuen eta diru-sarrereren justifikazioa soilik seihileko kudeaketaren kontuaren bitartez aurreikusten dute. Hala eta guztiz ere, ganbera honen gomendioei jarraituz, 2012an Hezkuntza Departamentua haiek kontrolatzeko prozedura informatiko bat diseinatzen eta ezartzen hasia da. Ildo beretik, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartze Orokorrak ere bere iritzia eman zuen, gai horri buruz egindako txosten batean.

- Hezkuntza Departamentuaren eskola-jantokietarako kontuak. 71 dira guztira eta 2,2 milioiko saldoa dute. Departamentuak egiten duen kontrola mugatzen da, kontu horiek erregulatzen dituen araudiaren arabera, ikastetxe bakoitzeko jantokiaren balantze ekonomikoaren akta jasotzera. Aipatutako araudiaren arabera, jantokien ustiatetaren superabita haien instalazioak eta tresneria hobetzera bideratuko da.


- Kontabilitatean korrelaziorik ez duten bestelako kontuak. 40 dira guztira eta 1,3 milioiko saldoa dute. Funtsean, beste departamentu batzuen kontuak dira: finantza-entitateekiko hitzarmenentarako eta Europako proiektuentarako irekitako kontuak dira.

2012ko **guztizko diruzaintza-gerakinak** 59,7 milioitan igo du bere balio negatiboa, 2011rekin alderatuta, zeren eta kobrantza-eskubideek gora egin arren –34,1 milioi–, ez baitira nahikoa ordaintzeko betebeharren igoera –62,5 milioi– eta funts likidoen jaitsiera –31,3 milioi– konpentsatzeko.

Honako taulan ageri dena da 2008tik 2012ra bitarteko aldiaren diruzaintzako gerakinak izan duen bilakaera:

Diruzaintza-gerakina (euroak, milakotan)	2008	2009	2010	2011	2012
Atxikitako diruzaintza-gerakina	27.746	46.123	54.285	98.359	103.464
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	100.505	-147.161	-126.369	-174.939	-239.750
Diruzaintzako gerakina, guztira	128.251	-101.038	-72.084	-76.580	-136.286

Irudi bidez, honela azal daiteke:



Ikusten den bezala, 2009tik, magnitude honek saldo negatiboa izan du. Bereziki nabarmentzekoak dira gastu orokorretarako gerakinen zenbateko negatiboak. Diruzaintzako gerakin atxikia funtsean Nafarroako toki entitateentzako kapital transferentzien funtsari dagokio.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin negatiboak, likidezia-tentsioko egoerak adierazteaz gainera, hurrengo ekitaldian gastuak finantzatzea eragozten du.

Halaber, diruzaintzako gerakinaren kalkuluen barruan, nabarmentzen dugu, alde batetik, kobratzen zailak diren edo kobratzea zalantzazkoa den eskubideen kontusailak aurten izan duen bilakaera, bider 2 egin baitu 2008tik 2012ra; bestetik, funts likidoen jaitziera dago, ehuneko 60 egin baitute behera. Bi kontzeptu horien bilakaera hurrengo taulan erakusten dugu (euroak, milakotan):

	2008	2009	2010	2011	2012
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-210.086	-251.623	-293.433	-359.319	-425.188
Funts likidoak	483.851	199.551	174.659	224.669	193.380

Likidezian dagoen tentsio-egoera islatzen da finantzaketa epe laburreko diruzaintza-kredituen bidez lortu behar izatean, bereziki 2012ko lehenengo seihilekoan. Hartara, honako eragiketak egin dira:

Data	Iraupena	Erabilgarria	Erabilia	Interesak	Komisioak	Interesak+komisioak	Aldeko interesak
Urtarrila	7 egun	125.000.000	70.944.502	0	63.282	63.282	0
Martxoa	10 hilabete	100.000.000	29.586.892	256.917	46.393	303.310	765.727
Apirila	3 hilabete	50.000.000	0	0	6.389	6.389	0
Maiatza	3 hilabete	50.000.000	345.557	2.650	10.190	12.840	103.098
Ekaina	6 hilabete	100.000.000	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>		<b>425.000.000</b>	<b>100.876.951</b>	<b>259.567</b>	<b>126.254</b>	<b>385.821</b>	<b>868.825</b>

Hau da, kreditu-lineak hitzartu dira. Guztira, 425 milioi egiten dute, eta horietatik egiaz 100,88 milioi erabili dira; 2011n, beharrian horiek 316,5 milioikoak izan ziren.

Haien kostu finantzarioa 0,38 milioikoa izan da. Honela xehakatu daiteke zenbateko hori: 0,26 milioi interesetan eta 0,13 milioi komisioetan.

Kasu batzuetan, kreditu-kontuak kontu korronteen bitartez erabil daitezke; beste kasu batzuetan, kontu horien aldeko saldoak hitzartutako interes tasa batekin ordaintzen dira; bide horretatik, 2012an 0,87 milioiko diru-sarrerak lortu dira. Ikusten dugu ezen 2012an eragiketa horietan aplikatutako kontabilitate-tratamendua ez dagokiola gastuak eta diru-sarrerak ez konpentsatzeko printzipioari, zeren eta haien zenbateko garbia egozten baitzaio aurrekontuari; hau da, ordaindu beharreko interesak eta komisioak aldeko interesekin konpentsatzen dira. 2013an, kontabilitatean eragiteko modu hori zuzendu da.

Gure aholkuak:

- *Ikastetxeen kontu korronteen gaineko jarraipenerako eta kontrolerako prozedura informatiko bat diseinatzen eta ezartzen amaitzea.*
- *Kontabilitatean korrelaziorik ez duten kontuei dagokienez, jasota uztea haien arduradunek, itxierari buruzko foru aginduaren eragiketen barruan, haien abenduaren 31ko egoera-orria egin eta bidali behar dutela.*
- *Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinean saldo negatiborik izanez gero, behar bezala erregulatzea hartu beharreko neurriak.*

#### VII.13. IBILGETU EZ-FINANTZARIOA

Ganbera honek bere fiskalizazio txostenetan behin eta berriz adierazi duen bezala, azpitalde horri dagokion balantzearen saldoak (2.076,9 milioi) ez ditu islatzen 2012ko abenduaren 31n ondasunen gutzizkoa eta Nafarroako Gobernuaren jabetzaren egoera. Honakoak dira arrazoiak:

- Erabilera orokorrerako inbertsioak ez dira erregistratzen ibilgetuan eraikuntzaren fasean, eta, logikoa den bezala, behin abian direnean, ez dira aldatzen masa horretatik erabilera orokorrera bideratutako ondare-kontura.
- Ez dira ibilgetu ez-materialeko inbertsioak aktibatzen, eta zuzenean emaitzen kontuan aplikatzen dira, zeren eta ez baitago prozedura bat determinatuko duenik zein baldintza edo betekizun bete behar dituzten inbertsio horiek aktibatzeko.
- Ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.
- Ez daude jasota esleipen-erara entregatutako ondasunak.
- Balantzeari buruzko zifra ez dago ez bermatuta, ez berdinkatua kasuko ondasunen inbentarioarekin. Ondare Zerbitzuak egindako inbentarioaren ardatza, funtsean, higiezinak dira, eta irizpide juridikoekin eta haiek identifikatzeko irizpideekin gauzatzen da.

Kontabilitate publikoko plan berriaren ezarpenaren esparruan, une egokia izan daiteke salbuespen horri konponbidea emateko Nafarroako Gobernuaren kontuetan, bai eta harentzako tratamendu informatikoa ezartzeko ere, zeina SAP inbentario-moduluaren bitartez egin baitaiteke, behar diren egokitzapen logikoekin.

2012an nabarmentzekoak diren alderdiak:

a) Aribideko ibilgetuaren barruan, "Abiadura handiko trenaren Nafarroako korridorarako aribidean dauden azpiegiturak" kontua aktibatu da, azpiegitura horretan egin diren inbertsioak eta hurrengo ekitaldietan egiten direnak jasotzeko. 2012ko abenduan, 23,8 milioiko saldoa dauka<sup>36</sup>, zeina bat baitator 2009tik 2012ra egindako inbertsioarekin.

b) 2012ko abenduan, Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legeko 37.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, NASUVINSA sozietate publikoari eraikinak, lokalak, etxebizitzak eta orubeak zuzenean

<sup>36</sup> Ez dira aktibatu segurtasunaren eta osasunaren arloko laguntza teknikoaren gastuak.



besterendu zitzaizkion: 20,6 milioiko kopurua egin zuen besterentze horrek; zenbateko horren ordainketaren zati bat, 0,4 milioi, eskudirutan egin zen eta gainerakoa, -20,2 milioi- zortzi urteko gehieneko geroratze baten bidez, 2015etik aurrera, diruaren legezko interesaren arabera - 2013an, ehuneko 4a zen-; halaber, Nasuvinsak eragiketa dela eta sortutako BEZa ordaindu zuen, 1,67 milioi hain zuzen.

Saldutako ondasunak Gobernuak aurrez, 2012an zehar, egindako lau enkantetatik heldu dira, enkante horiek eman gabe geratu baitziren. Enkante horien kopurua funtsean 2011ko ekitaldian Ondare Zerbitzuak egindako tasazio-txostenetan zegoen bermatua.

Nasuvinsari egindako salmenta horren prezioa hark aurkeztutako eskaintzaren arabera finkatu zen, Ondare Zerbitzuaren aldeko txostenarekin -2012ko abendua- eta berarekin dakar ehuneko 23ko jaitsiera zerbitzu horrek hasieran egin eta enkantetarako erreferentzia gisa baliatu zen balorazioarekin alderatuta; jaitsiera horren arrazoia da, txosten horren arabera, higiezin merkatuan ondasunen balioak izan duen endekatze progresibo eta jarraitua.

Salmenta hori Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higiezi-nei eta administrazio-bulegoei buruzko 2009-2011 aldirako Planaren esparruan sartzen da. Gobernuak onetsi zuen plan hori bere higiezin multzoa arrazionalizatzeko eta optimizatzeko xedez. Planaren barruan agertzen da, besteak beste, zerbitzu publikoen prestaziorako beharrezkoak ez diren higiezin desinbertsioaren printzipioa. Halaber, aurreikusita dago Nasuvinsa enpresak -alor horretako enpresa espezializatu gisa- zentralizatzea eta bere egitea enpresa-multzoaren beraren eta Gobernu osoaren salmentarako aktiboen gaineko kudeaketa eta, kasu bada, salmenta edo/eta alokairua.

Gure aholkuak:

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berria bere zabaltasun osoan aplikatzea ibilgetuaren eragiketei dagokienez.*
- *Nafarroako Foru Komunitateko ondasunen eta eskubideen inbentario osoa egitea, eta hartan haiek guztiak sartzea.*
- *Inbentario hori, ondasunen kontabilitate-tratamendurako ezinbestekoa den tresna bat eratzeko aldera, halako moduz egin beharko da non kontuan hartuko baitira, irizpide juridikoez gainera, haren kontabilitate-tratamendutik heldu diren beharrak. Horretarako, gehitu beharko dira Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean jasotako irizpideak, ibilgetuaren kontuetako kontabilitate-saldoak bermatze aldera.*
- *Ibilgetuko kontabilitate-datuak eta inbentariokoak berdinkatze iraunkorrerako prozedurak diseinatu eta aplikatzea. Horrek eskatzen du presaz ukitutako zerbitzuen arteko koordinazio egokia egin dadila.*

## VII.14. NAFARROAKO ENPRESEN KORPORAZIO PUBLIKOA TALDEA ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

### VII.14.1. Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa enpresa-taldea

Ekainaren 18ko 8/2009 Foru Legearen bitartez, Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoa (NEKP) Pertsona Bakarreko Sozietate Mugatua sortu zen. Gobernuak 2010eko urtarrilean erabaki zuen NEKPren ondareari gehitzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren titular-tasuneko sozietate publikoen akzio eta partaidetza sozial guztiak, 2010eko urtariletik aurrerako eragin politiko eta ekonomikoekin.

2011n, Enpresen Sektore Publikoa Antolatzeko eta Berregituratzeko Plan amaitu zen. 2010eko abenduan onetsi zen plan hori, eta, funtsean, sozietate publikoetan du eragina.

Prozesu horren emaitza gisa, kontuak berdinkatzearen eraginetarako, sozietate nagusiak (NEKP) eta menpeko sozietate guztiek eta sozietate elkartu guztiek osatutako talde bat eratu zen. Honakoak ziren sozietate horiek 2012ko abenduaren 31n:

**A)** Menpeko sozietateak edo taldeak, zuzenean nahiz zeharka, kontrola daukan edo izan dezakeen sozietateak. 21 dira, guztira:

- 20 sozietate publikoak, beren kapitalaren ehuneko 50eko partaidetza publikokoa dutenak; 2011rekin alderatuta, bat gutxiago dago, Tuckland Footwear, SL desegin baitzen; 2010ean, 38 zeuden.
- Parque de la Naturaleza SA sozietatea, non taldeak kapitalean duen partaidetza ehuneko 44,13koa izan arren, jotzen baita haren gaineko kontrola badagoela, entitatearen arrisku eta emaitzak direla eta akziodunen eta taldearen artean dauden akordioen arabera. 2010ean, egoera hori bera zuen Burnizko azpitaldeak, zeina 2011n aldi baterako pasa baitzen publikoa izatera, Sodenak akzioen guztizkoa erosteko aukera exekutatzearen ondorioz; halere, 2013an ez da haren besterentzea egin.

**B)** Sozietate elkartuak, zeinek partaidetzaren ehuneko 51 baino gutxiago baitute. Haien gainean sozietate nagusiak, zuzenean nahiz zeharka, menpekoen bitartez, eragin aipagarria dauka. 36 dira guztira. Horien artean, honakoak nabarmendu behar ditugu: Autopistas de Navarra, S.A., Canal de Navarra, S.A. eta Sodena S.A.ren bitartez parte hartutako sozietateak. 2010ean eta 2011n 49 eta 45 ziren, hurrenez hurren.

**C)** Parte hartutako sozietateak, zeinetan sozietate nagusiak eragin nagusirik ez baitu kudeaketan. 40 dira guztira. 2010ean eta 2011n, 39 eta 36 ziren, hurrenez hurren.

Laburbilduz, urte bakoitzeko abenduaren 31n, NEKPren Enpresa Taldearen osaera, honakoa zen bate-ratzearen ondorioetarako:

NEKPren Taldearen osaera	2010	2011	2012
Menpekoak-Sozietate publikoak	38	21	20
Menpekoak diren beste batzuk	2	1	1
Talde anitzekoak, elkarteak eta Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoan eragin aipagarria dutenak	49	45	36
Menpekoak, Nafarroako Enpresen Korporazio Publikoan eragin aipagarririk ez dutenak	39	36	40

Modu gehigarrian, taldeak 13 enpresen aldi baterako batasunetan hartzen du parte, bere menpeko sozietateen bitartez. 2010ean, 11 enpresen aldi baterako batasunetan hartzen zuen parte, eta 2011n, berriz, 12tan.

Talde bateratuaren 2011ko eta 2012ko datu nagusi gisa, honakoak adierazi behar ditugu (euroak, milakotan, pertsonen buruzko datuetan izan ezik):

Adierazleak	2011	2012
Ondare garbi bateratua	603.845	642.655
Epe luzerako zorrak	309.027	278.579
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	62.734	84.794
Maniobra-funtsa	151.558	214.216
Negozio-zifraren zenbateko garbia	296.289	192.195
Negozio-zifraren ehunekoa, Nafarroako Gobernuarekin batera	25%	23%
Nafarroako Gobernuak jasotako kapitaleko diru-laguntzak	6.583	3.637
Ustiapenerako Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	18.484	13.441
Ustiapeneko emaitza	2.717	(28.414)
Ekitaldiko emaitza bateratua	(34.237)	(62.102)
Sozietate nagusiari esleitutako emaitza	(33.224)	(60.867)
Hirugarrenei emandako abalak eta bermeak (*)	319.663	244.667
NEKPk Administrazio Kontseiluko ordainsariak (bederatzi kide)	43	30
Administrazio kontseiluetako kideen kopurua (*) (**)	142	175
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (*)	36	25
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (*)	1.486	1.438

(\*) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

(\*\*) Zenbaki erreala txikiagoa da, zeren eta administrazio kontseilu batean baino gehiagotan dauden pertsonak baitaude.

Kanpoko enpresa batek NEKPren kontu bateratuen auditoria bat egin du, eta kontu horien aldeko iritzia eman du. Iritzi horrekin batera, iritzi horretan eraginik ez duen lerrokada bat ageri da, taldearen sozietate bati –Sodena– buruzkoa. Sozietate horrek abalak eta maileguak eman dizkie enpresei, eta enpresa horietako batzuk orain finantza-egoera zailean daude. Prozesu horien bila-kaeraren menpe egonen da hartutako arriskuak berreskuratu ahal izatea edo taldearentzako galerak ekartzea; arrisku horien artean daude enpresa batentzat hartutakoak, 20 milioi eurokoak – 10 milioi mailegutan eta beste 10 milioi abalatan–, zeinetarako bermerik ez baitago<sup>37</sup>.

Geroko egitate moduan, NEKPren eta Sodenaren oroitidazkietan jasotzen den bezala, ezen 2013ko martxoan, akordio bat egin dela Burnizko azpitaldeko zuzendaritza-taldearekin eta langileekin. Akordio horren bidez, izan ere, erabaki zen haiei transmititzea haren akzio guztiak, euro bateko prezio sinbolikoan. Modu gehigarrian, besteak beste, erabaki da Burnizko SA kapitalizatzea, aurreko transakzioa egin baino lehen, 33,65 milioitan. Honela eginen da hori:

- Aurreko ekitaldietan emandako 12,6 milioiko partaidetza-maileguen konpentsazioa.
- Eskudiruko ekarpenak, zeinek aukera emanen baitute aurrez kreditu-entitateekin hartutako 14,75 zorrak, taldeak abalaturakoak, kitatzeko.
- Eskudiruko ekarpena keta bestelakoak, 6,3 milioi egiten dutenak.

Halaber, taldeak industria-planta egokitzeko, baldintza jakin batzuetan, egin beharreko inbertsioaren ehuneko 50 hartuko du bere gain.

<sup>37</sup> Lerrokada hau, halaber, NEKPren banakako auditorian eta SODENArenean sartu da.

**VII.14.2. Sozietate publikoak**

Berez publikoak diren sozietateetan zentratu eskusiboki, honakoak adierazi behar ditugu 2012ko alderdi nagusi gisa:

2012ko abenduan, NEKPren kapital-handitze bat formalizatu zen, kreditu-kontentsazioaren bidezkoa, 105,5 milioi ingurukoa. Kreditu hori heldu da Nafarroako Gobernuak NEKPri kostu bidez egindako lagapen batetik; lagapena Gobernuak hasiera batean Canal de Navarra, SARi egindako mailegu batena da. Horrenbestez, 2012ko abenduren 31n, NEKPren kapital soziala 458,9 milioikoa da. Halaber, eragiketa horren emaitza gisa, NEKPk Canal de Navarra SAn duen partaidetza ehuneko 10,55ekoa izatetik ehuneko 40koa izatera pasa da.

Hurrengo taulan, 2012ko adierazle nagusiak –bateratu gabeak– eta 2011rekiko alderaketa eman dugu:

Adierazlea	2011	2012
Sozietate publikoen kopurua	22	21
Ondare garbia	854.817.249	852.130.506
Epe luzerako zorra (metatua)	325.223.126	340.736.168
Finantza-entitateekin epe laburrera hartutako zorra	162.470.089	165.083.975
Negozio-zifraren zenbateko garbia	303.504.481	196.638.582
Nafarroako Gobernuak jasotako diru-laguntzak	22.569.349	16.088.976
Langile-gastuak	63.444.818	58.036.230
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	57.323.294	72.235.877
Maniobra-funtsa	146.347.823	215.795.534
Ekitaldiko emaitza	(56.815.082)	(115.833.459)
Administrazio kontseiluetako kideen kopurua	196	180
Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak	659.885	544.376
Goi karguen kopurua (A)	32	23
Gainerako enplegatuen kopurua (B)	1.416	1.307
Langileen kopuru osoa (A+ B)	1.448	1.330

Taula horren eta berrikusitako gainerako informazioa aztertuta, honakoak azpimarratu behar ditugu:

- Enpresa publikoen kopuruari dagokionez, 2012an Tuckland Footwear, SL azkendu da.
- Enpresa publikoen multzoaren epe luzeko zorpetzea<sup>38</sup> 340,7 milioikoa da; 2011rekin alderatuta, zorpetze horrek 15,5 milioiko igoera garbia izan du. Horri buruz, hauxe esan behar dugu:

a) Zorpetze horren ehuneko 69 finantza-entitateekin da; ehuneko 14, berriz, taldeko enpresek dauden epe luzeko zorrak dira.

b) Sodenarekin zor handiena duten sozietateak honakoak dira: Sodena, 100 milioi; Nasuvinsa, 62 milioi; eta Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria, 53 milioi.

c) Burnizko azpitaldeak 20,6 milioiko zorpetzea dauka; 2011n, zorpetze hori 30,6 milioikoa izan zen.

d) 2012ko otsailean, Sodenak 250 milioiko kreditu bat sinatu zuen Europako Inbertsio Bankuarekin, 12 urte bitarteko amortizazio-eparekin (lau urteko gabealdiarekin); ehuneko 3,287ko interes tasa finkoko kreditua zen, Nafarroako Gobernuaren bermea zuena, eta haren xede azen Moderna Planeko proiektuak finantzatzea, bereziki enpresa txiki eta ertainenak. 2012an, mailegu

<sup>38</sup> Finantza-entitateekiko zorpetzea jasotzen da, taldeko enpresek eta enpresa elkartuekin, bai eta epe luzeko bestelako zorpetzea ere.

horren lehenengo erabilpen bat izan zen, 100 milioikoa, eta 16,4 milioiko finantzaketa behar duten eragiketak eta proiektuak formalizatu dira; mailegu horren bigarren despoltsapenak, 2013rako aurreikusita zegoenak, 150 milioikoa izan behar zuen, baina ez da gauzatu, lehenengo erabilpena oraindik ere agortu gabe dagoelako.

e) 2012ko abenduan, NEKPren arestian aipatutako mailegua kapitalizatu da.

- Azpitalde horren epe laburreko zorpetzeak, finantza entitateekikoak, ehuneko bi egin du gora; hau da, 2,6 milioi. Zor horren ehuneko 80 baino gehiago Sodena enpresan zentratzen da. Enpresa horrek, 2012ko abenduaren 31n, 134,4 milioiko epe laburreko zorra dauka.

- Negozio zifra orokor horren zenbateko garbiak ehuneko 35 egin du behera –107 milioi–; horietatik, 79 milioi Nasuvinsari eta 10 milioi INTIARI dagozkie.

- Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzek ere behera egin dute 2012an, ehuneko 29 behera hain zuzen –6,5 milioi gutxiago, beraz–. Oro har, jaitsiera horrek enpresa guztietan izan du eragina.

- Langile gastuek ehuneko zortzi egin dute behera; hau da, 5,4 milioi gutxiago daude.

- Ekitaldiko emaitza orokorra 115,8 milioi negatiboa izan da; 2011n ere, emaitza negatiboak izan ziren, 56,8 milioikoak; hau da, galderak ia bi halako izan dira. Honakoak dira galera handienak izan dituzten enpresak: Sodena –61,3 milioi–, NEKP –35,7 milioi– eta Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria –5,9 milioi–. Sodenaren eta NEKPren galerak funtsean heldu dira enpresetako partaidetzetan eta emandako mailegu nahiz bermeetan egindako balioespen-zuzenketetatik. Etekin handiena dutenak honakoak dira: Nasuvinsa –2,7 milioi– Salinas de Navarra –1,04 milioi– eta Tracasa –1,02 milioi–. 2012an, Burnizko azpitaldearen galera bat jaso da, 6,2 milioikoa (2011n, azpitalde horren galerak 5,3 milioikoak izan ziren).

- Langileen batez besteko kopurua 1.330 pertsonakoa da, eta ehuneko zortzi jaitsi da –hau da, 118 langile gutxiago daude–; jardunean dauden langileen guztizkotik 217 Burnizko azpitaldekoak dira. Sozietate publiko ia guztiek beren langile-kopurua jaitsi dute edo hari eutsi diote. Nabarmentzekoa da honako enpresetan izandako jaitsierak: Burnizko azpitaldea –37 langile–, Gestión Ambiental de Navarra –34–, CEIN –18– eta Navarra de Servicios y Tecnología –12–. Tracasak zazpi langile gehiago hartu ditu. Hiru sozietate publiko badaude langilerik ez dutenak: Burnizko, Potasas de Subiza eta Start Up Capital.

- 2012an, NEKPk kapitaleko bere partaidetzetatik dibidenduak lortu ditu, 10,7 milioikoak. Funtsean, Audenasatik –6,7 milioi– eta Nasuvinsatik –4 milioi– heldu dira. 2011n eta 2010ean, guztira 13,4 eta 9,9 milioi jaso zituen, hurrenez hurren.

- Iberdrolaren akzioak, Sodenak bere garaian eskuratutakoak 211,6 milioiko erosketa-kostu doituarekin, 2012ko abenduaren 31n 121,02 milioiko balio garbia dute (139,6 eta 165,6 milioi, hurrenez hurren, 2011n eta 2010ean). Akzio horiek 9,8 milioi inguruko dibidenduak eman dituzte ekitaldi horietako bakoitzean. 2013ko urriaren 1ean, akzio horien kotizazio-balioa 125,3 milioikoa da.

Prenda gisa emandako akzio horiekin eta Nafarroako Gobernuaren babesletza-gutun edo “comfort letter” delakoarekin, 2012an Sodenak zenbait kreditu-kontu urtebeteko eperako berritu ditu, 175 milioiko gehieneko kopuruarekin; ekitaldiaren amaieran, guztira 126,7 milioi erabili dira.

- Nasuvinsari dagokionez, adierazi beharra daukagu ezen Nafarroako Gobernuari eginiko 20,6 milioiko ibilgetuaren erosketaz gainera (ikus txosten honen VII.13 atala), berriki taldeko sozietateei –bereziki, Tracasari– 23,4 milioiko aktiboak erosi dizkiola; aktibo horiek, 2012ko abenduaren 31n ordaintzeko daude oraindik, eta 21,2 milioi egiten dute guztira.

- Nafarroako Gobernuaren balantzean, 2012an, finantza-inbertsio iraunkorren balio-galearengatik diru bat jarri da, 48,7 milioi eurokoa. Kopuru horretatik 47,7 milioi NEKPren akzioen balio teorikoaren izandako galerari dagozkie.

- Azkenik, Nafarroako Gobernuak sozietate publikoei babesletza-gutunak edo “comfort letter” direlakoak emateari buruz, esan behar dugu 2012ko abenduaren 31n, finantza-tresna horren bitartez hartutako arriskuek 203 milioi egiten dutela, honako xehetasunen arabera (euroak, milakotan):

Babesletza gutunak	Babesletza gu-	Noiz eman	Muga-eguna	Bermatutako	Kopurua
--------------------	----------------	-----------	------------	-------------	---------

	tunaren tipologia	den		modalitatea	
Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria	Ahula	2009ko uztaila	2014ko uztaila	Zazpi mailegu	52.999
Sodena	Sendoa	2012ko maiatza	2013ko maiatza	Bost kreditu poliza, pignorazio-bermea dutenak	150.000
<b>Guztira</b>					<b>202.999</b>

Gai honi buruz hauxe esan behar dugu:

a) Babesletza-gutun horiek berarekin dakarte Gobernuak bere gain hartzea sozietate publiko bati emandako kreditu/mailegu baten bermea edo segurtatzea, eta horrek eragin dezake funts publikoak ukitzen dituzten jarduketa batzuk egin behar izatea.

b) Babesletza-gutuna “sendoa” dela diogu Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen duenean behar adinako baliabideak jartzeko betebeharra –kasu honetan Sodenari eskuratzen dizkionean– gutuz edo zati batean ez-ordaintzearen edo/eta pignorazio-bermearen exekuzioa (iberdrolaren akzioak) nahikoa ez izatearen ondorioz hartutako kreditu-betebeharrei aurre egiteko. Gutun “ahultzat” jotzen da Nafarroako Gobernuak eragiketa ezagutzeari, hura babesteari edo Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian gaur egun duen partaidetza-konpromisoari eusteari buruzko adierazpenak direnean.

c) Ez dago babesletza-gutunen araupetze administratibo berariazkorik, baina hirugarrenen kredituen bermea edo segurtatzea onartzeak berarekin dakar, gure iritziz, Foru Komunitatearen abalak emateko baldintza, muga eta prozeduren erregulazioa aplikatu behar izatea.

d) Egun dauden babesletza-gutunen babes bakarra garai hartako Gobernuko lehendakariordeak izenpetutako dokumentu bat da. Ez dago jasota Nafarroako Gobernuak emateko erabakia hartu izatea, ez eta abalak emateko erregulatutako gainerako prozedurak aplikatu direnik ere.

Gaur arte, babesletza-gutun horiek ez dute berarekin ekarri Nafarroako Gobernuak baliabide publikoak aplikatu behar izatea.

Gure ustez, funts publikoak konprometitzen diren eragiketa guztiak iraunkortasun finantzarioaren, efizientziaren eta gardentasunaren irizpideen arabera planifikatu eta gauzatu behar direla.

2012ko ekitaldiari dagozkion **auditoria txostenetatik** honako alderdiak nabarmendu behar ditugu:

- Potasas de Subiza SA: txostenak **kontrako iritzia** du enpresaren urteko kontuen adierazgarritasunari buruz, honako salbuespenak izan duten eragin oso aipagarriaren ondorioz: Ez da erregistratu ingurumen-leheneratzeari buruzko planetik heldu den pasiboa –epe luzeko probisioak–, zeina 9,4 milioitan kuantifikatu baita; huts horrek eragina du, halaber, aurreko ekitaldien emaitzan –11,9 milioitan azpibalaratua– eta ekitaldiko emaitzan –2,4 milioitan azpibalaratua–. Pasibo hori bai dago erregistratuta NEKP Taldearen urteko kontu bateratuetan.

Iritzian eraginik izan gabe, txostenak lerrokada bat jasotzen du sozietateak bere eragiketekin jarraitzeko daukan ahalmena dela-eta zalantza aipagarriak egoteari buruz. Horri dagokionez, sozietateak dio sal ditzakeen aktibo batzuk badituela, kopuru aipagarri bat egiten dutenak, eta akzio-odun bakarrarekin sinatutako kontratu bat badagoela; izan ere, kontratu horren bidez akziodun bakarrak konpromisoa hartzen du sozietatearen diruzaintzako defizita finantzatzeko. Faktore horiek, administratzaileen iritziz, aukera emanen dute sozietateak etorkizunean aurrea jarraitu ahal izateko.

- Burnizko azpitaldea<sup>39</sup>. Azpitalde honek, hiru sozietatek osatua dagoenak, honako egoera dauka:

a) Burnizko, SA: Txostenak **ez du iritzirik ematen** urteko kontuei buruz, norainokoak izan duen mugaren eraginaren ondorioz, zeren eta ezin izan baita arrazoizko modu batean kalkulatu taldearen enpresa batzuetan eginiko 5,3 milioiko inbertsioen balorazioa. Halaber, agerian uzten du, iritzian eraginik izan gabe, aipatzeko moduko zalantza bat badagoela sozietateak bere eragiketekin jarraitzeko daukan ahalmenari buruz.

<sup>39</sup> Gogorarazi behar dugu 2013ko maiatzean Sodena enpresak saldu egin zuela Burnizko azpitaldean zeuzkan partaidetzak.

b) Suncove, SA: iritzian **bi salbuespen** ageri dira; bata, taldeko enpresekiko kobratzeko eta ordaintzeko kontuetan gehiegizko balorazioa ageri delako –zordunketarako eragin garbia 1,9 milioikoa da–, eta horrek aurreko ekitaldietako eta jarduneko ekitaldiko emaitza gehiegi baloratuta egotea dakar; bestea, bezeroen kobratzeko kontu batzuk badaude, milioi bat egiten dutenak, eta haien berreskuratzea ez dago bermatuta, eta enpresak, gainera, ez du behar den dirua jarri; horrek ere eragina du emaitzan. Halaber, agerian uzten du, iritzian eraginik izan gabe, aipatzeko moduko zalantza bat badagoela sozietateak bere eragiketekin jarraitzeko daukan ahalmenari buruz.

c) Suministros y Servicios Unificados de Carrocería, SL: alde batetik, iritzian **salbuespen bat** ageri da, taldeko enpresekiko kobratzeko eta ordaintzeko kontuetan gehiegizko balorazioa ageri delako –zordunketarako eragin garbia 5,5 milioikoa da, eta zenbateko hori ez da jarri–, eta horrek aurreko ekitaldietan eta ekitaldi honetan eragiten du. Bestalde, lege indardunak exijitzen duen **informazioan huts** bat dago, goi zuzendaritzako langileen eta sozietateko administratzaile bakarraren ordainsari eta lansariei dagokienez. Halaber, agerian uzten du, iritzian eraginik izan gabe, aipatzeko moduko zalantza bat badagoela sozietateak bere eragiketekin jarraitzeko daukan ahalmenari buruz.

- NEKP dela eta, iritzian eraginik izan gabe, lehenago esandako lerrokada aipatzen da, enpresa batek abalak eta maileguak bermerik gabe emategatik hartu dituen finantza-arriskuei buruzkoa.

- SODENA dela eta, iritzian eraginik izan gabe, lehenago esandako lerrokada aipatu behar da, bermerik gabe emandako 20 milioiko abal eta maileguen ondorioz dauden arriskuei buruzkoa.

- Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SLU. Iritzian eraginik izan gabe, auditoriak honakoa nabarmentzen du: 2012ko abenduaren 31n, sozietatearen ondare garbia bere kapital sozialaren erdira jaitzita dago, eta hori bera desegiteko arrazoi bat da, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen arabera, kapital sozial hori handitzen edo murrizten ez bada; sozietateak informatzen du bazkide bakarrak konpromisoa hartu duela ondare-oreka berrezartzeko, printzipioz kapital sozial gutxituz.

- Natural Climate Systems, SAri dagokionez, iritzian eraginik izan gabe, sozietateari buruzko lerrokada bat jasotzen da, non esaten baita sozietatea, ekitaldiaren amaieran, merkataritza-legedian bildutako desegite-kasuetako batean dagoela. Administratzaileek erabaki dute haren likidazio antolatua egitea. Erabaki horri jarraituz, sozietatearen balantzeko ondare-elementuak aurkezterakoan, aktiboak gauzatuko direneko eta pasiboak likidatuko direneko zenbatekoak hartu dira aintzat.

- Start Up Capital Navarra, SAri dagokionez, iritzian eraginik izan gabe, txostenak dio 2012ko abenduaren 31n sozietatearen ondare garbia kapital sozialaren erdia baino txikiagoa dela, eta hori bera desegiteko arrazoi bat da, Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen arabera, kapital sozial hori behar adina handitzen edo murrizten ez bada. Oroitidazkiaren oharrean adierazi bezala, administratzaileek erabaki dute akziodunei kapital sozialaren murrizketa proposatzea.

- Navarra de Infraestructuras Locales SAU. Iritzian eraginik izan gabe, lerrokada bat gehitu da sozietatearen jarduera nagusiaren berezitasunari buruz, Saneamendu Plan Zuzendaria eta Saneamendu Kanona kudeatzeari dagokionez; hartara, sozietatearen balantzeko aktiboan, aipatutako planaren egungo defizita jasotzen da –16,1 milioi–, zeina denborarekin zuzentzen joanen baita kanonaren diru-sarrerekin; halaber, 16,1 milioiko pasibo ez-korrente bat jasotzen da: toki entitateen jabetzapeko arazketa-instalazioetan egindako berritze-jarduketari eta aparteko konponketa-lanei aurre egiteko planetik hartutako kopuruari dagokio.

- Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SL. 2012ko kudeaketari buruzko txostenean, esaten da ezen, ekitaldi horretako urteko kontuetan, urte horretan sortutako kalte-ordaintetarako diru-kopuru bat erregistratu dela; sozietateak 2013ko urtarrilean aurkeztutako enplegu erregulazioko espedienteari dagozkio kalte-ordain horiek.

Gure aholkuak:

- *Neurri egokiak hartzea kontabilitate-eragiketetatik heldu diren salbuespenak datorren ekitaldirako konpondu ahal daitezen.*

- *Jarraitasunari edo beren eragiketekin jarraitzeko ahalmenari buruzko zalantza nabarmenak antzematen diren enpresa publikoen kasuan, haien bideragarritasuna aztertzea, bai ikuspuntu*

ekonomikotik, bai ikuspuntu sozialetik, inplikaturako alde guztien ahaleginak eta ekarpenak kuantifikatuz eta dauden aukerak kontrastatuz.

- Nafarroako Gobernuak bermeak bere gain hartzea dakarten finantza-tresnak erabiltzen direnean, abalak emateko legez araututako prozedura administratiboak aplikatzea.

#### VII.15. FUNDAZIO PUBLIKOAK

Foru erkidegoko fundazio publikoak zazpi dira guztira. Haien izena eta xede soziala honako taulan ageri dena da:

Fundazioa	Helburua
Baluarte	Baluartean gartzekoak diren kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Energia Berriztagarrietarako Prestakuntza	Langileen lanbide-heziketa, energia berriztagarrien sektorea garatzeko.
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutua	Nafarroako ikus-entzunezkoen eta zinemaren sektorea sustatzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa	Nafarroako enpresetan –publikoetan zein pribatuetan– kalitate-zerbitzuak sustatzea.
Pertsona Helduen Tutoretza	Adin nagusiko pertsona ezgaituen arreta eta tutoretza

Azpi-sektore publiko honen 2012ko datu ekonomiko metatu nagusi gisa, 2011ko datuekin alderatuta, honakoa nabarmentzen ditugu:

Adierazlea	2011	2012
Fundazio publikoen kopurua	7	7
Ondare garbia	4.101.928	4.515.077
Epe luzerako zorra	0	0
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	9.443.250	6.664.055
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	5.688.301	3.031.980
Langile-gastuak	1.915.685	1.984.687
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.251.401	1.564.236
Maniobra-funtsa	3.821.441	4.234.911
Ekitaldiko emaitza	(176.665)	526.983
Patronatuetako kideen kopurua	51	50
Patronatuko kideetako ordainsariak	0	0
Goi karguen kopurua (A)	6	6
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	47,87	48,87
Langileen kopuru osoa (A+ B)	53,87	54,87

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Jardueratik bertatik eratorritako diru-sarrerak ehuneko 29 jaitsi dira, funtsean, Ondare Historikoaren Kontserbazioa fundazioan –3,4 milioitik 0,3 milioira–.

- Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzek ere 2,6 milioi egin dute bera, hau da, ehuneko 47. Gutxitze hori zentratzen da, funtsean, Ondare Historikoaren Kontserbazioa Fundazioan –2,5 milioi gutxiago–.

- Haren ekitaldiko emaitzak positiboak izan dira –0,5 milioi–; 2011n, ordea, negatiboak izan ziren –0,2 milioi–.

- Langile kopurua ia berdin mantendu da. Miguel Servet eta Pertsona Helduen Tutoretza fundazioak dira langile gehien dituztenak: 33 eta 9, hurrenez hurren.



- Bi ekitaldietako bakarrean ere ez dute ez epe luzeko, ez epe laburreko zorrik.

Fundazio horien 2012ko urteko kontuak kanpoko profesionalak ikuskatu dituzte, salbu eta Ondare Historikoaren Kontserbazioa fundazioaren kasuan, non auditoriako lanak txosten hau idazteko egunean hasi baitira. Kontu orokorretan sartzen diren auditoria guztiek aldeko iritzia edo salbuespenik gabekoa dute.

*Gomendatzen dugu fundazio publikoen kanpoko auditoriako lanak behar den garaian amaitzea, haiek Kontu Orokorretan sartu ahal izateko.*

## VII.16. ABIADURA HANDIKO TRENAREN LANAK

2009an, Sustapen Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren protokolo orokorrak sinatu ziren, Iruña-Zaragoza abiadura handiko trenbide-korridorea eraikitzeke, bai eta abiadura handiko trenbiderako Iruñeko geltoki berria eraikitzeke eta Iruñerriko trenbidearen kiribilgunea kentzeko. Jarduketa hori, berez, lau oinarriren gainean eraiki da:

- Castejón-Iruña trenbide-tartea.
- Iruñerriko jarduketa (trenbidearen kiribilgunea kentzea, geltoki berria egitea eta ukitutako arloaren hirigintza-garapena).
- Aragoi lotzea Kantauri-Mediterraneo korridorearekin.
- Euskal "Y"arekin lotzea.

2010eko apirilean, bi administrazioek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten Nafarroako lurraldean Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea eraikitzeke –Castejón-Iruñerria tartea–. Hitzarmen hori ADIF-Trenbide Azpiegituren Administrazioa ente publikoak ere sinatu zuen, jarduketez arduratuko zen ente gisa.

Nabarmendu beharra dago izenpetutako hitzarmenak Castejón-Ezkirotz tarterako zuzkidura ekonomikoa jasotzen duela soilik. Gainerako gaiak asmo-protokolo batzuk baino ez dira, zuzkidura ekonomikori, eperik eta exekuziorako bermerik gabek.

Hitzarmen honen arabera, foru administrazioak bere gain hartzen du eraikuntza-proiektuen idazketaz eta Castejonen eta Iruñerriaren arteko abiadura handiko linearen –abiadura handiko trenbiderako geltoki berrira bitartekoaren– plataformako obren exekuzioaz arduratzen da, abiadura handiko trenbidearen geltoki berriraino (69,89 kilometroko luzera), bai eta proiektuak idazteko eta obra-zuzendaritzarako behar diren zerbitzu-kontratuak ere.

Bere aldetik, Sustapen Ministerioak, ADIFen bitartez, bere gain hartuko ditu eraikuntza-proiektuen idazketa eta gainegituraren obren exekuzioa (trenbidea, elektrifikazioa, seinaleztapena, azpi-estazioak, segurtasuneko eta telekomunikazioetako sistemen instalazioak.)

Desjabetzei dagokienez, Estatuak da administrazio desjabetzailea, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, laguntza emanen du desjabetze-espedituen izapidetzearen kudeaketa administratiboan.

Bi entitateek egin beharreko obretarako kalkulatu den gehieneko kostua 675 milioi eurokoa da. Honela banatzen da zenbateko hori:

AHTa	Zenbatekoa (milioitan)
Plataforma	362,65
Desjabetzeak	10,00
Proiektuak idaztea, gainbegiratzea eta plataformako obra-zuzendaritza	15,00
<b>Nafarroako Gobernuak, guztira</b>	<b>387,65</b>
Gainegitura (proiektuak eta obra-zuzendaritza barne)	287,35
<b>ADIF, guztira</b>	<b>287,35</b>
<b>AHTa, guztira</b>	<b>675,00</b>

Nafarroako Gobernuaren jarduketak 2011tik 2014ra eginen dira, eta haien diru-kopurua Estatuak (ADIF) itzuliko du urteko bost ordainketatan, 2013tik 2017ra. Jarduketak egiteko, Nafarroako tartea bost tartetan banatu da, honako programazioarekin:

Castejón-Ezkizotz tartea	Luzera (Km)	Kalkulatu diren kostuak (milioitan) (*)							
		Guztira	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
1. Castejón-Alesbes	14,50	71,10	7,10	28,40	35,60				
2. Alesbes-Erriberri	15,00	77,55	7,75	31,00	38,80				
3. Erriberri-Tafalla	15,00	76,00	7,60	20,40	22,00	26,00			
4. Tafalla-Artederreta	15,19	78,00	7,80	21,20	21,00	28,00			
5. Artederreta-Ezkizotz	10,20	60,00	6,00	24,00	16,65	13,35			
Desjabetzeak		10,00	5,00	5,00					
Proiektuak egitea, gainbegiratzea eta obra zuzendaritza		15,00	2,00	4,00	5,00	4,00			
Nafarroako Gobernua, guztira	69,89	387,65	43,25	134,00	139,05	71,35			
ADIFen finantzaketa		387,65			10,00	25,65	30,00	170,00	152,00
Metatutako aldea			-43,25	-177,25	-306,30	-352,00	-322,00	-152,00	0,00

(\*) Lizitaziorako oinarri den aurrekontua, BEZa barne.

Aldi berean, aurreikusten da Estatuaren jarduketak 2013-2015 ekitaldietan egitea, honako programazioaren arabera:

Castejón-Ezkizotz tartea	Luzera (Km)	Kalkulatu diren kostuak (milioitan)					
		Tartea, guztira	2011	2012	2013	2014	2015
Trenbidea, elektrifikazioa eta instalazioak							
Castejón-Ezkizotz	69,89	287,35			10,00	120,00	157,35
Guztira	69,89	287,35			10,00	120,00	157,35

Zehaztu beharra dago aurreko kopuruen multzoa gastu-kalkuluei dagokiela, zeren eta kasuko proiektu teknikoak idatzi aurretik kalkulatu baitira.

Programazio horren arabera, aurreikusita zegoen Nafarroako Gobernuak plataformako obrei 2011n ekitea eta obra horiek 2014an amaitzea; gainegiturako obrak 2013an hasiko ditu ADIFek, eta 2015ean amaituko dira. Hori dela eta, azpi-tarte guztiak 2015ean egonen dira amaituta.

Nolanahi ere, obraren erantzukizuna Estatuari dagokio. Horrenbestez, Nafarroako Gobernuaren jarduketak ADIFekiko kasuko hitzarmenaren indarrez egingen dira.

Estatuak (ADIF), azpiegituraren titularra den aldetik, eraikuntza-proiektu guztiak eta haien aldatetako onetsi beharko ditu, eta obrak ikuskatzeko eta hartzeko eginkizunak ere hartu beharko ditu bere gain.

Iruñerrian, abiadura handiko linea berriari buruzko jarduketak modu koordinatuan egingen dira "Sustapen Ministerioaren, ADIFen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta "Abiadura Handia-Iruñerria" Partzuergoaren arteko Protokolo Orokorrari<sup>40</sup> dagozkioneekin, Iruñerriko trenbide sare berriaren eta Iruñeko Abiadura Handiko Trenbiderako geltoki berriaren eraikuntza proiektuak idazteko eta obrak finantzatzeko. Protokolo hori 2009ko maiatzean sinatu zen, eta honakoa ezartzen du:

- Trenbide-saihesbide berriko eta geltoki berriko obrak ADIFek egingen ditu.
- Partzuergoak ADIFek eskualdatzen dizkion lursailen aprobetxamenduak eta kalte-ordain eskubideak izanen ditu, eta Udalez gaindiko Plan Sektorialaren (PSIS) esparruan sartuko dira. Kontraprestazio moduan, Partzuergoak trenbide-azpiegituraren kostuak ordainduko dizkio ADIFI, 105 milioi bitarte.
- Trenbide sistemak aurreikusitako kostuek 10 milioi egiten dute, honako xehakapenarekin:
  - Trenbide berriaren plataforma, 52,40 milioi.

<sup>40</sup> Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko, Zizur Nagusiko eta Zizurko Zendeako udalek osatua.

- Trenbide-gainegitura, 20,2 milioi.
- Geltoki berria, 26 milioi.
- Ukitutako zerbitzuak berrezartzea, 3,9 milioi.
- Kalitate-kontrola eta Laguntza Teknikoa, 2,5 milioi.
- Udalez gaindiko Plan Sektorialaren esparruaz kanpo behar diren lursailak, 5 milioi.

• Nabarmendu behar dugu Protokolo hori ez dela garatu ukitutako administrazioen artean sinatutako kasuko hitzarmenekin. Gaur egun, jarduketa horren guztizko kopurua berrikusten ari da, egoera ekonomikoaren garapenean izanen duen eragina dela eta.

2010ean, behin betiko onespina eman zitzaion abiadura handiko trenbiderako geltokiaren eremua eta Iruñeko geltokiz aharraren eremua garatzeko udalez gaindiko plana. Haren garapena zenbait fase-tan gauzatuko da. Garapen horren aurreikusitako kostua 296 milioikoa da. 2013ko apirilean, urbanizazio- eta birzaitze proiektua idazteko lanak hasi ziren. Aurreikusi zen lan horiek 2015ean amaitzea.

Tuterako iraganbideari dagozkion proiektuen idazketa eginen da administrazio interesdun guztien artean trazadura egokienaren aukerari buruzko adostasun batera iristen direnean eta berriazko hitzarmena eta haren finantzaketa onesten direnean.

Azkenik, adierazi beharra daukagu ezen, aipatutako lankidetzak-hitzarmenean ezarritakoaren arabera, kudeaketarako gomendioaren indarrez Nafarroako Foru Komunitateak eginiko trenbide-azpiegiturako inbertsio-gastuak, ADIFI egotziko zaizkiola, eta ez Nafarroako Foru Komunitateari. Horrenbestez, Kontabilitate Nazionalaren terminoetan foru erkidegoak daukan defizitak ez du nozituko aipatutako inbertsio-gastua.

Gaur arte, honako berriazko kontratazio espedienteak izapidetu dira (BEZik gabeko zenbatekoak dira):

Deskribapena	Mota	Prozedura	Lizitazio data	Lizitazioaren zenbatekoa	Esleipen data	Esleipenaren zenbatekoa
Zuzendaritzarentzako laguntza eta koordinazio orokorra	Laguntza	Irekia	05/06/2009	775.862	07/10/2009	667.241
Bost tarteen proiektuak	Laguntza	Irekia	05/06/2009	4.025.862	20/10/2009	3.339.742
Zundaketak eta azterlan geoteknikoetarako entseguak	Laguntza	Irekia	13/10/2009	1.443.088	08/01/2010	1.443.088
Cadreita-Alesbes azpitarterako plataforma eraikitzea	Obrak	Irekia	05/05/2011	35.954.961	16/09/2011	25.172.068
Cadreita-Alesbes azpitarteko plataformako obren zuzendaritza	Laguntza	Irekia	30/06/2011	781.608	14/11/2011	545.000
Castejón-Cadreita azpitarterako plataforma eraikitzea	Obrak	Irekia	17/11/2011	34.456.924	27/06/2012	24.119.847
Castejón-Cadreita azpitarteko plataformako obren zuzendaritza	Laguntza	Irekia	11/05/2012	781.608	10/08/2012	547.966

2012ko abenduaren 31n, azpiegitura horren gastua –desjabetzeak, eraikuntza eta proiektuak eta obra-zuzendaritza– honakoa izan da:

AHTaren lanak	2009	2010	2011	2012	Guztira
Desjabetzeak			436.837	4.336.906	4.773.743
Eraikuntza			161.234	11.887.883	12.049.117
Proiektuak eta obra-zuzendaritza	228.100	5.050.529	757.468	919.433	6.955.529
<b>Guztira</b>	<b>228.100</b>	<b>5.050.529</b>	<b>1.355.539</b>	<b>17.144.222</b>	<b>23.778.389</b>
Hitzarmenean aurreikusitako urteko ordainketen kopurua			43.250.000	134.000.000	

Aurreko kopuruari segurtasunaren eta osasunaren arloko laguntzat teknikoarengatik gastua gehitu beharko litzaioke<sup>41</sup>, zeina, 2012an, 142.398 eurokoa izan baita. Gastu hori ez da aktibatu arribideko ibilgetuaren barruan; horrek islatzen baitu AHTaren inbertsioa.

Guztizko gastua, horrenbestez, 23,92 milioikoa da eta Nafarroako obra osorako aurreikusitako guztizkoaren –387,65 milioi– ehuneko 6,17 baino ez da. 2012ko abenduaren 31tik urrera, inbertsio honek gastu txikiagoa erakusten du guztira aurreikusitakoaren –153,3 milioi– gainean.

Aurrekontuen ikuspuntutik, honelako bilakaera izan da:

a) 2008ko aurrekontua. Azpiegitura honetarako hiru kontusail aurreikusita bazeuden ere, 1,15 milioiko kredituekin, ez zen gasturik batere aitortu. Kopuru horretatik, milioi bat proiektuetarako obra zuzendaritzarako zen.

b) 2009ko aurrekontua. Aurreko aurrekontuak jasotako kontusail eta zenbateko berak dauzka. Egiazki egindako gastua 0,23 milioikoa da, eta proiektu teknikoek dagokie.

c) 2010eko aurrekontua. Hiru kontusail jasotzen dira, 5,65 milioiko hasierako kredituarekin. Kreditu horiek beheranzko jaitsiera bat izan dute, 0,6 milioikoa, aurrekontu-aldaketen ondoriozkoa. Proiektuetan, beriz, 5,05 milioiko gastua aitortzen da.

d) 2011ko aurrekontua. AHTarekin lotutako inbertsioetarako hiru kontusail jasotzen dira.

- Nafarroako Abiadura Handiko korridorea egitea. 43 milioiko hasierako kreditua dauka. Aurreko, beheranzko aurrekontu-aldaketa bat egin zen, kontusaila 12,2 milioitan uzteko.
- Abiadura Handiko Trenbidearen obra-zuzendaritza. 2 milioiko zuzkidura dauka.
- Iruñerriko Abiadura Handiaren Partzuergoa. Kontusail horrek 0,15 milioi zeuzkan –2008ko eta 2009ko aurrekontuetan bezala; zenbateko bera bi urte horietan–, baina ez zen bete.

2011n aitortutako betebeharrak 1,35 milioi egin dute guztira, eta betetze-maila orokorra % 4koa izan da. Hitzarmenaren arabera, ekitaldi horretarako aurreikusitako gastua 43,25 milioikoa izan zen.

e) 2012ko aurrekontuan, AHTarekin lotutako inbertsioetarako hiru kontusail jasotzen dira.

- AHTrako lurren desjabetzea: zortzi milioiko hasierako kreditu bateratua dauka.
- Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako korridorea egitea, hasiera batean 116 milioiko kopurua zeukana. Aurrekontu-aldaketen bidez 53,9 milioi jaitsi dira. Aldaketaren ondoriozko zenbatekoa, funtsean, Osasun gastuak –32,8 milioi– eta Etxebizitza gastuak finantzatzeko erabili da.
- Abiadura Handiko Trenbidearen obra-zuzendaritza. 2 milioiko zuzkidura dauka.

2012an aitortutako betebeharrak 17,4 milioi egin dute, eta betetze-maila orokorra %21ekoa izan da. Ia 63 milioiko kreditu-gerakina dago. Hitzarmenean jasotako hasierako aurreikuspenen arabera, 2012rako programatutako gastua 134 milioikoa zen.

2013ko aurrekontuan, azpiegitura honetarako jasota dago guztira 68,5 milioi gastatzea, irailera arte inolako aurrekontu-aldaketarik izan ez duten honako kontusailetan banatua:

- AHTrako lurren desjabetzea: sei milioiko hasierako kreditua dauka.
- Abiadura Handiko Trenaren Nafarroako korridorea egitea: 57,48 milioi.
- Abiadura Handiko Trenbidearen obra-zuzendaritza: 2 milioiko zuzkidura dauka.

---

<sup>41</sup> Herri-lan Zuzendaritza Nagusiaren eskumeneko obra eta proiektu guztietarako dagoen kontratuaren zatia da.

2013ko irailean, aitortutako gastuak 18,9 milioi egiten du, honako taula honen arabera:

AHTaren lanak	2013ko iraila
Desjabetzeak	2.789.111
Eraikuntza	15.723.544
Proiektuak eta obra-zuzendaritza	373.760
<b>Guztira</b>	<b>18.886.415</b>

Segurtasunaren eta osasunaren arloko laguntza teknikoko gastua 66.696 eurokoa da. Horrenbestez, 2013ko irailera arte, AHTan 18,95 milioiko inbertsioak egin dira. 2013ko ekitaldi honetarako hitzarmenean aurreikusitako urteko ordainketa 139 milioikoa da.

Laburbilduz, honakoa da Castejón-Ezkirotz ardatza azpibanatu den tarteen egoera:

Castejón-Ezkirotz tartea Azpitarteak	Egoera
1. Castejón-Alesbes	Obrak hasita daude
2. Alesbes-Erriberri	Oinarrizko proiektua onetsi da eta eraikuntza proiektua idazten ari da
3. Erriberri-Tafalla	Oinarrizko proiektua onetsi da eta eraikuntza proiektua idazten ari da
4. Tafalla-Artederreta	Oinarrizko proiektua onesteko zain dago
5. Artederreta-Ezkirotz	Oinarrizko proiektuaren erredakzioa

Obra horien finantzaketari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitaterako 2012-2014 urteetarako aurrekontua berrerekatzeko planean, aurreikusita dago Gobernuak zorpetze eragiketak egitea hitzartutako obren aurrerapena finantzatzeko, Estatuak (ADIF) haren diru-zenbatekoa itzultzen duen arte. Zorpetzearen aurreikuspenak, milioitan, honakoak ziren:

AHTaren lanak	2011	2012	2013	2014
AHTaren finantzaketaren aurrerapena	43,3	134	129,1	45,7

Ez dago jasota obra horietarako berariazko zorpetzerik dagoenik; hori dela eta, haiek Gobernuaren baliabide orokorrekin, berekiekin nahiz zor publikoarekin finantzatu dira. Finantzaketa hori zor publikoarekin egin dela suposatzen badugu, 2013ko irailera arte exekutututako obretan egin den gastu finantzarioa –zeina, hitzarmenari jarraituz, guztiz ordaintzen baitu Nafarroako Gobernuak–, zor horretarako batez besteko interesa ehuneko 4 dela jota, 1,7 milioikoa izanen da.

Azkenik, txosten hau idazteko garaian, Madrilgo Auzitegi Nagusiaren epai bat ezagutu da, Iruña-Castejón tarteari eta Iruñeko kiribilguneari buruz Sustapen Ministerioak egindako ingurumen eraginaren adierazpenaren indarraldia baliogabetzen duena. Epai horren aurkako helegitea aurkeztu da Auzitegi Nagusian, eta haren epaiaren zain gaude.

Horrenbestez, Estatuarekin 2010ean sinatutako hitzarmena, funtsean, Castejón-Ezkirotz tartea eraikitzeari buruzkoa da; obrari koherentzia emateko behar diren gainerako jarduketek dagokionez, hitzarmen horrek asmo-adierazpenak baizik ez ditu biltzen. Hori dela eta, funtsean, ebatzi gabe daude abiadura handiko sarearen lotuneak eta Ezkirotz Iruñerako jarduketa.

Gaur egun, egoera ekonomiko orokorra dela eta, abiadura handiko trenaren obrak sakonki birplan-teatzeko eta haien egitura bera birdiseinatzeke fase batean daude. Estatuarekin elkarrizketan hasi da ebatzi dauden arazo nagusiei konponbidea emateko. Honakoak azpimarratu behar ditugu, besteak beste:

- Aragoirekiko eta Euskadirekiko lotuneetarako aukeren azterlana (abiadura handiaren plataforma edo hirugarren erreia).
- 0 tarte berri bat aztertzea, Castejónen eraikitzekeoa den Ebro ibaiaren gaineko biaduktua hartuko duena.
- Ezkirotz-Iruña tartea, kiribilgunea kentzea eta Iruñeko geltokia sartzeari, beren kostu gaurkotuekin.

- Castejón-Ezkirotz plataformaren eraikuntzaren kostua gaurkotzea.
- Obretarako kronograma koherente bat finkatzea, errealitateari egokituia.
- Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoan tratatzea Nafarroako Gobernuak egiten duen aurrerapen finantzario orokorra eta hark defizitaren kalkuluan izanen dituen eraginak.

Txosten honen arduradun den auditore Ignacio Cabeza del Salvador jaunak proposatuta egin da lan hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. eranskina. **Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera (2008tik 2012ra)** <sup>42</sup>

(euroak, milioitan)

	2008	2009	2010	2011	2012
Zuzeneko zergak	1.701,5	1.603,6	1.279,7	1.309,3	1.420,5
Zeharkako zergak	1.542,7	1.422,5	1.655,3	1.644,8	1.515,4
Tasak, prezio publikoak eta bes-telakoak	112,0	346,6	395,9	162,0	145,8
- Jasotako transferentzia arruntak.	51,1	71,8	76,1	65,0	49,6
Ondare bidezko diru-sarrerak	43,2	21,1	15,7	14,2	21,5
<b>Diru-sarrera arruntak</b>	<b>3.450,5</b>	<b>3.465,6</b>	<b>3.422,8</b>	<b>3.195,3</b>	<b>3.152,8</b>
Langile-gastuak	1.107,1	1.176,3	1.164,0	1.155,9	1.072,6
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	496,8	511,8	575,1	513,1	555,2
Gastu finantzarioak	30,5	35,1	41,8	57,6	93,0
Emandako transferentzia arruntak	1.608,7	1.562,4	1.472,0	1.399,6	1.392,1
<b>Gastu arruntak</b>	<b>3.243,1</b>	<b>3.285,7</b>	<b>3.252,9</b>	<b>3.126,2</b>	<b>3.112,9</b>
Inbertsioak	306,0	341,1	273,6	193,9	142,6
Emandako kapital-transferentziak	359,7	324,6	328,6	223,2	241,3
Inbertsio errealen besterentzea	8,1	12,3	6,4	2,7	4,1
Jasotako kapital-transferentziak	125,9	123,5	41,2	22,8	26,4
<b>Kapital-emaitza</b>	<b>-531,7</b>	<b>-529,9</b>	<b>-554,6</b>	<b>-391,6</b>	<b>-353,4</b>
<b>Finantza-aktiboekiko eragiket-ak</b>	<b>-71,2</b>	<b>-16,3</b>	<b>2,1</b>	<b>0,8</b>	<b>1,3</b>
<b>Zorren amortizazioa</b>	<b>60,2</b>	<b>0,03</b>	<b>103,2</b>	<b>91,2</b>	<b>107,3</b>
<b>Hitzartutako zorra</b>	<b>240,3</b>	<b>214,7</b>	<b>595,2</b>	<b>483,2</b>	<b>418,9</b>
<b>Zorpetze-maila</b>	<b>2,63</b>	<b>1,01</b>	<b>4,24</b>	<b>4,66</b>	<b>6,35</b>

<sup>42</sup> 2008tik 2011ra, gasturik gabe eta onura fiskaletatik heldutako diru-sarrerarik gabe.

Laburbilduz, ondoko taulan islatzen da 2008tik 2012ra bitarteko gastu eta diru-sarreraren –guztira eta biztanle bakoitzeko emanak eta onura fiskalik gabe– datuen alderaketa.



	2008	2009	2010	2011	2012
Aurrekontuko gastuak, guztira (milioitan)	4.003,22	3.992,18	3.979,25	3.657,63	3.625,44
Adierazlea	100	100	99	91	91
Per capita gastua (eurotan)	6.453	6.331	6.248	5.697	5.625
Adierazlea	100	98	97	88	87
Aurrekontuko diru-sarrerak, guztira (milioitan)	3.787,66	3.840,57	4.088,56	3.727,90	3.624,93
Adierazlea	100	101	108	98	96
Per capita diru-sarrerak (eurotan)	6.105	6.091	6.419	5.806	5.624
Adierazlea	100	100	105	95	92




Hau da, 2012tik 2008ra arteko egoera honela laburbiltzen da:




- Guztizko gastuak ia ehuneko 10 gutxitu da, eta diru-sarrerak proportzio txikiagoan gutxitu dira, ehuneko lau hain zuzen.
- Biztanle bakoitzeko gastuak ehuneko 13 egin du behera, eta diru-sarrerak, berriz, ehuneko zazpi.
- Gastu arruntak ehuneko 4 egin du behera, diru-sarrera arruntek baino gutxiago –ehuneko 9–. Horrek esan nahi du aurrezkiak okerrera egin duela, eta horrek ekarri du inbertsioak nabarmen jaistea –ehuneko 47–.
- Halaber, itundutako zorraren igoerak –ehuneko 174– berarekin ekarri du hartatik heldu den zama finantzarioa –interesak gehi amortizazioa– ere nabarmen handitzea –ehuneko 221–.




Hurrengo irudietan, arestian egin ditugun iruzkinen laburpen bat bildu dugu.











**2. eranskina.** Nafarroako Gobernuaren defizitaren eta zorpetzearen bilakaera, aurrekontu egonkortasunaren ondorioetarako (2008tik 2012ra)



2.1. Finantzaketa-beharrak

(euroak, milioitan)

	2008	2009	2010	2011	2012
<b>I. Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa</b>	<b>-321</b>	<b>-347</b>	<b>-379</b>	<b>-321</b>	<b>-317</b>
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	-324	-350	-385	-323	-313
Nafarroako Parlamentuarena eta Kontuen Ganberarena Nafarroako Arartekoarena eta Nafarroako Kontseiluarena	3	3	4	3	0,2
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena			2	-1	-4
<b>II. Aurrekontuko saldoan eginiko doitzeak</b>	<b>-459</b>	<b>-120</b>	<b>-218</b>	<b>-55</b>	<b>5</b>
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	-278	-33	-2	-	-
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	11	9	3	2	-
Barneko transferentziak	-4	-2	-	-	-
Europako funtsetako transferentziak	-5	-	-	5	-3
IDAEn transferentziak	-	-	-	3	-
Diru-bilketa ez-segurua	-120	-56	-105	122	-5
Kapital ekarpenak	-	-8	-	-	-
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-5	-1	6	-33	27
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak	-58	-29	-113	-139	6
Sortutako interesak, muga-egunera iritsi gabeak			-12	-14	-10
ADIFen obren aurrerakinak (AHTa)			5	1	17
Abalen exekuzioa				-2	-2
Higiezinak besterentzeko eragiketak					20
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik					-46
<b>III. Administrazio publiko gisa hartzen diren beste unitate batzuk</b>	<b>-97</b>	<b>-56</b>	<b>-13</b>	<b>8</b>	<b>1</b>
<b>IV. Finantzatze beharra (I.etik III.era)</b>	<b>-877</b>	<b>-523</b>	<b>-610</b>	<b>-368</b>	<b>-311</b>
Inbertsio produktiboengatik kenkaria (BPG erregionalaren % 0,25)	0	46	46	Ez da aplikagarria	Ez da aplikagarria
<b>V. Finantzatze beharra, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearen ondorioetarako</b>	<b>-877</b>	<b>-477</b>	<b>-564</b>	<b>-368</b>	<b>-311</b>
BPG erregionalaren gaineko finantzaketa-beharraren ehunekoa	-4,7	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72
Ezarrirako helburua, BPG erregionalaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,75	-0,75	-2,4	-1,3	-1,5
Helburuaren gainean, beharra gehiegizkoa izatea	738	341	118	125	40
Nafarroako BPGa	18.481	18.183	18.596	18.726	18.126

Grafikoki, hauxe ikusten dugu:






## 2.2. Zorpetzea



(euroak, milioitan)

SEC'95 zorra	2008	2009	2010	2011	2012
Nafarroako Gobernua	786,8	999,0	1.490,2	1.892,9	2.206,0
Lankidetzak publiko pribatua. Pirinioetako autobia	0	1,0	85,4	202,1	199,1
Lankidetzak publiko pribatua. Nafarroako Ubideak ureztatutako eremua	69,5	75,4	106,5	127,4	124,5
Nafarroako Unibertsitate Publikoa	-	-	-	2,6	2,7
Sozietate publikoak	1,6	1,3	1,4	226,3	333,3
Fundazio publikoak	9,6	8,8	8,5	8,8	7,9
<b>Zorpetzea, guztira (SEC'95)</b>	<b>867,5</b>	<b>1.085,5</b>	<b>1.692,0</b>	<b>2.460,1</b>	<b>2.873,5</b>
<i>Adierazlea</i>	<i>100</i>	<i>125</i>	<i>195</i>	<i>284</i>	<i>331</i>
<i>BPGa</i>	<i>18.481</i>	<i>18.183</i>	<i>18.596</i>	<i>18.726</i>	<i>18.126</i>
<i>BPGaren ehunekoa</i>	<i>4,69</i>	<i>5,97</i>	<i>9,10</i>	<i>13,13</i>	<i>15,85</i>

Grafikoki, honela erakuste da bilakaera hori:







**3. eranskina.** Nafarroako parlamentu-erakundeen 2012ko aurrekontuaren likidazioa.

## A. Nafarroako Parlamentua

## 2012ko gastuen aurrekontuaren likidazioa

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitortutako betebeharrak	Betetako portzentajea
1. Langile-gastuak	6.614.689	0	6.614.689	5.807.970	88
2. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	2.421.966	74.397	2.496.363	1.348.273	54
4. Transferentzia arruntak	3.031.737	0	3.031.737	2.940.551	97
6. Inbertsio errealak	518.210	26.368	544.578	144.193	26
8. Finantza-aktiboak	57.795	0	57.795	45.876	79
9. Finantza-pasiboak	89.449	-21.449	68.000	796	1
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>12.733.846</b>	<b>79.316</b>	<b>12.813.162</b>	<b>10.287.659</b>	<b>80</b>

## 2012ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitortutako eskubideak	Betetako portzentajea
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.860	0	2.860	75.656	2.645
4. Transferentzia arruntak	12.050.532	0	12.050.532	12.050.532	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	15.000	0	15.000	13.543	90
7. Kapital-transferentziak	634.849	0	634.849	634.849	100
8. Finantza-aktiboak	30.010	79.316	109.326	35.294	32
9. Finantza-pasiboak	595	0	595	0	0
<b>Diru-sarrerak guztira</b>	<b>12.733.846</b>	<b>79.316</b>	<b>12.813.162</b>	<b>12.809.874</b>	<b>100</b>

**Foru Ogasunari atzera ordaindutakoa 2.493.180**

## B. Arartekoa

## 2012ko gastuen aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetako portzentajea
1. Langile-gastuak	503.559	0	503.559	468.350	93
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	244.600	0	244.600	159.559	65
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.100	31.692	93
6. Inbertsio errealak	39.500	0	39.500	39.292	99
7. Kapital transferentziak	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>822.059</b>	<b>0</b>	<b>822.059</b>	<b>698.894</b>	<b>85</b>

## 2012ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Aurreikuspenak aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetako portzentajea
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	0	100	0	0
4. Transferentzia arruntak	781.150	0	781.150	781.150	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.009	0	1.009	883	87
7. Kapital-transferentziak	39.526	0	39.526	39.526	100
8. Finantza-aktiboak	174	0	174	174	100
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
<b>Diru-sarrerak guztira</b>	<b>822.059</b>	<b>0</b>	<b>822.059</b>	<b>821.733</b>	<b>100</b>

**Foru Ogasunari atzera ordaindutakoa 122.839**

## C. Nafarroako Kontuen Ganbera

## 2012ko gastuen aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko kredituak	Aitortutako bete-beharrak	Betetako portzentajea
1. Langile-gastuak	2.136.419	0	2.136.419	2.059.760	96
2. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	399.506	86.029	485.535	363.767	75
4. Transferentzia arruntak	28.000	0	28.000	15.208	54
6. Inbertsio errealak	63.000	13.340	76.340	33.758	44
8. Finantza-aktiboak	30.000	0	30.000	3.906	13
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>2.656.925</b>	<b>99.369</b>	<b>2.756.294</b>	<b>2.476.399</b>	<b>90</b>

## 2012ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Aurreikuspenak aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetako portzentajea
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	72	0	72	540	750
4. Transferentzia arruntak	2.582.853	0	2.582.853	2.582.853	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	7.800	0	7.800	2.013	26
7. Kapital-transferentziak	63.000	0	63.000	63.000	100
8. Finantza-aktiboak	3.200	99.369	102.569	5.020	5
<b>Diru-sarrerak guztira</b>	<b>2.656.925</b>	<b>99.369</b>	<b>2.756.294</b>	<b>2.653.426</b>	<b>96</b>

**Foru Ogasunari atzera ordaindutakoa 232.658**

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI LEHEN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU KONTSEILARIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak ezartzen duenarekin bat etorritik eta Nafarroako 2012ko Kontu Orokorren behin-behineko fiskalizazio-txostena aztertutik, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak ondoko alegazioak aurkeztu ditu:

Kontuen Ganberaren 2012ko Kontu Orokorrei buruzko "V.4.1 Finantzaketa-beharrak" atala dela eta, adierazi beharra dago ezen, finantzaketa behar garbiaren zenbatekoa 311 milioi eurokoa izan zen arren –BPGaren % 1,72–, diru-sarreraren itzulketa dela-eta hartzekodun direnen tratamendua –46 milioi euroko zenbatekoa egin zuena–, zeina kontabilitate nazionalako doikuntzatik heldu baita, finkatu zela Eurostatek 2013ko martxoan hartutako erabaki bat aplikatuta, Ganberak bere txostenean dioen bezala; hau da: behin ekitaldia amaituta eta Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Orokorrek berariaz eskatuta. Garrantzitsua da hori adieraztea, zeren eta ekitaldia itxi ondoren formulatutako berritasun horrengatik ez balitz, finantzaketa-beharra 265,3 milioi eurokoa izanen litzateke –BPGaren % 1,46–, eta horrek esan nahiko zuen urte horretarako aurrekontu-egonkortasunaren helburua zabal betetzen zela; izan ere, harren arabera, Nafarroako sektore publikoaren gehienezko finantzaketa-beharrak BPGaren % 1,5 izan behar zuen.

Iruñean, 2013ko urriaren 31n

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

**AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak aurkeztutako alegazioak jasota, txosten horretan adierazitako gaien azalpen bat direnez, erabaki dugu txosten hori behin betikotzat jotzea.

Aurkeztutako alegazioari dagokionez, Ganbera honek, bere txostenak berariaz dioen bezala, berresten du zergen itzulketa dela-eta hartzekodun direnengatik egin den doikuntza hori EUROSTATek 2013ko martxoan hartutako erabaki atetik heldu dela, hau da, 2012ko aurrekontu-ekitaldia amaitu ondoren emandako erabaki batetik. Halaber, txostenean aipatzen dugu nolako zailtasuna eta ziurgabetasuna eragiten duten kontabilitate nazionaleko irizpideen interpretazioetan behin eta berriz izaten diren aldaketek –are gehiago aldaketa horiek ekitaldi bat itxi ondoren aplikatu behar direnean–, bai eta kontabilitate nazionaleko terminoen defizitaren kalkuluetan – eta, horrenbestez, aurrekontuko gastuak eta diru-sarrerak finkatzerakoan– daukaten garrantzi handia ere.

Iruñean, 2013ko azaroaren 12an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas



